



# MEMORIA

BEHIN BETIKO ONESPENA  
TESTU BATEGINA  
2000KO MAIATZA

## **AURKIBIDEA**

1.-	HITZAURREA .....	1
2.	PLAN OROKORRA EGITEKO KOMENIGARRITASUNA ETA EGOKITASUNA .....	4
2.1.-	<u>AURREKARIAK</u> .....	4
2.2.-	<u>PLAN OROKORRA EGITEKO KOMENIGARRITASUNA ETA EGOKITASUNA</u> .....	7
3.-	INFORMAZIOARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA .....	12
4.-	KORPORAZIOAK HARTUTAKO IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK .....	13
5.-	PROPOSAMENAREN DESKRIBAPENA .....	17
5.1.-	<u>LURRALDE MARKOA</u> .....	17
	5.1.1.- Plan Orokorra Eta Lurrande Antololamenduari Buruzko Gidalerroak .....	17
	5.1.2.- Plan Orokorra Eta Sektorekako Plangintza .....	30
5.2.-	<u>LURRALDEAREN EGITURA OROKORRA</u> .....	43
5.3.-	<u>LURZORUAREN SAILKAPENA</u> .....	52
5.4.-	<u>BIDE SAREA ETA APARKALEKUAK</u> .....	57
	5.4.1. Bide Sarea .....	60
5.5.-	<u>TRENBIDE SAREA</u> .....	63
5.6.-	<u>OINEZKOEN SAREA ETA BIZIKLETA SAREA</u> .....	66
	5.6.1.- Oinezkoen Sarea .....	66
	5.6.2.- Bizikleta Sarea .....	69
5.7.-	<u>GUNE LIBREEN SAREA</u> .....	71
5.8.-	<u>EKIPAMENDU SAREA</u> .....	76
	5.8.1.- Hezkuntza .....	79
	5.8.2.- Kirola .....	84
	5.8.3.- Kultura .....	91
	5.8.4.- Osasuna .....	93
	5.8.5.- Gizarte Laguntza .....	94
	5.8.6.- Auzoetako Zentroak .....	96
	5.8.7.- Laburpena eta Ondorioak .....	97
5.9.-	<u>ZERBITZU SAREAK</u> .....	102
	5.9.1.- Edateko Ura .....	102



5.9.2.- Saneamendua	103
5.9.3.- Energia	105
Sare Elektrikoa .....	105
5.9.4.- Argiak	106
<u>5.10.- ERAIKUNTZAREN BABESA</u> .....	107
5.10.1.- Arau Subsidiarioak ezarri aurreko egoera	107
5.10.2.- Arau Subsidiarioetan proposatutako neurrien emaitzak	108
5.10.3.- Plan Orokorren Proposamen Berriak	111
<u>5.11.- INGURU FISIKOAREN BABESA</u> .....	115
5.11.1.- Planaren Helburuak	115
5.11.2.- Proposatutako Konponbideak	117
<u>5.12.- ETXEBIZITZA BABESTUEN AURRIKUSPENA</u> .....	129
6.- PLANA GIZARTE ETA HIRI ARLOETAN.....	136
<u>6.1.- AREETA-ERROMO</u> .....	136
<u>6.3.- ALGORTA I</u> .....	142
<u>6.4.- ALGORTA II</u> .....	145
<u>6.5.- GETXOKO ANDRA MARI I</u> .....	147
<u>6.6.- GETXOKO ANDRA MARI II</u> .....	150
<u>6.7.- GETXOKO ANDRA MARI III</u> .....	152
7.- PLANAREN KUDEAKETA .....	158
<u>7.1.- APROBETXAMENDU TIPOAREN KONTZEPTUA</u> .....	158
<u>7.2.- BANAKETA ALDEEN DEFINIZIOA</u> .....	160
<u>7.3.- ERABILEREN ZUHURTASUN ERLATIBORAKO</u> <u>IRIZPIDEAK ETA MOTAK</u> .....	163
<u>7.4.- BATEZ BESTEKO APROBETXAMENDUA HIRILURZORU</u> <u>OSORAKO</u> .....	176
<u>7.5.- LURZORU URBANIZAGAIAREN APROBETXAMENDUA</u> .....	177



## 1.- HITZAURREA

Getxoko Plan Orokorraren agiri hau pertsona eta erakunde multzo baten arteko kolaborazioaren emaitza besterik ez da; aipatu pertsona eta erakundeek ideiak eman eta ahaleginak egin dituzte planaren fase guztietan Udalerriaren hirigintza etorkizuna hobetzeko.

Era berean, hiritarren partaidetza ere nabarmena izan da, alde batetik, hirigintza-informazio prozesuan, Getxoko hirigintza-etorkizunari buruzko ideia aurkezpenaren bitartez eta, bestetik, erakusketa eta komunikabideak erabiliz jendaurrean zabalduko Aurrerapen Agiriari buruzko iradokizunen ekarpenaren bidez. Azkenik, hasieran 1995eko maiatzean Onetsitako Planaren agiriari buruzko erakusketak iraun zuen bitartean aurkeztutako alegazioak ere kontuan hartu dira eta baita tarte horretan sortu diren zenbait aldaketa tekniko eta administratibo ere; honakoak dira aldaketok:

Maila politikoan udal korporazioak babestu eta zuzendu izan du Plan Orokor honen idazketa honakoen bitartez:

Getxoko Alkatetza, Humberto Cirarda Jaun Txit Argiak ordezkaturik.

Hirigintza Batzordea, José Luis Ramos Uranga Lehendakari jaunarekin; berak egindako lana Plan Orokor honetan ezinbestekoa izan da aipatu plana bukatu ahal izateko.

Udal-teknikoen kolaborazioa ere balio handikoa izan da:

Gerardo Gorostiza jauna, lanon garapenerako oso garrantzitsua izan da Udalaren Zuzendari Tekniko legez egindako lana.

Jesus Ardanza jn., arkitektoa.

Vicente Bustamante jn., bide ingeniaria.



Alfonso Basterra jauna, industri ingeniaria.

Isabel Peral andrea, legelaria.

Azkenik, Getxoko Plan Orokorraren Agiriaren prestakuntzan erantzukizun materiala izan duen lan taldea honakoek osatzen dute:

Arkitektura eta hirigintza:

Jose Luis Burgos jauna.

Juan Manuel Pazos jauna.

Ricardo del Campo jauna.

Rafael Gómez jauna.

Marcos de la Torre jauna.

Gabriel Chapa jauna.

Soziologia:

Soziologo Aholkulariak.

Ingurugiroa:

Basoinsa.

Ingeniaritza:

Angel Gil jauna.

Ekonomia:

Lourdes Llorens and.

Sonia Padilla and.

Gai Juridikoak:

Jose Antonio Esteban jauna.

Delineazioa:

Antonia Reyes andrea.

Ramón Arnaiz jauna.



Pablo Urutxurtu jauna.

Jose Luis Tejeira jauna.

Enrique Rey jauna.

Idazkaritza:

Asela del Canto andrea.

Isabel Prado andrea.

M<sup>a</sup> Eugenia Colominas andrea.

Inés Rodríguez-Urrutia andrea.

Horiez gain, administrazioaren beste erakunde batzuen kolaborazioa ere azpimarragarria da, besteak beste, dokumentazio, irizpide eta abarren ekarpenarekin Plan Orokor honen gertuketa ahalbideratu dutelako.

Laguntza eman izan duten Erakunde Publiko eta zerbitzu publikoetako Enpresen artean honakoak azpimarratu behar dira:

Eusko Jaurlaritza.

Bizkaiko Foru Aldundia.

Bilboko Portuaren Agintaritza.

MOPTYMAren Itsasertzaren Mugapea.

Imebisa.

Bilbo-Bizkaia Ur Partzuergoa.

Bilboko Garraio Partzuergoa.

Leioako Udala.

Berangoko Udala.

Sopelanako Udala.

Erandioko Udala.

Naturgas.

Iberdrola.

Iberdrola



## 2. PLAN OROKORRA EGITEKO KOMENIGARRITASUNA ETA EGOKITASUNA

### 2.1.- AURREKARIAK

Indarreko Plangintzako Arau Subsidiarioak ordezkatu eta berrikusiko dituen Getxoko Udalerrirako Hiri Antolamenduari buruzko Plan Orokor bat egiteko eta, batez ere, plan hori bidezkozteko beharrezkoa izango da Getxoko Udal Korporazioak hartutako erabakia babesten duten legezko ordenako zein ordena praktikoko arrazoiak ematea.

Horiek horrela, Hirigintza Plangintzari buruzko Araudiaren 3. artikulura plangintzako tresna guztien zerrenda bildurik dago eta horien bitartez egingo da Udalaren hirigintza antolamendua, lehenengo tokian Hiri Antolamenduari buruzko Plan Orokorra jarritz; horien ondoren Plangintzako Arau Subsidiarioak beren bi modalitateetan eta, azkenik, Hiri Lurzoruaren Mugaketa Proiektuak.

Arestian aipatu aginduak xehetasunak ematen ditu udalerrri bakoitzari dagokion tresna egokiaren aukeraketaz:

“aukeraketa, hala denean, Koordinazioari buruzko Lurraldeko Plan Zuzentzaileak bildurik dituen aurreikuspenak kontuan izanik egingo da eta plan zuzentzaileak izango ez balitz edo plan horrek ezer ezarriko ez balu ondore horietarako ukitutako Tokiko Korporazioak, Hirigintzari buruzko Probintziako Batzordeak edo Herrilan eta Hirigintza Ministerioak aintzat hartutako hirigintza garapenak dakartzan arazoen konplexutasuna eta Udalaren beraren kudeaketa eta programaziorako gaitasuna kontuan hartu beharko lirateke.”

Horren ildotik, Getxoko Udalerrriak azken urteotan bizi izan duen hirigintza garapenaren arabera, biztanleen kopurua, gaur egun burutzapen prozesuan diren indarreko plangintzako zenbait hirigintza jarduketak eta udal organoen kudeaketa gaitasuna eta



hirigintza jarduketa osatzen duten gainontzeko faktoreak kontuan izanik, zalantzarik gabe, gure Hirigintza Plangintzan eskaintzen den tresnarik osoena beharko da; era horretara, Arau Subsidiarioen indarraldia gainditurik geratuko da, arau lerrunean Plan Orokorren baliokideak izan arren zenbait gabezia dituztelako, besteak beste, Jarduketa Programa. Nolanahi ere, Plan Orokorra bide perfektoagoa izango da bere ardurapean dauden helburuen egilespeenerako bai ikuspegi tekniko-juridikotik zein politikotik ere.

Edozelan ere, begi-bistakoa da udal kudeaketa koherente eta eraginkorrerako oso erabilgarria izango dela Plan Orokorren barnean epe luzerako udalerraren garapenerako helburuak, jarraibideak eta estrategia finkatuko dituen Jarduketa Programa; era berean, aurreikusten diren lau urteko epeetan hiri lurzoruaren eta lurzoru urbanizakorraren sistema orokorren garapenerako epe eta aurreikuspenak zehaztea ere garrantzitsua izango da.

Egin-eginean ere, ordena praktikoko arrazoi horiek berez bidezkatuko lukete plangintzako tresna honen aukeraketa. Dena dela, badira ordena juridikoko beste arrazoi batzuk ere, alor honetan aldarrikatutako arautegi berrienak ondorioztaturik; izan ere, ondorio bera atera daiteke ordena juridikoko arrazoietatik ere.

Horiek horrela, ezaguna da lurzoruaren eraentzari eta balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legeak (ekainaren 26ko 1/92 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen Testu Bategina indargabetu eta ordeztu duenak) eratutako Hirigintza Antolamendu berriak zenbait aukera ematen dietela Udalei alor honetan, hirigintza aprobetxamenduan parte hartze zuzenarekin eta antolamenduaren gauzapenari buruzko sustapenarekin.

Arestian aipatu aukera edo ahalmenen erabilpena, horien aplikazioa, planaren bitartez aukeratutako herri ereduaren lorpenerako eta, batez ere, haren akzioak udalerako eragindako gainbalioen gauzapena; era horretara, konstituzioaren bitartez aldarrikatutako jabetzaren funtzio soziala betetzen da eta, beraz, aipatu hirigintza tresna nahitaezkoa izango da ez bakarrik egokia edo gomendagarria delako baizik eta





baita legezko aginduz, behin betiko onespena baldintzatuz.

Azken buruan, legezko arrazoiak eta egokitasunezkoak bildurik, agerikoa da Getxoko Udalak bere hirigintza plangintza zehaztu eta arautuko duen tresna gisa Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorra aukeratzea bidezkoa dela.



## **2.2.- PLAN OROKORRA EGITEKO KOMENIGARRITASUNA ETA EGOKITASUNA**

Getxoko Hiri Antolamenduari buruzko Plan Orokorraren berria 1995eko maiatzaren 18an onartu zuen hasiera batean Getxoko osoko bilkurak eta geroago jendaurreko informazioan ezarri zen.

Garai hartan aurkeztutako alegazioen berri Plan Orokorraren Talde Idazleari eman zitzaion eta alegazio horiek guztiak Udaleko Hirigintza Batzordeak aztertu zituen; batzorde horrek ebazpen proposamena aurkeztu zion Osoko Bilkurari aipatu alegazioei buruz, era horretara, Plan Orokorraren agiri berrira biltzeko.

Edozelan ere, alegazioen azterketak iraun zuen bitartean zenbait gertakari sortu ziren eta, ondorioz Getxoko Plan Orokorra hasierako onespeneren menpean ezartzeko beharrezkoak diren erabaki politikoak hartzea atzeratu egin zen.

Horiek horrela, hirigintza eta lurralde antolamenduari dagokionez, honakoak izan dira Getxoko Plan Orokorrean eragin nabarmenena izan duten gertakariak:

1. Bilboko Metroaren inaugurazioarekin eztabaida sortu zen Getxoko Andra Mari auzoaren egoerari buruz, kontuan izanik, Bilbo-Plentzia trenbide zaharraren geltokia itxi egin dela geltokia Bidezabalera aldatuz.

Aipatu eztabaida horretatik, Getxoko Udalak konponbidea eman nahi izan zion arazoari, lehen fase batean gaur egungo egoerarekin bateragarria izanik, ibilbidearen hobekuntza ahalbideratuko lukeen konponbidea, era horretara, Getxoko Andra Mari auzoari eta Plan Orokorrean aurreikusitako gune urbanizakorrak berriei zerbitzu hobea eta ailegaerraztasuna emanez. Azterlana egin zen eta Udalaren erabakiaren oinarria izan da; Getxoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren agiri berriari ageri da.



2. Uribe-Kosta Korridorearen bigarren fasearen behin betiko proiektuak ere (gaur egun obretan) aldaketa batzuk izan ditu Plan Orokorrean.
3. Gobela ibaiaren biderakuntzaren behin betiko taxuketak ere (proiektua Plan Orokorrearen Hasierako Onespena baino beranduago erantsi izan da) aldaketa batzuk izan ditu agiri berrian.
4. Hasieran Plan Orokorreara bildutako Kirol Portuaren diseinuan izandako aldaketak direla bide, agiri berrian ere aldaketak izan dira.
5. Getxoko Udalak lehiaketa deitu zuen oraintsu Bilbo-Plentzia trenbidearen geltoki zaharraren inguruan kokatuta dagoen Areetako Plazaren antolamendurako. Lehiaketa horretatik eta, batez ere, saritutako konponbideetatik Plan Orokorreara bildutako zenbait proposamen sortu ziren.

Nolanahi ere, hirigintza eta antolamenduari dagokionean, Plan Orokorrearen zenbait area berrikustea eragin duten jarduketak eta gertakariak izan badira ere, marko juridikoan izan da aldaketa gehien. Azken aldian sortu eta Getxoko Plan Orokorra zuzenean eragiten duten aldaketa garrantzitsuenak honakoak dira:

1. Etxebizitza alorrean presazko neurriei buruzko Eusko Legebiltzarraren Legea; Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburuaren akordio bidez garatutako aipatu legeak Plan Orokorrak behartzen ditu babes publikoko etxebizitzetarako lurzorua gordetzera, era horretara, alor horretan Plan Orokorreara bildutako aurreikuspenak eragin zuzena izan dute eta, horiek horrela, babes publikoko etxebizitzak babes ofizialeko etxebizitzak izango dira nahitaez.
2. Estatuko Gobernuak Lege Dekretu bat onartu zuen 1996ko ekainaren 7an eta geroago Parlamentuan tramitatu zen; horren ondorioz aldaketak izan ziren egoera juridikoan: programatuan eta ez programatuan lurzoru urbanizakorraren banaketa desagertu egin zen, aprobetxamenduei buruzko lagapenetan (%15etik



%10era jeitsi zen) eta lurzoru urbanizagaitz gisa hartzen zen babestu beharreko lurzorua.

3. Hilabete batzuk geroago Konstituzio Epaitegiaren epaia argitaratu zen eta Lurzoruaren Legeari dagokionez, indarreko 1992ko Legearen zenbait artikuluren ezkonstituzionaltasuna adierazi zuen; edozein modutan ere, aurreko puntuan aipatu Lege Dekretuaren artikulua batzuk ere deuseztatu egiten zituen. Konstituzio Epaitegiaren epai horrek hainbat eskumen aintzatesten zizkien Autonomi Erkidegoei hirigintza alorrean.
4. Lege-hutsaldia betetzeko ahaleginean, Euskal Autonomi Erkidegoan ez baitzegoen hirigintza legeria autonomikorik, Eusko Jaurlaritzak eta Legebiltzarrak zenbait lege onartu zituzten 1992ko Lurzoruari buruzko Legearen antzeko marko legala ezarriz, besteak beste, 92ko lege hori ondoezik geratu zelako aipatu Konstituzio Epaitegiaren epaiaren ondorioz.
5. Estatuaren Parlamentuak 1998ko apirilaren 13an Lurzoruaren Eraentzari buruzko Oinarri Lege berria onartu zuen; lege horrek lurralde osoan hirigintzari dagokionez eraendu behar duten oinarrizko gaiak argitzen ditu eta gainontzekoak Autonomi Erkidegoen esku uzten du.
6. Eusko Legebiltzarrak artikulua bakarreko lege bat onetsi zuen toki sistemetan eta behar bezala urbanizatutako aprobetxamenduaren %10ean zehazten den hiri lurzorian eta lurzoru urbanizakorrean aprobetxamenduari buruzko lagapenak araupetzeko asmoarekin.

Horren harira, azken aldiari hirigintza alorrean nagusi izan den egonkortasun juridikoa ez da bat ere egokia Plan Orokor bat tramitatzeko. Hala eta guztiz ere, azken aldiko neurriekin alor juridikoa argiago dago eta nahikoa berme ematen du Plan Orokorraren agiri berria berriz tramitatzeko.

Hori guztia dela bide, dokumentazio berriaren arabera Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak Plan Orokorraren aurreko bertsioaren



honako irizpideak ditu:

- Planaren Egitura Orokorra.
- Getxoko Andra Mariko garapen irizpideak.
- Etxebizitzen kopuru osoa eta hazkundeari buruzko airreikuspena.
- Babestutako etxebizitzen kopurua oinarri-oinarian bere horretan geratzen da, 1366tik 1425era hain zuzen ere.
- Ekipamendu eta gune libreen zuzkidura osoa aldaketa nabarmenik gabe.

Arestian aipatu aldaketa eta gorabehera guztien ondorioz Plan Orokorren agiri berrira bildu diren funtsezko aldaketak honakoak dira:

- Andra Mari gunearen diseinu berria Metroaren saihesbide bat ahalbideratzeko.
- Kostaldeko Lurzoru Urbanizakorraren mugaren berrikuspena.
- Uribe-Kosta Korridorearen taxuketa berria.
- Gobela ibaiaren biderakuntzaren taxuketa berria.
- Areetako plazaren diseinu berria.
- Zubilleta Industrial gunearen eransketa burutzapenean den lurzoru urbanizakor gisa.
- Banaketa area berriak Alangos, Santa Eugenia eta Cosmosen.
- Alango-Euskalherria gunearen birmoldaketa Algortaren sarrera gisa.
- Portu Zaharreko Jardununeen berrantolaketa.
- Comporteko Jardununeen antolaketa berria.
- Eraikuntza berria udal bulegoetarako.



- Kirol Portuaren eta Ereagako Pasealekuaren diseinu berria.
- Udalari egin beharreko lagapenetan aldaketak dakartzan marko legal berria eta, era berean, lurzoru urbanizakorra lau urtekoetan banatzea baztertzea.
- Ekonomia eta finantza azterketa berria, azken orduan izandako aldaketa eta udal aurrekontuei buruzko azken datuen arabera eguneratutako azterketa.



### 3.- INFORMAZIOARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA

Hirigintza-informazio fasean Getxoko Udalerriaren gaura egungo egoeraren irudia eman zen eta, batez ere, honako gaiak hartzen ziren kontuan:

- Partaidetza publikoaren hasierako prozesuan izandako dokumentazio eta iradokizunen bilketa.
- Indarreko Plangintzaren azterketa eta diagnostikoa eta bere beterezpena, Udalaren finantza ahalmena eta hirigintza plangintzari buruzko arlokako legeriaren eragina jasotzen dituen marko legala.
- Plangintzari buruzko markoa, Getxon eragina izan dezaketen udalaren gaindiko planei dagokienez (batez ere, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak, Lurraldeko Plan Partziala eta Lurraldeko Arlokako Planak) eta baita mugakide dituen udalerrien plangintza ere (Erandio, Leioa, Berango eta Sopelana).
- Klima, airearen kalitatea, geologia, geomorfologia, edafologia, hidrologia, landaredia, fauna eta paisaiari dagokienez ingurugiro fisikoari buruzko analisia.
- Getxoko historia eta arte ondarea, inbentarioa eta udalerrian izandako jarduketa maila.
- Hiri ingurunea, batez ere, biztanlegoa, ekipamenduak eta esparru bereziak kontuan hartuz.
- Era guztietako azpiegiturak (bideak, trenbidea eta metroa, elektroenergia, herriko argiak, saneamendua, ur, gas eta telefono hornidura eta zaborren bilketa eta tratamendua.

Egin-eginean ere, arestian aipatu gai horietakoren bat aztertu nahi izanez gero, informazio zehatza jaso daiteke hirigintza-informazioari buruzko agirian eta, gainera, laburpena eta grafiko eta taulez osatutako eraskina ere aztertu ahal izango da.



#### 4.- KOPORAZIOAK HARTUTAKO IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK

Plangintzako Irizpide, Helburu eta Konponbideei buruzko agiria jendaurreko informazioan ezarri ondoren Udalaren Osoko Bilkurak, besteak beste, honako akordioak hartu zituen 1993ko abenduaren 15ean:

*Getxoko Udalerriaren Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrari dagokionez, tekniko idazleek egindako lanetara bildutako Plangintzako Irizpide eta Konponbide Orokorren baieztapena.*

Hirigintza (Arkitektura) Batzordeak proposaturik, gehiengoz onartu zen honakoa:

LEHENENGOA.- Getxoko Udalerrirako Hiri Antolamenduari buruzko Plan Orokorrari dagokionez, tekniko idazleek egindako lanetara bildutako plangintzako irizpide eta konponbide orokorrak baieztatzea honako ñabardurekin:

1. GARRAIO ZERBITZUAK Lurzoru erreserben aurreikuspena udal zerbitzuetarako.
2. APARKALEKUAK Trafikoaren eta Aparkalekuei buruzko Azterketaren garapen eta irizpideekin bat etorritz, lurzoru erreserbak tartekatzea.
3. HIRUGARREN MAILAKO HIRUGARREN mailako parkearen ZENTROA-ENPLEGU zabalkundea, beharrezkoa den SUSTAPENA kasuetan eta, era berean, parke teknologikoa eta/edo merkatal zentroa eta kultur zentroa zabaltzeko aukera kontuan hartuz; horretarako, erabileren nahasketa beharrezkoa izango da eta baita egoitzazkoa ere; horrez gain, azalera handiko





merkatal zentroen ezarketa  
baztertu egingo da.

#### 4. EKIPAMENDUAK

Kirol ekipamenduen deserdirapena,  
auzoetan gunek txikiak ezarri.

Hirugarren adinekoentzako  
aurreikuspenen igoera, belaunaldien  
artearen beste ekipamendu batzuekin  
integraturik.

Euskal Herriko Unibertsitatearen  
Leioako Getxo-Kanpua bultzatzea.

Ekipamendu (erakikuntzak)  
ezabatzea Arrigunagako Landan.

Osasun zentroa, anbulatorioa eta  
eduki ezberdinetako beste  
ekipamendu batzuk izango dituen  
auzo zentroa adostea Andra  
Marirako.

Orokorrean, hotel erabilera  
bultzatzea eta, partikularrean,  
urbanizagaitza den lurzoruan  
turismorako hotel erabilera  
bultzatzea.

#### 5. ETXE MERKEAK

Etxe Merkeei buruzko azterketaren  
aldarazpena, etxe horien eraispena  
ebitatzu eta erabilera publikoko  
espazio libreen bilaketarekin.

#### 6. LURZORUAREN BALORAZIOAK ETA APROBETXAMENDU TASA

Iturribarri areari dagokionez  
, eraikikortasuna goratzeko aukera  
kontuan hartuko da eta, era berean,  
area horretatik kanpo utziko da  
Los Chopos Etorbidea, Ibaizabal  
eta Izalde kalearte Uribe-Kosta  
Korridorearen eraginez.

#### 7. PREZIO MUGATUKO

Aurreikuspen handiagoa prezio



ETXEBIZITZAK mugatuko etxebizitzetan (babes ofizialeko etxebizitzak).

**BIGARRENA:** Akordio hau helaraztea iradokizunak edo plangintzako alternatibak aurkeztu zituzten Korporazio, Elkarte eta Partikular guztiei, Tekniko Idazleek emandako, kasuan-kasuko, txostenaren aldakiarekin batera.

Horren ildotik, Plangintzako Irizpide, Helburu eta Konponbideen onespenean akordiora bildutako ñabardurei Plan Orokorrak honako erantzuna ematen die:

1. Udal Zerbitzuetarako lurzoru erreserben aurreikuspena era orokorrean egiten da udalerrri osoan zabalduko Ekipamendu Publikoa kategoriaren barnean eta, era horretara, udalaren kudeaketa malguagoa izango da zeren eta izaera orokorreko ekipamenduetarako aurreikusitako lurzoruak denborarekin aldakorak izan daitezkeen biztanlegoaren beharrezkoak egokitu daitezkeelako.
2. Aparkalekuetarako erreserba bat ere aurreikusi izan da Las Mercedes kalean, Bizkaiko Zubiaren plazan, Algortako geltokian, Santa Eugenia plazan eta Sarrikobaso kalean, trafikoari buruzko azterketarekin bat etorritik.
3. Hirugarren mailako parkearen zabalkundea proposatzen da, horrela, udal akordioan proposatutako erabilerekin nahasketa ahalbideratuz.
4. Ekipamenduetarako erreserba proposamenak izaera orokorrarekin jaso izan dira, arestian aipatu bezala, udalerrri osoan homogeneouski banaturik; gauzak horrela, auzoetan kirol ekipamendu txikiak eta hirugarren adinekoentzako ekipamenduak ezartzea litekeena izango da bai lurzoru berria eta baita lehendik dauden ekipamenduekin integratutakoetan ere.
5. Arrigunagako hondartzan Aurrerapenean proposatutako ekipamendua ezabatu egiten da.



6. Andra Mariko auzo zentroa lurzoru urbanizakor sektoreei buruzko plan partzialetan ekipamenduetarako egin daitezkeen lurzoru erreserbetan kokatu ahal izango da.
7. Hotel erabileraren aurreikuspena toleratutako erabileratzat hartuz egingo da.
8. Erromoko etxe merkeetan herri espazio libreen aurreikuspena ezabatzen da.
9. Iturribarri gunean eraikikortasunaren igoera jasotzen da gune horretatik kanpo utziz Los Chupos Etorbidea, Ibaizabal eta Izalde arteko kalearte.
10. Prezio mugatuko etxebizitzetako aurreikuspen handiagoa Eusko Legebiltzarrak oraintsu onartutako Etxebizitza Alorreko Presazo Neurriei buruzko Legean oinarrituz areagotzen da; horren arabera, babes publikoko etxebizitzak 1420 izango dira Plangintzako Irizpide, Helburu eta Konponbideei buruzko agirian aurreikusitakoak 722 diren arren.



## 5.- PROPOSAMENAREN DESKRIBAPENA

### **5.1.- LURRALDE MARKOA**

#### **5.1.1.- PLAN OROKORRA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUARI BURUZKO GIDALERROAK**

EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE  
ANTOLAMENDUKO GIDALERROEN FORMULAZIOA ETA  
TRAMITAZIOA.

#### **Legezko oinarria**

Euskal Herriko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko  
4/1990 Legearen 10. artikulua.

#### **Formulazioa**

Gobernu Kontseiluaren erabakia elaborazio prozedura martxan jartzeko  
eta, era berean, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren esku uztea  
Aurrerapenaren formulazioa.

Erabakiaren data: 1990eko uztailaren 17a.

Argitarapena: Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria: 1990eko  
abuztuaren 1a.

#### **Aurrerapena**

Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Politikarako Aholku Batzordearen txostena.

Data: 1992ko abenduaren 17a.

Euskal Herriko Lurralde Antolamenduari buruzko Batzordearen txostena.

Data: 1992ko abenduaren 18a.

Herri Administrazio eta Erakunde Publiko eta Pribatuei bi hilabeteko



entzunaldia zabalduko zaie.

Azken buruan, erantzuna emango zaie aurkeztutako iradokizunei.

### **Behin betiko agiria.**

Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Politikarako Aholku Batzordearen txostena.

Data: 1993ko abenduaren 20a.

Euskal Herriko Lurralde Antolamenduari buruzko Batzordearen txostena.

Data: 1994ko urtarrilaren 21a.

### **Hasierako onespena.**

Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburuaren Agindua, 1994ko urtarrilaren 24koa.

Argitarapena: Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria: 1994ko otsailaren 4a.

“El Correo Español-El Pueblo Vasco”, “Deia” eta “El Diario Vasco” egunkarietan argitaratzea: 1994ko otsailaren 7an.

### **Behin betiko onespena.**

Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburuaren Agindua, 1997ko otsailaren 11koa.

Argitarapena: Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria: 1997ko otsailaren 12a.

## **EDUKIA**

Euskal Herriko Lurralde Antolaketari buruzko Legeak norberaren marko juridikoa eratu nahi du Lurralde Antolaketa alorrean Euskadiren Administrazio Antolaketa izango denaren gidalerroak ezartzeko.

Aipatu gidalerroek formulazio “biguna” dute haren zehaztapenak zurrunik eta betebeharrekoak ez direlako kasu zehatzetan salbu; era horretara, Autonomi Erkidegoaren lurralde ereduaren eraikuntzan



beharrezkoa den malgutasuna izango da.

Hortaz, Lurralde Antolaketari buruzko Gidalerroek lau atal nagusitan egituratzen dute Lurralde Eredua:

- 1.- Ingurune fisikoa.
- 2.- Euskadiko Hiri eta Landa Guneen Sistema.
- 3.- Erlaziozko Sistema. Lurralde Eredurako Azpiegiturak.
- 4.- Ekipamenduen Sistema.

## **INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAKETA**

Ingurune Fisikoaren Antolaketak gaur egungo gatazka eta eraginkortasunik ezaren diagnostikoa eta lurraldearen garapenerako lurzoru urbanizaezinak eta baliabide naturalek hartu beharreko papera izango ditu abiapuntu.

### **Gidalerro orokorrak**

#### **A. Lurzoruaren tratamendua.**

Sektorekako Baso-Lurralde Plan bat egingo da Euskal Landa-Plan Estrategikoarekin bat etorritz; aipatu plan horrek zehaztuko ditu bete beharreko egintzak balio handiagoko edo erosio arrisku handiagoko a landare guneen berreskurapena eta mantenimendua lortzeko; horretarako, kontuan izango ditu gai honi buruz Uholdeen Aurreneurriei buruzko Plan Integralak egiten dituen gomendioak.

Nolanahi ere, Plan hau onartu arte honako arauak ezartzen dira:

A. Kasuan kasuko azterketek zehaztutako erosio arriskua dagoen tokietan udal plangintzak ezarriko ditu lizentzia emateko beharrezkoak izango diren irizpide eta betekizunak, era horretara, edozein jarduketak lurzoruaren galera prozesuetan ondore negatiborik ez eragitea bermatzeko.

Birbaso-sartzeari buruzko jarduketa publikoak, batez ere, erosio aktiboko prozesuetan dauden guneetan aparteko ahalegina egingo du eta nekazal gaitasun handiagoko lurretan lurzoruaren iraulketa



eragingo ez duten teknikak bideratuko dira.

Sektorekako lurralde plangintzarekin bat etorriz, udal plangintzak hiri garapen arruntetik kanpo utzi beharreko lurrak mugatuko ditu.

B. Landarediaren tratamendua.

Bertako espezie klimatikoen zuhaizti guztiak artatuko dira.

Muga, muino eta urbazterretan isolatutako oinaka errespetatuko dira.

Zuhaiztiaren azalera beraren birjarpena baimenduko da udalerrriaren beste toki batean.

C. Faunaren tratamendua.

100 hektarea edo hortik gorako azaleretan (mugakideenak ere kontuan izanik) edozein motatako hezi edo itxitura jarri ahal izateko beharrezkoa izango da udalaren lizentzia.

Ibaien uharkak ukitzen dituzten lerrozko azpiegitura eta obrek basoko faunaren igarobidea kontuan izan beharko dute.

D. Azaleko uren tratamendua.

Lurzoru urbanizaezinean dauden errekaen uharka edo ubideetan bi aldeetan 25 metro zabalerako babes xingola bat ezarriko da.

Horiez landa, lurzoru urbanizakorraren kasuan udal plangintzak babes gunea ezarriko du eraikikortasun mugaren eta uren gehieneko mailaren kanpo lerroaren artean; babes gune hori 20 metrokoa izango da gutxienez errekaen kasuan eta 100 metrora arte zabaldu ahal izango da; dena den, 100 metro horietako xingolaren barneko 10 metroetan ezin izango da urbanizazioko elementurik ezarri.

Edozelan ere, hiri lurzoruan arestian aipatu zabalera murriztea posible izango da baina horretarako bidezkoketa beharko da eta, edozein modutan ere, Uren Legeak hizpatutako zortasunezko lerrozko 5 metroak mantenduko dira.

E. Itsasbazterren eta itsas gunearen tratamendua.

Itsasbazterrean egingo den jarduketara orok indarreko legeriak



xedatutakoa bete beharko du eta, horrez gain, Lurraldeko Plan Partzialek zehaztaperen osagarriak egin ahal izango dituzte.

#### F. Paisaiaren tratamendua.

Egingo diren jarduketetarako aurreikusitako zehaztaperen orokorrez gain, udal plangintzak jarduketa horiek paisaiari eragiten dioten kalteari buruzko kontrola ezarriko du eta, gainera, lurzoru publikoa edozein izanik ere, bazterreko espazio eta jabari publikoaren tratamendua aztertuko du.

#### **Gidalerro partikularrak. Ingurune fisikoaren kategoriak.**

DOTen Lurralde Ereduak Antolaketako hamar Katetoria ezartzen ditu funtzio bikoitzarekin:

- Izendurak homogeneizatzea lurzoru urbanizagaitz kalifikazioetan.
- Gutxieneko irizpideak ezartzea erabilera eta jarduketaren araupeketa bideratzeko lurzoru urbanizagaitzean.

Proposatutako Antolaketako Kategoriak honakoak dira:

P. Zainketa Hertsiko area edo arloak.

C. Artapen Aktiboko arloak.

M. Birsorkuntza eta Hobekuntzako arloak.

F1. Lehendik dauden Baso Erabilerako arloak.

F2. Sortu beharreko Baso Erabilerako arloak.

A1. Nekazaritza Intentsiboko arloak.

A2. Nekazaritza Extentsiboko arloak.

G. Abeltzaintza Erabilerako arloak.

R. Azaleko Uren Babeserako arloak.

V. Erabilera Zehatzik gabeko arloak.

Horiek horrela, Zainketa Hertsiko arloetara (zabalera murriztuko gunek, pribilegiatuak eta hauskorrek ekologia, kultura, paisaia edo guztiaren ikuspegitik) bildurik daude Punta Galea-Barrikako trokak.





Aipatu kategoriarekin mailarik txikienera murriztu nahi da eskuhartze antropikoa lehendik dagoen egoerari eutsiz. Gune horietan egintza guztiak bideratuko dira multzoaren babesa bermatzeko.

Bestalde, artapen aktiboko arloak ekosistema klimatikoei aplikatuko zaizkie era aktiboan eutsiz ustiaketa eta erabilera arrazionaleri, horretarako, beharrezkoak diren eraikuntza eta instalazioekin. Kategoría horretara bildurik geratuko dira Getxoko udalerrian dauden hondartzak.

Birsorkuntza eta hobekuntzako arloak bertako baso degradatuari eta kokapen geografikoagatik balio handiagoko kategoriakoak izan daitezkeen guneei aplikatuko zaizkie. Kategoría honen helburua arlo hauek aurreko kategoriakoak bihurtzea izango litzateke; kategoría horretara bil daitezke troketatik hurbil dauden guneak.

Baso erabilerako Kategoriekin baso erabilerari eutsi eta baso erabilera hori berreskuratu nahi da era ordenatuan eta ekoizpen finkatua bermatuz. Kategoría horietara bildurik daude Bolueko baso guneak.

Nolanahi ere, ibai eta errekaen uharkei dagokienez, uren kalitatea eta artapena bideratzea, uharka eta urbazterren antzematea edo aldaketa ebitatzea eta arrisku naturalek eragindako kalteak gutxitzea izango lirateke erabili beharreko irizpideak.

Azken buruan, Erabilera Zehatzik Gabeko arloetara bildurik daude aurreko kategorietara bildurik ez dauden lur guztiak; hortaz, aipatu lurrek ez dute balio garrantzitsurik izango ekologia, paisaia eta zientifiko-kultur ikuspegitik. Lur horietan kokatuko dira hirugarren eta bigarren mailetako garapen jarduerak eta proiektu ausartagoak.

## **ASENTAMENDU SISTEMAREN ANTOLAKETA**

Gidalerro honekin argibideak eman nahi dira tokiko eta kanpoko jarduera berrien ezarpena bideratuko duen lurzoru politikari buruz, jarduera berri eta konpetitiboak eragingo dituzten industri sustapeneko beste politika batzuekin bat eginik.

Bestalde, egoitzazko lurzoruaren politika kontuan hartu beharreko faktore garrantzitsua da gorago proposatutako helburua lortzeko.



### **Egoitzazko lurzorua.**

DOTek Sektorekako eta Lurraldeko Plan Partzialak sortu beharra proposatzen dute, era horretara, arlo bakoitzean izango diren lurzoruari buruzko beharrianak zehazteko; dena den, egoitzazko lurzoru gisa balioko duten Hazkunde Selektiboko Hiri Esparru batzuk adierazten ditu. Esparru horietara bildurik dago Getxo-Plentzia-Gorliz ardatza.

Bilboko Arlo Funtzionalean bigarren egoitzari dagokionez, honakoa da ezaugarri adierazgarriena: bigarren egoitza etxebizitza iraunkor bihurtzea prozesu aurrerakorrean, aldi berean, garraio azpiegiturako hobetzen eta Bilbo eta inguruan lurzoruaren prezio altuei eta pilaketari buruzko arazoak areagotzen diren bitartean. Izan ere, Getxoko lorategi hiriaren aldaketa historikoa prozesu horren arabera izango litzateke.

Edozein modutan ere, aipatu garapenak harreman zuzenak ditu arlo horiek bultzatuko dituzten jarduera turistikoekin, bizitza kalitatean hobekuntza nabarmena lortzeko asmoarekin lurradeko balore naturalak aprobetxatuz.

Azken buruan, Bilbok azken urteotan bizi izan duen hazkunde handiaren eraginez, bere hiri sareak apurka-apurka inguruan zeuden gune txikiagoak irentsi ditu, denborarekin zenbait udalerriz osatutako neurri handiko Hiri Arloak eratuz; horrelako kasuetan hirigintza tratamendu integratua beharrezkoa izango da. Getxo ere arlo horretara bildurik dago eta, beraz, haren plangintzak kontuan izan beharko ditu kokaturik dagoen markoa eta gainontzeko udal barrutiek dituen harremanak.

### **Kultur ondarea**

Kategoria eta babes mailak ezarriko dira honakoan oinarrituz:

- Babes programa bat diseinatu behar da, gaur aroko bizitzaren garapena eta kultur baloreekiko errespetua bateragarri egingo dituen programa.
- Parke Arkeologikoen sorrera sustatzea.
- Kultur Ondarea bultzatzea aberastasuna sortzeko agente dinamizatzaile gisa.

Euskal Kultur Ondarearen sailkapena honela sailkatzen da:

- Monumentuak.
- Multzo monumentalak.
- Kultur guneak.

Kultur Ondarearen babesa eta artapena udal plangintzaren bitartez programatuko da.

Horrez gain, Kultur Ondarearen Sektorekako Lurralde Plan bat garatuko da eta horra bilduko da, besteak beste, zaharberrikuntzarako lehenespenen ordena kalifikatutako eta inbentarioa egindako kultur ondasunetarako Euskal Kultur Ondareari buruzko Legearekin bat etorritz.

### **Hiri berrikuntza**

Orain hamarkada batzuetako berrindustrializazio garaian Euskal Autonomi Erkidegoaren industri eta ekonomiaren euskarri ziren hirien garapen azkarrak erabileren justaposizioarekin eta dentsitate handiko hiri guneak eragin zituen eta, azken aldian izandako industri birmoldaketen ondorioz aipatu hiri gune horiek degradazio handiko gune bihurtu dira.

Horregatik, “Hiri Berrikuntzako Programa Estrategikoak” idaztea proposatzen da arestian aipatu arlo horien berreskurapena bultzatzeko. Programa horietako bat, lehenespen handiz, Bilbo ondoko eta Ibaizabalen ondoan dauden udalerrri guztiek osatuko lukete; gorago aipatu helburuak lortzeko ezinbestekoa izango da izaera publiko eta pribatuko Agente eta Erakundeen partaidetza handiena.

### **Zabalaldirako guneak**

Mekanismo batzuk finkatuko dituzten gidalerroak ezarriko dira hiritarrek naturaz goza dezaten gune ezberdinen erabilerekin era bateragarrian.

Aipatu helburu horietara Zabalaldirako Guneen sarea osatuko duten zenbait gune biltzen dira, besteak beste, Azkorri eta Ereagako hondartzak eta baita hondartza horiek mugakide dituzten zabalaldi guneak ere.

## **OINARRIZKO AZPIEGITUREN ANTOLAKETA**



## **Garraioa**

Aurreikuspen nagusienak honakoak dira:

- Errepideen Plan Nagusia.
- Bilboko Metroa.
- Abiadura Handiko Trena.
- Bilboko Portua.
- Foru Aldundien Plan eta Obrak.

Helburuak eta irizpideak:

- Behar bezala hierarkizatutako Garraio Sistema.
- Lurraldea egokiro mailakatuko duen sarea.
- Hiri Guneetako trafiko pasagune-agitazioak bereiztea.
- Konexio eta sarbideak Area Funtzionaletara.
- Bilboko Portu Autonomoaren zabalkuntza.
- Bilboko Aireportua bultzatzea.
- Garraio publikoko aukerak ezarri eta sustatzea.
- Metroari lehentasuna ematea Bilboren Area Integratuan.
- Uribe-Kosta sektorearen errepide sarearen gaitasuna igo egingo da.

Gidalerro partikularrak.

### **Portuak**

Bilboko Portuaren zabalkuntza eta atondura. Kirol eta itsas-erabilerak baimenduko dira portuaren barneko erabilera horietarako egokitutako moiletan eta, era berean, gaur egun erabilera horietarako zuzendutako Ibaizabalen ondoko moila eta ditxoeren gaitasuna igo egingo da.

## **Energia**

DOTek eskura dauden energia iturriak bereizi nahi dituzte, petroleoaren menpekotasuna murriztuz eta gas natural eta energia alternatiboen sarrera bultzatuz.



Era berean, gas sarearen zabalkuntza bultzatuko da, lehenespenerekin biztanle kopuru handiagoko hirietan.

### **Hondakin soliduak**

Hiri Hondakin Soliduen eskualdekako kudeaketa sistema planteatzen da, gidalerroak aurreikusitako lurraldearen puntuetan kokatuko diren azpiegiturek eskaintzen duten sistema hain zuzen ere.

Hiri Hondakin Soliduen (HHS) tratamendua bi fasetan egingo da. Lehenengoan, kostu txikiko konponbide azkarra eta eraginkorra eman beharko da eta, bigarrean, hondakinen aprobetxamenduari eta berreskurapenari buruzko sistema sofistikatuenak jarriko dira martxan.

Egin-eginean ere, Area Funtzionalerako aurkezten den proposamena honakoa da: Transferentzia Estazio bat Getxon eta Zabortegei bat Bilbon.

### **EKIPAMENDUEN ANTOLAKETA**

#### **Hezkuntza ekipamendua**

Euskal Autonomi Erkidegoaren hezkuntza sistemaren lurralde antolaketa honako helburu eta irizpideen arabera izango da:

- Area Funtzional bakoitzak buruaskia izan behar du irakaskuntzako lehen mailerako eta unibertsitate mailako irakaskuntzarako hiri nagusienetara jo beharko da.
- Egitura demografikoa dela bide, irakas-ekipamenduen sistema antolaketara eta lehendik dauden ekipamenduen erabilerara bideratu beharko da.
- Irakas-zentroen sarea kirol guneekin integrazteko ahalegina egingo da.
- Haur-hezkuntza eta lehen irakaskuntza hertsiki toki eremukoak izango dira, derrigorrezko bigarren hezkuntza eskualde azpiko eremukoak eta bigarren mailako post derrigorrezko hezkuntza eskualde lerrunekoa.
- Unibertsitatearen eta gizartearen arteko integrazioa bultzatzea, batez ere, enpresa munduarekin.

#### **Osasun ekipamendua**

Osasun ekipamenduaren lurralde antolaketa honako helburuen arabera  
MEMORIA



izango da:

- Area buruaskia kanpo osasun laguntzan.
- Zerbitzuen lurralde eskalari dagokionez, Mediku Etxea toki eremukoa izango da; Udal Osasun Itaundegiak eta Osasun Zentroak, ordea, udalez gaindikoak; Anbulatorioak lurralde eremukoak; Ospitale Nagusiek Area Funtzional bati edo Area Funtzional multzo bati emango diote zerbitzua; erregio edo probintzia azpiko Erreferentziako Ospitale Nagusiak bere Area Funtzionalari emango dio zerbitzua.
- Zerbitzuen hierarkizazioa:
  - Lehen maila (familia medikuntza, espezializazioen beharrianik gabeko tratamendua).
  - Bigarren maila (espezializateekin eta ospitaleratzearekin).
  - Hirugarren maila (laguntza espezializatuagoa eta eredu teknologiko handiagokoa).

### **Epai-ekipamendua**

Epai sistemaren lurralde antolaketa honako helburuen araberakoa izango da:

- Gehienezko oreka Epai-Barruti ezberdinen zerbitzupeko biztanlegoari dagokionez, baita hedaturari dagokionez ere.
- Egokitasuna sektorekako beste estrategia batzuekin.
- Tokian tokiko epai-antolaketa kontuan hartzea.
- Justizi Auzitegi Nagusia eta Probintziako Entzutegiak bezalako lurralde auzialdiak erregio lerrunekoak dira eta elkarregokitasuna beharko dute Hiriburuen Euskal Sistema Polinuklearrarekin.
- Gorenko lurralde auzialdien eraginaren menpeko arloetan aldaketarik ez egitea.

Gauzak horrela, DOTekin Mungiako Area Funtzionala Getxoko Epai-Barrutira bildu nahi da Mungiaren zatikapena ebitatzeko eta Getxorekin nolabaiteko kidesasuna gordetzeko, azken finean, biak ere Bilbo ingurukoak direlako.

## **Administrazio eta merkataritzako ekipamendua**

Administrazio eta merkataritzako sistemaren lurralde antolaketa honako helburuen arabera izango da:

- Egokitasuna ezarri izan da ekipamendu zehatzen jasotzaile diren hirien lerrunaren eta lerrun funtzionalaren beraren artean.
- Batakortasunak bilatuko dira, hiri eta lurralde plangintzatik, merkatal ekipamendu pribatuaren eta hiri bizitzaren mantenimendu eta sendotzearen artean Area Funtzional bakoitzaren hiriburuetako zentroetan.
- Merkataritza eta administrazio ekipamendua lurraldearen honako puntuetan kokatuko da: ailegaerraztasun ona izanik, demanda potentszialari edo biztanlegoari dagokionez posizio zentrolean kokaturik.
- Neurri handiko instalazioek kontuan izan beharko dute ingurigirotatutako lurraldearen eta sarbideen azpiegiturari eragiten dioten kaltea.
- Finantza-ekipamenduak eta zerbitzu aurreratuak bultzatuko dira erregioetako hiriburuetan.
- Nazioarteko Erakustazoka bultzatuko da azoka zabalduz eta beharrezkoak diren zerbitzu osagarriak sortuz.
- Administrazio ekipamenduaren banaketa muga politiko-administratiboekin, ekipamenduaren esangura politikoarekin, hiri lerrunarekin eta hiritarrarekiko hurbiltasun irizpideekin egin beharko da.

## **Kultur ekipamendua**

Bilboko Area Funtzionalan Kultur sistemaren antolaketa honako helburuen arabera izango da:

- Ibai bazterretan ekipamendu berriak ezartzea, era horretara, hiri berrikuntzak sortutako guneen berreskurapena ahalbideratzeko eta, aldi berean, ibaiaren bi aldeetako harremanak hobetu egingo dira.



- Artxanda Bilboren jolas-gune nagusi bihurtzea.

### **Kirol ekipamendua**

Kirol sistemaren lurralde antolaketa honako helburuen arabera izango da:

- Tokiko kirol guneak espezializazio maila txikikoak dira.
- Eskualdekoak izango dira lehia kirola baldintza asegarrietan egitea ahalbideratzen dutenak.
- Erregioko kirol guneek kirol ikuskizuna eta eskaintza aniztasuna izango dituzte eta elite kirola ahalbideratuko dute.
- Tokiko eta eskualdeko kirol ekipamenduak dimentsionatzea, biztanlego osoa eta eskola adinean dagoen biztanlegoa kontuan hartuz.
- Udalerri batzuetan toki eremuko ekipamenduetan diren orekak zuzentzea.
- Elite kirolerako eta ikuskizun kirolerako instalazioak hobetzea eta ekipamenduak turismo posiblearekin uztartzea.





### **5.1.2.- PLAN OROKORRA ETA SEKTOREKAKO PLANGINTZA**

#### **Euskadiko Autonomia Erkidegoko Ekonomi Jardueretarako Lurzoruari buruzko Sektorekako Lurraldeko Plana**

Planaren legezko egokitasuna eta bere komenigarritasunaren bidezkoketa Eusko Legebiltzarrak 1990eko maiatzaren 31n onetsitako Lurraldearen Antolamenduari buruzko Legean oinarrituko dira.

Hori dela bide, Aurrerapen faseko Industri Lurzoruari buruzko Sektorekako Lurraldeko Planaren helburua Autonomi Erkidegoan Ekonomi Jardueretarako Lurzoruaren lurralde eta hirigintza plangintzarako ereduak eta irizpideak finkatzea da.

Balorazio eta Diagnostiko fasean Getxo Udalerrirako Industri Lurzoru hutseko 6 hektareako azalera osoa zehazten da. Udalerrian, gainera, defizita dago landunak/langabeak erlazioan; lanpostu gehienak zerbitzuen arlokoak dira.

Proposamenen atalean honakoa adierazten da “Larrabetzu, Getxo, Berango, Sopelana eta Urduliz hazkuntza geldoko udalerriak dira ekonomi jardueretarako lurrei dagokienez”. Horrez gain, udalerrri bakoitzerako industri lurzoruaren gehieneko dimentsionaltasuna adierazten da eta Getxoren kasuan 8 hektareatan finkatu izan da.

Gaur egun, Ekonomi Jardueretarako Sektorekako Lurraldeko Plana berrikusten eta idazten ari da.

#### **Euskal Herriko Tren Sarearen Sektorekako Lurraldeko Plana eta Metroaren Eraiketa Plana**

Behin behinean onetsitako Euskal Herriko Tren Sarearen Sektorekako Lurraldeko Planean Erkidegoko tren sarearen nondik-norakoak ezarri dira. Getxoko udalerria uki dezaketen planetan Metroaren zehaztapenak eta planak ezarri dira. Beraz, azken horren jarduketak hartuko ditugu oinarri.

Geltokien taxuketa eta ezarpenari dagokionez IMEBISAk emandako informazioarekin ondoriozta daitekeena honakoa da: oinarri-oinarrian



trenbidearen taxuketa ez da aldatzen, eskualdeko komunikazio sistema orokorra izaten jarraitzen du udalerria zeharkatuz eta Bilbo-Getxo-UrIBE-Kosta artean garraio publikoko bide nagusia izango litzateke.

Gaur egungo taxuketarekin alderatuz Areeta eta Algortako geltokiak lurrazpian kokatzea da aldaketarik handiena eta, horrela, trenak hiri gune hauetan eragiten izan duen bereizketa espazialaren arazo historikoa konponduta geratzen da.

Areetako geltokiaren parean azpibidea proiektatzen da eta hori errazago egin ahal izango da Cristobal Valdesen Gobelaren mozketa egiten denean zeren eta, une honetan, uharka nagusiak bat egiten duelako ibaiaren jatorrizko ibaihoarekin eta, gaur egungo Erromo-Areeta azpiko uharka gainezkabide bat izango da, trenbidearekin bat egiten duen bidegurutzearan sifoi batekin konpon daitekeen gainezkabidea.

Horren ildotik, Ibaigane kalearen (lehenago Gobelak atzemandakoa) taxuketa nasa zentralerako geltokiarekin desbideratuko da. Geltokiko plaza zabaldu eta gaur egungo mailara ordenatuko da auzoko erdigune bihurtuz. Bihurgune tarte baten ondoren Negubiderantz abiatuko da eta tartearen amaiera Lertegi kalearen parean izango du.

Areeta eta Neguri bitartean lurgaineko geltoki berria kokatzeko aukera ere badago, Antiguu Golf ondoan, Gobelako geltokia hain zuzen ere. Nasa zentralerako geltokia. Neguriko geltokia lehengo moduan geratzen da.

Algortan, ordea, oinezkoentzako plaza bat eraikiko da geltokiaren gainaldean eta, era berean, Villamonte eta Sarrikobaso gunek Algortako hirugunearekin komunikatuko dira Bolue kaleko igarobidearen eta katean trenbidea lurrazpian jartzearen ondorioz. Getxoko Andra Mariko geltokia Bidezabaleko igarobidearen azpiko bide zuzenera lekualdatuko da alboko nasekin; nasa horietara sartzeko gainbidearen gaineko “mezaninna” bat erabiltzen da.

## **Errepideetako Plana**

2/1989 Legearen babespean, Euskal Herriko Errepideetako Plan Orokorra Lurralde Historikoen eta Eusko jaurlaritzak azpiegitura mota horiei buruzko lehentasunak ezartzeko erabili izan dute.

Edozein modutan ere, Aurrerapenak finkatuko ditu 1993-1998 eta 1999-2004 aldietarako Planaren Xede Sarearen alternatiba eta jarduketa proposamenak.

Euskadiko errepide Sarea Euskal Herriko Errepide Sare Funtzionalean eta Errepide Planaren Xede Sarean sailkatzen da. Horiek horrela, Sare Funtzionala banatu egiten da:

- Lehenespenezko Sarea. Nazioartekoa, automiartekoa edota autonomi barnekoa.
- Oinarrizko Sarea. Interes gutxiagoko nazionalak, eskualdekoak eta probintzia batzuetakoak.
- Eskualdeko Sarea. Barneko eskualdeak.

Planaren Xede Sarea errepide multzoa izango da, trafikoaren garrantzia kontuan izanik, Lurralde Historikoak eta mugako Autonomi Erkidegoko errepideekin elkarlotzeko.

Hortaz, Sare barnean izango dira Lehenespenezko Interes Sarea eta Sare Funtzionalera bildutako Oinarrizko Sarearen zati bat ere. Besteak beste, honako ibilbideak izango dira: Euskal Herritik Goilautadara sarbidea, Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko konexioa eta Euskadi eta Ebro Haranaren artekoa, Kantauri aldea eta Durango-Bergara-Beasain ardatza lotzen dituenak.

Getxoko udalerriri dagokionez, udalerriko errepide bat ere ez da bildu Planaren Xedera.

Bizkaiko Foru Aldundiak errepideei buruz garatzen dituen jarduketak Bizkaiko Errepide Planaren barnean daude, eta Getxoko udalerriri dagozkionak honakoak dira batez ere:

- Uribe-Kosta korridorea. Autobia hau Artazako biribilguan abiatzen da eta Berangora arte heltzen da. Korridore honetako lehen eta bigarren faseko lanak burututa daude dagoeneko (Artaza-Mimenaga tartea) eta lanak 1993 urtearen barnean hastea aurreikusirik dago. Taxuketa honetako tartea Getxo eta Leioa arteko mugan zehar doa.



- Leioa. Obra honetatik Mimenaga eta Kurtzes arteko tartea bakarrik dago burutzeke, bertatik Azkorri hondartzan sartzea ahalbidetzeko.
- Artaza-Lamiako korridorea. Burutzapen mailan formulatutako proposamen honen arabera, ibaiaren bi aldean artean zeharreko ardatz berri bat itxuratu nahi da, era horretara, Avanzada eta Ugaldebieta lotuz, eta Errontegiko tartean ibilgailu gutxiago ibiltzeko. Bestalde, Avanzadatik Areetara sarbide berria eraiki nahi da Lamiakoko Ibarretik.
- Unibertsitateko korridorea. Azkartzaren atzetik Tejerara arte eta Uribe-Kosta Korridorearen loturara arte gailurrak nabarmen eraginez luzatzen da.

### **Ur Partzuergoaren planak**

Udal saneamenduaren sarea 85 kilometrotako bidez osaturik dago, galeria eta hodian artean. Udalerriko biztanleak dituzten ia gune guztiak hartzen ditu, izan ere, Larrañazubiko nekazal guneak eta Andra Mariko zati batek (biztanlegoaren %2) ez dute saneamendu zerbitzurik.

Sarea baterakoia da ia-ia osotasunean (%86 gutxi gorabehera) eta hodi beretik bideratzen dira euri urak eta ur beltzak. Zati txiki batek bakarrik, oraintsu eraikitako urbanizazio eta orubek, saneamendu berezia dute euri urentzako hodi batekin eta ur beltzetarako beste hodi batekin, Bilbo-Bizkaia Ur Partzuergoaren Saneamendu Plan Nagusiaren gomendioak betez. Saneamenduko galeriak, orokorrean, oso zaharrak dira: sekzio errektangularrekoak eta ganga erarekin, adreiluz eta harriz eraikiak.

Nolanahi ere, Areetakoak, malda txikiarekin, antza denez kontserbazio egoera onean daude oraingoz ez dutelako arazorik eragin. Hala ere, mailakaketak gertatzen dira eta egoera hori areagotu egiten da biribila ez den sekzioko bide batek garbiketa arazoak eragiten dituelako.

Algortako galeriak, malda handiagoeekin, zenbait arazo ematen dituzte. Hodiai dagokienez, material, diametro, adin eta kontserbazio egoera ezberdinetakoak aurki daitezke. Saneamendu zaharretan arruntena diametro txikiko bide edo hodiak aurkitzea izaten da, normalean 15 edo 20 zentimetrotakoak. Materiala gresa izaten da eta tarte batzuk



hormigoizkoak. Kontserbazio edo artapen egoera erregularra edota txarra da eta ia tarte guztietan gaur egungo isuriketa emariek sekzio handiagoko hodiak beharko lituzkete.

Egin-eginean ere, saneamendu berrienak (azken 15 urtekoak) egoera hobegoan dauide jakina. Gutxieneko diametroa 30 zentimetrotakoa da eta zentrifugatutako hormigoizkoak izaten dira; hala eta guztiz ere, oraintsu beste material batzuk ere erabiltzen hasi dira: PVC eta fibrozementoa, batez ere, hormigoia euri urentzako bideetarako bakarrik utziz.

Arestian aipatu saneamendu berriago horiek azken aldian eraiki izan duten sustapen partikularrek egindakoak dira eta, kasu askotan gertatzen da diametro zehatzeko hodi batzuk sekzio txikiagoko saneamendu tarte zaharragoetara jotzen dutela eta, horrela, estuguneak eta korapiloak sortzen dira.

Orokorrean, saneamenduko bideak galtzadaren erditik doaz eta kalearen malda bera izaten dute; gauzak horrela, malda txikiko bideak izango dira, besteak beste, Erromo eta Areetan eta malda handikoak, gehiegizkoak sarritan, Algorta aldean.

Saneamenduko bideak normalean 1 eta 1,50 metroko sakoneran aurkitzen dira.

Horrez gain, azpimarratu beharreko beste inguruabar bat ere badago, hau da, udalerriko ia eraikuntza guztietan mindazuloak daude; horien zeregina isuriketen aireko soliduak gordetzea izango litzateke sarearen oztopo handiagoak ebitatuz; hala ere, hondakin uren hartziduraren hasiera eragingo dute eta, ondorioz sifoi eraz besteko isurbideak dauden tokietan usain txarrak agertuko dira.

Azken buruan, Bilbo Handiko Eskualdearen Saneamendu Plan Integralari buruz aipamen bat egin behar da Getxoko udal saneamendu sarearekin harremanetan jarritz.

Getxon Ur Partzuergoaren saneamendu sareak Gobelaren Interzeptorea edo Tartekagailua hartzen du. Bere helburu nagusia ibai horren bi aldeetan, Getxon, Leioan eta Berangon, gaur egungo isuriketak biltzea da isuriketa horiek guztiak Lamiakoko Estazio Araztegira eramateko; hortik,



lehen fase batean Sestaoko Galindoko Estazio Araztegiara ponpatuko dira.

Obra buruturik dago Lamiakoko Estazio Araztegiaren eta Berangoren arteko tartean.

Bi isuraldeetan ura izanik, Getxoko topografia bereziaren ondorioz, hondakin ur guztiak Gobelako Interzeptorera edo Tartekagailura hustutzeko beharrezkoa izango da bi putzu eta bi ponpaketa estazio sortzea eta horietatik bidaliko lirateke hondakin urak Tartekagailura.

Gauzak horrela, lehen ponpaketa putzua Areetako Moilan kokatuko da eta urak tartekagailurantz bidaliko ditu Cristobal Valdesen Mozketan uzten ari diren bideen bitartez.

Bestalde, Algortatik datozen uren bilketarako, Portu Zaharreruntz doan isuraldea, Ponpaketa Estazioa proiektatzen da Igerilekuen aurrekaldean eta, era horretara, Kakalekuko Galerian zehar aipatu urak Tartekagailurantz bidaliko dira.

Azkenik, Alicante izeneko aldean, Abasota kalean ponpaketa putzu bat eraikiko da eta horrek Arrigunagako Hondartzan kokatutako bigarren ponpaketa estaziora bidaliko ditu urak. Hemendik Altube kalearen azpitik Bidezabaleraino ponpatuko dira eta, azkenik, Tartekagailura bidaliko dira.

Malakateko gaur egungo galeria sare nagusira loturik geratuko da denbora batez sareen multzoa martxan jarri arte. Etorkizunean, beraz, deusezturik geratuko da.

Horiez landa, aurkeztutako planoetan jasotzen ez bada ere Tartekagailuan zehar ekaitz aldietarako zenbait isurbide kokatzen dira Gobelara, nolabait, sarearen erregulazioa bideratzeko.

Partzuergoak Plan Orokorra idazteko emandako dokumentazioarekin batera Partzuergoaren gomendioak ere badaude Saneamenduko Sistema Orokorraren taxuketaren ukipenak zehazteko eta interes handia sortarazi dutenez hona hemen:

Areeta eta Tomas Olabbarri moiletan zehar isuriketa puntuak jasotzen dituzten bigarren mailako kolektoreekin osatzen dira eta urak



tartekagailura eramango dituzte. Era berean, Portu Zaharrea eta Arrigunagan konzentratutako isuriketak Gobela ibaiaren tartekagailura ponpatu beharko dira.

Gorago aipatu guztiarekin, isuralde horietako saneamendu posibleen zatirik handiena desbideratu eta berbideratzea gomendatzen da, horrela, Gobela ibaiaren kolektoretara berez jo ahal izateko.

Bestalde, sare bereizgarri baten ezarpenerako gaur egungo sarea bikoiztu egin beharko litzateke, zeren eta esanda dagoenez, sarearen %86 baterakoia delako; horrez gain, ez da ahaztu behar oraintsukoak ez diren eraikuntza gehienetan teilatuetako euri uren bilketa ur beltzen bilketarekin bat egiten da finken barnealdean eta, horiek horrela, ur horiek banatzea ezinezkoa izango da finkatutako aldeetan.

Ur Hornikuntza eta Saneamenduari dagokionez, Ur Partzuergoak emandako Testua; horra bildurik daude instalazioek lurretan izan ditzaketan ukipen mota guztiak Hiri Antolaketari buruzko Plan Nagusiari begira aurreikuspenetan kontuan hartzeko, izan ere, horrela finkatuko dira egokia izanez gero.

#### 1. Saneamendu Sistema Nagusiaren taxuketaren ukipenak Getxoko Udalerraren Hiri Antolaketari buruzko Plan Nagusiari.

Bilbo eta bere Eskualdearen Hiri Antolaketari buruzko Plan Nagusiaren Aldarazpenean Saneamenduko Sistema Nagusia sartzeko xedatutakoarekin bat etorritz, aipatu agiriaren aginduak Getxoko Udalerraren Hiri Antolaketari buruzko Plan Nagusira aldatzeko, indarreko Plangintzak emandako lurzoruaren gaur egungo kalifikazioan honako aldaketak bilduko dira:

- a) Indarreko Plangintzak ematen zien kalifikazioa galtzen duten lurrak Saneamendu Sarea-Saneamenduko Sistema Nagusiren lurzoru gisa kalifikatuko dira.
- b) Indarreko Plangintzaren kalifikazioari eusten dioten lurrak; dena den, lur horien baimendutako erabileretan Saneamendu Sarerako zortasun bat sortuko da.
- c) Indarreko Plangintzaren kalifikazioari eusten dioten lurrak; dena



den, lur horien baimendutako erabileretan muga bat ezarriko da Tuneleko Saneamendu Sarerako.

- d) Plangintzak emandako kalifikazioei eusten dioten lurrak; lur horietan, hala ere, ez da inolako mugarik ezarriko baimendutako erabileretarako, ezta Saneamendu Sarearen taxuketak ukitzen dituenean ere, zeren eta ezarpen hori bateragarria delako aipatu erabilerekin.

## 2. Hirigintza Arautegia-Hirigintza Eraentza Berria.

Indarreko hirigintza antolaketak eta berau garatuko duten plangintzako figurek kontuan izan beharko dute Saneamenduko Sistema Nagusiarekin birkalifikatutako lurrak ondoren ezartzen diren erabilera eta zehaztapenetara ukiturik geratuko direla beren hirigintza eraentzari dagokionez:

- a) Saneamenduko Sistema Nagusi gisa kalifikatutako aldeak-Saneamendu sarea.

Epigrafe honetara bildutako lurrak ondoko kartografian “Saneamenduko Sistema Nagusia-Saneamendu Sarea” izeneko sinbologiarekin jasotakoak dira. Baimendutako erabilerak Saneamenduko Sistema Nagusiari dagozkionak dira. Zerbitzu publiko eta oinarrizko azpiegiturei dagozkien erabilerak baimenduko dira: komunikazioak, energia eta antzekoen hornikuntza; era berean, erabilerak ukipena eragiten duen saneamendu instalazioaren eraiketa, ustiaketa eta mantenimenduarekin bateragarriak direnean baimenduko dira.

Horrela zehaztutako gunetan ukipen azalera, kasuan-kasuko saneamendu instalazioak oinplanoan atzematen duen areak eratutakoa izango da BOST (5) METRO zabalerako lurrerrenka perimetral batez.

- b) Getxoko Hiri Antolaketako Plan Nagusiak emandako kalifikazioari eusten dioten aldeak baina zortasun batekin Saneamendu Sarerako.

Epigrafe honetara bildutako lurrak ondoko kartografian “Gaur egungo erabilera bain Mugarekin Saneamendu Sarerako” izeneko





sinbologiarekin jasotakoak dira.

Bestalde, baimendutako erabilerak, saneamendu sareari dagokionaz gain, kasu bakoitzean emandako kalifikazioari begira Hiri Antolaketari buruzko Plan Nagusian ezarritakoak izango dira eta, horrez gain, honako mugak ezarriko dira:

- Berrogeita hamar zentimetrotik gorako sakoneran goldaketa edo antzeko lanak egitea edota zuhaitzak edo zurtoin altuko zuhaixkak landatzea debekaturik dago.
- Edozein motatako edifikazio edo eraikuntza egiteko debekua, nahiz eta behin-behineko izaeraduna edo aldi baterako izan; horrez gain, saneamenduko bide eta elementu eraskinen funtzionamendu ona, jagotza, artapena eta beharrezkoak diren konponketak kaltetu edo nahas dezakeen egintza oro ere debekaturik izango dira.
- Instalazioen mantenimendu, ustiaketa eta jagotzarako beharrezkoak diren ekipo eta langileriaren sarbide askea, beti ere, sor daitezkeen kalteen ordainketarekin.

Saneamendu Sareak erabilera eta jabari publikoko lurrak zeharkatzen dituenetan eta inolako mugarik ezartzen ez denean, aipatu ondasunen titularrak Uren Partzuergoari komunikatu beharko dio ondasunetan gerta daitezkeen edozein aldaketa eta, azken batean, gorago aipatu Sarearen instalazioetan eragina izan dezakeen edozein aldaketa.

Barne eraldaketako eragiketa esparruetan daugon hiri lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian, gaur egungo erabilera gisa aldeztatutako lurrerrenken mugak (Saneamendu Sarerako mugaketarekin) eraikuntzako muga gisa ezartzen dira Plan Partzialetarako edo aldeztaketa horrek eragindako sektoreek garatzen dituzten Plan Bereziatarako; hala eta guztiz ere, arestian aipatu lurrerrenka horrek aprobetxamendu ondoreetarako eta baimendutako gehieneko atzemate ondoreetarako konputatzen du.

Arestian aipatu bezala zehaztutako aldeei dagokien ukipen bandak



HAMAR (10) METROko zabalera izango du eta erdiguneturik izango da Interzeptorearen luzetarako ardatzari dagokionez.

- c) Getxoko Hiri Antolaketako Plan Nagusiak emandako kalifikazioari eusten dioten aldeak baina mugaketarekin Tunel erako Saneamendu Sarerako.

Titulu honetara bildutako lurra ondoko kartografian “Gaur egungo erabilera baina mugaketarekin Tunel erako Saneamendu Sarerako” izeneko sinbologiarekin aldeztatutakoak dira, tunel eran, beheko sekzioaren gainetik bost metrotara haitz- estaldurarekin garatzen den Saneamenduko Sistema Nagusiaren atalari loturikoak hain zuzen ere.

Aipatu aldeetan baimendutako erabilerak, tunel erako saneamendu sareari dagokionaz gain, Hiri Antolaketako Plan Nagusiak ematen duen kalifikaziorako ezarritako zehaztapenak izango dira; erabilera horietan honako mugak izango dira:

“Eraiketa posible izango da baldin eta erabiltzen den zimentazioa azalekoa denean (zapata edo losa). Zimentazio sakonaren erabilera berariaz galarazita dago (haitz sustratoaren sabaira zamak bidaltzea) lurzoruaren erabilera hori mugatzen duen banda horren barnean”.

Horrela zehaztutako aldeei dagokien ukipen bandak HAMAR (10) METROko zabalera izango du eta erdiguneturik izango da tunel erako interzeptorearen luzetarako ardatzari dagokionez.

- d) Getxoko Hiri Antolamenduko Planean erabilerak mugaturik ez dituzten aldeak.

Atal honetara bildutako lurra ondoko kartografian “Gaur egungo erabilera baina inolako mugaketarik gabe Saneamenduko Sare Nagusirako” izeneko sinbologiarekin jasotakoak dira; alde horietan, Plangintzan baimendutako erabilerak bateragarriak dira Saneamendu sarearen ezarpenarekin.

Aipatu alde horietako erabilera baimenduak Plan Nagusiaren zehaztapenek ezarritakoak izango dira, kasuan-kasuan emandako kalifikazioetarako; era berean, ez da inolako berariazko mugarik



ezarriko Saneamenduko Sare Nagusiaren ezarpenagatik.

Hala ere, lurzoruaren kalifikazioak eraikuntza baimentzen duenean eta eraikuntza hori lehendik dagoen edo etorkizunean izango den tartekagailu baten gainean egin beharko balitz, kasuan-kasuko plangintzan horrela aurreikusirik dagoelako (tunel eran eraikia), edifikazioen eraikuntzan erabili beharreko bide teknikoak (zimentazioak, sotoen hondeaketa eta abar) tunelaren egitura ez kaltetzeko egokiak izango direla bermatu beharko litzateke.

Saneamenduko Sistema Nagusiaren Garapena.

Proiektu Eraikitzaileei dagozkien zehaztapenak.

Saneamendu Sarearen behin betiko ezarpena kasu bakoitzaren inguruabar partikularrek baldintzaturik dago eta, ondorioz Saneamendu Sarearen ezaugarri bereziengatik Hiri Antolaketako Plan Nagusiaren garapena (puntu honi dagokionez eta planera bildutako ukipenen zehaztapen zehatzari begira) Proiektu eraikitzaileen bitartez sendotuko da kolektore eta tartekagailuei dagokienez; hala eta guztiz ere, obra burutu ondoren Planaren aldaketak ezartzea bidezkoa izango da, kontuan izanik, proposatutako birkalifikazioak hurbilketa hutsa besterik ez delako.

Edozein modutan ere, Proiektu eraikitzaileek zehaztuko dituzte haien kalifikazioa galdu gabe aldi baterako obren betearazpenari loturik geratuko diren lurzoruak.

Etorkizuneko Jarduketa eremuak:

- Gaitasun gutxiko tartekak: lerro amaieren eta 300 milimetro baino txikiagoko diametroa duten tarteen berrikuspena, gutxika-gutxikako berrikuntzarekin.
- Obra osagarriak: sifoi erako isurbideak, kutxetak eta abar instalatzea mentsa erakusten duten aldeetan.
- Udal sarea Partzuergoaren interzeptore eta bigarren mailako kolektoreetara egokitzea.

- Sistema banatzailearen ezarpenarekin jarraitzea.

### **Uholdeen aurreneurriei buruzko Plan Integrala**

Babes Obren Alternatibak.

Babes Obrak bi maila ezberdinetan planteatzen dira:

- Jarduketa osoak uharka edo ubideetan emariak gutxitzeko. Gobela ibaiaren arroan azterketa zehatza egin ondoren honako ondorio atera daiteke: laminazio urtegi esanguratsurik ezin izango da ezarri salbu eta urak gaina hartuko balu garrantzia handiko hiriguneetan.
- Jarduketak ubideetan. Proposatutako jarduketa nagusia karrakaketa izango litzateke Antigu Golfeko zubitik Bidezabaleko etorkizuneko lotunearen sekziora arte, ubide horizontalaren sakonera berriarekin Avanzadako zubiaren sekziora arte eta %0.052ko maldarekin sekzio honetatik karrakaketaren bukaerara arte aipatu Bidezabaleko sekzioan.

Tarte horizontalean ubidearen zabalera 17,0 metrokoa da eta sekzio errektangularrekoa hirigunean Avanzadarekin gurutzatu arte. Puntu horretatik Fadurako azken alderaino ubide trapezoidaleko sekzio bat proposatzen da 25,8 metro zabalera azalera eta 1:1 ezpondekin. Sekzio horretatik jarduketaren amaierara arte ubidea trapezoidala izango da, 1:1 ezpondekin eta 20,6 metroko zabalera azalera.

Aipatu jarduketarekin Gobelaren maila nabarmen jeistea lortzen da 100 urteko itzulkin aldirako (3,0 metro gutxi gorabehera). Aitagarría, jarduketa integral honen modelizazioan kontuan hartu izan dela zubiak ez direla oztopo karrakaketa burutu ondoren.

Dena den, Berangora bitartean alde batzuetan Gobela ibaiak gainezka egiten du 100 urteko itzulkin aldirako. Puntu horietan uholdeen ondorioak ez dira larriak salbu eta ezker aldearen kasuan Fadurako Kirol Hiria ondoan; toki horretan ibai aldea metro bat sakontzea gomendatzen da.

### **Jarduketa proposamena.**

Oinarrizko plangintzari dagokionez honakoa proposatzen da ebaluatutako



itzulkin tasak, lortutako urteko onurak eta faktore tekniko eta ingurugiro arlokoak aztertu ondoren: jarduketa bideratzea Gobelaren ibaiaren arroan.

- Areeta-Berango bideraketa.

Antolaketa proposamena.

Aipatu arroaren eskema funtzionalak elkarloturiko bi sistema sortarazten ditu eta uda garaiko hirugarren bat ere aurreikusi beharko litzateke, garai horretako ohitura eta mugimenduak erlatiboki homogeneizatzen dituen hirugarren sistema hain zuzen ere.

Ekialdea neurri handi batean Sopelana-Urduliz-Laukiz ardatzaren inguruan artikulatzen da Urdulizeko landan garrantzi handiko industria eta zerbitzuak daudelako. Gainontzekoa Bilbo eta bere ingurunearen eraginpean dago, batez ere, egoitza gune gisara; horrez gain, Areeta-Leioan, apurka-apurka, zerbitzuen hazkundera nabarmena da. Bestalde, gaur egungo Getxo hiri lurzoruz osaturik dago iparreko muturra eta barrendegi txiki bat edo beste kenduta. Gainera, poligono urbanizakor batzuen aurreikuspenaren (batzuk arrisku gunean) ondorioz hiri lurzoruaren hazkundera izango da.

Leioak eta Getxok erdibanaturik dute Erromoko arrisku handiko aldea eta Leioak Gobelaren ubide artifiziala jasaten du Lamiako aldean.

Horiek horrela, azpiegitura garrantzitsuena eta arroaren zenbait udalerriri ukitzen diena Plentziako Korridorearen jarraipena izango litzateke eta korridorearen taxuketa eta ezaugarriak ikusirik, Gobelaren toki-dinamika eta biozenosia errespetatzen dituela esan daiteke.

Burutzapen prozesuan den jarduketa gisa honakoa ere aipagarria da: Getxoko Valdes Kalearen parean Gobelaren soberako emariak Abraruntz arintzeko obrak.

Edozelan ere, hirigintza plangintzaren egokitzapena urak gainezka edin dezakeen aldeetako erabilerak murriztuz edo obra zuzentzaileak xehikapenezko azterketetan oinarriturik planteatuz, era horretara, maila eta uholde arriskuak murriztuko dira eta programatutako erabilerak normaltasunez bideratuko dira.



Bestalde, etorbideen ondoreak mugatzeko hemen aurreikusitako jarduketak hirigintza plangintzara biltzea proposatzen da plangintzaren beraren berrikuspenen bitartez.

Atal honetara bildutako Gobelaren biderakuntza proposamenak Bolueko hezegunearen sistema hauskorren desagerketa eragingo luke eta ekosistema baliotsu horren galera konponezina izango litzateke. Hortaz, biderakuntza partzialen alternatiba eta hezegunearen gaur egungo mailen mantenimendua berraztertu egin beharko lirateke.

## **5.2.- LURRALDEAREN EGITURA OROKORRA**

### **ARAU SUBSIDIARIOEN EREDUA.**

Proposatutako alternatiba eta helburuen aplikazioaren azterketa abiapuntu legez harturik garatuko da Plan Nagusia Arau Subsidiarioen Eredua aldatuz, eskakizun berrietara egokitzeko.

Horren harira, proposatutako Ereduaen abiapuntua arauetara bildutakoa da elkarlotutako hiru ataletan oinarriturik:

- Eremu edo Hiri-udalerrri Sistema. Getxo, Eskualdearen osotasunean hiri unitate zehatz gisa bai bere prozesu demografikoagatik (garapen sistema) eta bai hiri egituragatik ere (Areeta-Algorra-Andra Mari).
- Eremu edo Hiri-eskualde Sistema. Tradizioz biztanleen “jasotzaile” papera izendatu izan da, bigarren egoitza gisa lehenengo eta behin eta asentamendu iraunkor gisa geroago.
- Plangintzako Tresnaren egokitasuna.

## **EREDUAREN DESKRIBAPENA**

### **Bideak**

Ereduan proposatutako antolaketak udal Lurralde osoa hartu nahi du eta eredia bidezko duten baldintzetara egokitzeko gai izan nahi du. Lurraldeko Plan Nagusia luzetarako hiri ardatzen gainean egituratu zen



(iparretik hegoaldera):

- Zugazarte-Alangoren luzagunea-Euskalherria-Telletxe-Avenida del Angel Etorbidea.
- Errekagane- Negubide-Txopos-Ollaretxe-Maidagan-Ormazako Estrata.
- Lamiako-Artaza-Uribe-Kosta Korridorea.

Horrez gain, bideak eskualdearekin lotuz zeharreko bost ardatz ezartzen dira:

- Eduardo Coste.
- Avanzada.
- Euskalherria-Txopos-Korridorea.
- Salsidu-Bolue-Euskalherria.
- Andra Mari-Bidezabal.

Planak berrikuntza legez aurkezten duen bide sare egituragile berria Andra Marin Lurzoru Urbanizakorraren zabalkuntzarekin batera dator.

- Maidaganeko luzagunea-ardatza Zientoetxeko estrataren parez pareko bide baten gainean.
- Plentziako errepidetik abiatu, Martiturriko estrata ondotik jarraitu Dilizeko estratarekin lotura eginaz Gorrondatxeraino doan lerrozko parkearen ondoko zeharreko ardatza.
- Ingurukale perimetrala, Maidagan bukaeratik abiatuz sektore berri osoa Golf Clubetik inguratzen duena geroago Sopelanako udal barrutian, Azkorri aldean, Uribe-Kosta Korridorearen loturetako batekin lotzeko.

## **Metroa**

Metroa udalerraren elementu egituragile gisa agertzen da komunikazio sistema honen erdiratasuna azpimarratuz; metroak udalerrri osoa iparraldetik hegoaldera zeharkatzen du biztanle kopuru handiagoko



egoitzazko hiriguneen erditik.

Metroaren ibilbideak udalerrian eragin duen bereizketa ezabatzeko, Areeta eta Algortako geltokiak lurrazpian jartzea jarduketa positiboa izan da Getxorako. Aipatu bi jarduketa horiei esker alde batetik, bi auzoen arteko oztopo fisikoa gainditzea lortu da eta, bestetik, lehen mailako hirigune diren eta dentsitate handikoak diren auzo horiek behar dituzten guneak berreskuratzea lortu da.

Gaur egungo geltokiak Metroaren ibilbiderako beharrezkoak diren baldintzetara egokitzeko udalerrriaren trenbide egituran aldaketa garrantzitsuak egin behar izan dira. Sare hau osatzen duten geltokiak honakoak dira Bilbo-Plentzia norabidean:

Areetako geltokia. Geltokia hau apur bat lekualdaturik geratzen da gaur egungo egoerari dagokionez, Ibaigane kaleazpian lurrazpian geratuko delarik, gaur egungo instalazioek atzematen duten aldea plaza publiko erabilerarako zuzenduz.

Gobelako geltokia (Plentziako Hiria). Geltoki hau berria da eta Plentziako Hiria eta Zugazarte aldeei zerbitzua emateko eraiki da. Jarduketa berriari esker oinezkoentzako eta ibilgailuentzako komunikazio igarobide berria sortu da arestian aipatu bi aldeen artean trenbidearen azpitik.

Neguriko geltokia. Gaur egungo egoerari dagokionez ez du aldaketa esanguratsurik.

Aiboako geltokia. Instalazioak eta eraikuntzak baino ez dira aldatuko gaur egungo geltokia Metroaren beharrianetara egokitzeko.

Algortako geltokia. Algortako lurrazpiko geltokiarekin mugako auzoetatik asko hobetu da ailegaeraztasuna Bolue kaletik geltokira sarbide berria eraiki ondoren. Gaur egungo azaleko instalazioen desgerpenarekin Algortako ikurra den gunean hiri plaza bat lortu da.

Bidezabaleko geltokia. Oinplano berriko geltokia, gaur egungo Andra Mariko geltokia ordezkutzen duena; geltoki berriari esker zerbitzu hau eskaini zaie biztanle kopuru handiko aldeei eta Anbulatorioa bezalako





instalazioei.

Getxoko Andra Mariko geltokia. Bidezabaleko geltokiaren jarduketa prozesuan zehar errautsitako Getxoko Andra Mariko geltoki zaharraren inguruan azken urteotan polemika bizia sortu da eta Udaleko Osoko Bilkurak geltokiaren birjarpena erabaki behar izan du alor honetan eskuduna den erakundearen aldetik.

Martiturriko geltokia. Plan Nagusiak Martiturri aldean geltoki berria egitea proposatzen du sektore horretako enpresa alorraren garapenean funtsezko elementua izan dadin eta, era berean, zerbitzua eskainiko zaie lurzoru urbanizakorrean proposatzen diren egoitzazko gune berriei. Gauzak horrela, proposamen hori Planera bildutako bi alternatiba ezberdinetan oinarritzen da; horietako bat trenbidearen gaur egungo ibilbidean oinarritzen da eta bigarrenaren arabera, berriz, ibilbide berria ezarriko litzateke Bidezabal eta Berangoko udal barrutitik, Andra Mari aldean lurrazpiko beste geltoki bat tartekatuz. Azken alternatiba horrek gaur egungo ageriko zenbait arazo konponduko luke, besteak beste, kilometro bat baino apur bat gehiagoko tartean hiru igarobidez bakarrik osatutako trenbide lerroaren oztopo fisikoa, paisaiari eragiten zaion kaltea eta biztanle kopuru txikiagoko guneetatik lerroaren urruntasuna; hala ere, oztopo nagusia betearazpenaren kostu handia izango litzateke bestearekin alderatuz.

## **Egoitza**

Begibistako errealitate bat bereganatuz, Ereduaren arabera egoitzazko erabilera da nagusia eta honen menpekoak izango dira gainontzeko erabilerak.

Lurzoruari buruzko Legeak eta Araudiak ezartzen dutenaren arabera, hiru lurzoru mota daude:

- Hiri lurzoria. Halakotzat Arau Subsidiarioetan zehaztutako Plangintzako Areak barnebiltzen ditu; horrez gain, lurzoru mota honetara bildurik daude Hiri Lurzoruan irla txiki legez geratzen joan diren Lurzoru Urbanizakor Areak ere jasotzen dira (Etxezuri, Konporte, Iturribarri, Zubilleta, Venancios, Aixerrota eta Ormaza).



Era berean, aipatu lurzoru mota horretara bildurik daude gaur egun Lurzoru Urbanizaezinean dauden Andra Mariko gune txiki batzuk ere zeren eta lortu duten sendoketa mailaren ondorioz halakotzat hartu behar direlako.

Planaren asmoa hiriguneak sendotzea da planaren beraren mugaketari dagokionez; dena den, area batzuetan hektareako etxebizitza kopurua murriztu nahi du, era horretara, hiri lurzoru gune batzuetako dentsitate altua gutxitzeko.

Hiri lurzoruaren kolmatazioaren zioz, gutxi gorabehera, 3.200 etxebizitza berri eraiki beharko lirateke.

Ildo beretik, dentsitateen araberrako banaketari dagokionez honakoa ezar daiteke: hirigunea, orokorrean, dentsitate ertainekoa dela (50-250 biztanle hektareako), salbu eta dentsitate handiagoko bi gune Areeta-Erromo eta Algorta 2 (250-650 biztanle hektareako).

- Lurzoru urbanizakorra. Getxoren etorkizuneko hedapenerako erreserban dagoen lurzorua. Arau Subsidiarioetako Eredua mugatu egiten zuen lurzoru mota hori gune trinkoetarako eta Andra Mariren kasuan loturarik gabeko garapenak eragin ditu. Nekazal gunearen zati handi bat urbanizatzeko proposamenak jarduketan unitatea derrigortzen du. Onartutako Plan Partzialak unitate horretara biltzen dira.

Etxebizitzetarako zuzendutako lurzoru urbanizakorreko lurzoruan bi dentsitate mota bereiz daitezke. Alde batetik, dentsitate ertaineko lurzoru gisa ezartzen da burutzapenean diren plano partzialek atzemandakoa eta Zientzoetxe kalearen parez pareko egoitzazko ardatz bat eta, bestetik, dentsitate gutxiko lurzorutzat hartzen da gainerako lurzoru urbanizakorra.

Eraikikortasuna mugatuz hektareako etxebizitza kopuruari buruzko dentsitate txikia lortu nahi da eta, era horretara, hiri egiturari dagokionez antolaketarik gabeko hazkundea ebitatu eta interes handiko area bat babestuko da.

- Lurzoru urbanizaezina. Lurzoru mota honekin, batez ere, Leioa eta



Berangoruntz, Bolueren mihinaren gainean konzentratutako gune batzuen nekazal izaera gorde nahi da.

Sailkapen horren barnera bildurik daude Galeako trokak eta horien mugakide den lurzoru lurrerrenka ere, eraikuntza jarduketetatik babesteko eta interes ekologiko handiko puntu legez artatzeko.

### **Ekipamendu handiak**

Udalerriari estandar altuak ematen dizkioten ekipamendu publiko eta pribatuen sistema bereiz daiteke, bai beren kalitateagatik eta baita banaketa eta kopuruagatik ere.

Udalerrian ekipamenduen egitura era banatuan zabaldurik dago lurraldearen hedadura osoan eta, batez ere, hirigune handietako ingurualdean kokatzen dira; ekipamenduetako batzuk hedadura handikoak dira tartean diren jarduera motak kontuan izanik.

Honela sailka daitezke:

#### **PUBLIKOAK**

- Kirol Portu berria.
- P.Aristegui, Zubilleta, Larrañazubi ikastetxeak eta Getxo 1, II, III eta IV ikastetxeak.
- Kirol Gunea Erromon, Gobelasko ondoan.
- Kirol Gunea Gobelasko.
- Fadura eta Portu Zaharreko igerilekuak.
- Udal kanposantua.

#### **PRIBATUAK**

- Abrako Itsas Kluba.
- Jolaseta.
- Azkorri eta Nuestra Señora de Europa bezalako ikastetxeak.

- Zaldien Hezilekua.
- Golf Kluba.

### **Eraikuntzarik gabeko gunek**

Getxok eraikuntzarik gabeko guneen banaketa heterogeneoa duen udalerria da: alde batetik, Areta-Erromo, Algorta eta neurri txikiagoan Neguri eta Fadura bezalako gune sendotuak daude eta, bestetik, Andra Mari dago, lurzoru erreserba handia; hala ere, gune horretan izan den hazkunde desordenatuaren ondorioz sendotutako gune txikiak agertu dira eta, horiek horrela, interferentziak sor daitezke proposatutako Plangintzan.

Plangintzaren asmoa kostaldea bultzatzea da elementu nagusi bezala Gobela ibaiaren bi aldeekin batera, oinezkoentzako sare luzean udalerria iparraldetik hegoaldera geldiarazpenik gabe zeharkatzeko aukera emanez.

Getxoko udalerriak hamar kilometro baino gehiagoko kostaldea du eta egoera hori aprobetxatzeko aukera ona dauka, kosta fronte horretan berde gunek ezarri eta balio natural, zabalaldi eta jolas-guneal ahalbideratzeko.

Barnealdean, ordea, Bolueko hezegunetik abiatuz, Uribe-Kosta Korridorearen parez pare doan pasabide berde bat ibai parkera heltzen da eta puntu horretatik lurrerrenka bat abiatzen da troketara arte, horrela, Getxoko Andra Mariko muino nagusietan kokatutako bi parkeak elkarlotuz. Xedapen horrek era berdintsuan erreserbatu eta antolatzen ditu etorkizuneko egoitzazko hazkundeak lurzoru urbanizakorrean.

Eraikuntzarik gabeko guneen sistema hau osatzen duten elementu esanguratsuenak honakoak dira:

- Churruca moila eta Aretako moilaren pasealekua.
- Zugazarte Etorbidearen lurrerrenka berdea eta bere luzagunea Arriluzeko lorategietan.
- Aretako Geltokiko plaza eta Erromoko Gobelaurre parkea.
- Maria Cristina parkea eta bere luzagunea Usategin eta Zugazarteko



San Joseren parkea.

- San Ignacio parkea, Komporteko lurrerrenka berdea eta Neguriko Arenales plaza.
- Aixerrota abiatu eta Sopelanako udal barrutiaren mugara heltzen den kosta frontea.
- Andra Mariko parke berria, Martiturri-Diliz ardatzaren bidean oinarriturik egoitzazko area berrian zehar zabaltzen den parkea; bi irteera izango ditu bata Kortiñen eta Gorrondatxe hondartzan bestea.
- Ibai Parkea. Fadura, Venancios eta Zubilleta Industrialek mugatutako aldean Gobelaren ibaibidearen ondoko lurren egokitzapen eskasean oinarrituz Ibai Parke batsortze proposatzen da; parke horrek 13 hektareako zabalera izango du eta ibaian urbildu txikiak sortuko dira.
- Bolueko hezegunea. Naturaren artapenaren ikuspegitik ekosistema oso interesgarri baten defentsarako erreserba.
- Ibai Parkean abiatuz, Bolueko hezegunearekin lotuko duen eta Korridorearen ondoan dagoen lurrerrenka berdea.

### **Hirugarren mailako erabilera**

Getxon hirugarren mailako erabileretarako eta merkataritzarako gune bat sortu nahi da trenbidearen eta Getxo-Plentzia errepidearen inguruan, funtsezko bi elementu udalerraren egituran.

Proposamen horrekin gero eta handiagoa den demandari aurre egin nahi zaio lurzoru eskaintzarekin; haren ezaugarriak ikusirik, garraio azpiegitura onak izan beharko ditu (errepideak zein trenbideak).

Aipatu gune horrek ailegaerraztasun ezin hobea izango luke, Uribe-Kosta Korridoretik alde batetik, Plentziarako errepidetik bestetik eta, azkenik, Hirugarren Mailako Parke horren erdikaldean kokatuko litzatekeen etorkizuneko Metro geltokitik (udalerriko sare metropolitarrako mendebaldean kokatutako geltokia izango litzateke aipatu ekipamendua Getxoko Andra Mariko biztanlegoari hurbilduz).

Erabilera horretara bilduko lirateke, eskaintzen duten produktu mota eta



instalazioen euren neurriagatik neurri handiko lokalak behar dituztenak, erakusleiho azalera handiekin, besteak beste, konzesionarioak.

### **Industri Erabilera**

Plangintza Berangoko udalerriarekin (Getxorekin muga egiten duen tokian industri lurzorua garatu nahi du Mimenagako sektorean) bateratzeko asmoz, proposatzen diren bideen arteko azalera bat industri lurzoru gisa kalifikatu nahi da, era horretara, jarraipena emateko Berangon, Gobela ibaiaren ondoan proposatutako kaleei.

Aipatu arearen azalera osoa 1,3 hektareakoa da gutxi gora behera.

Industri gune berri hori Arau Subsidiarioetan erabilera bereko lurzorutzat hartutakora bilduko litzateke Zubilleta Industrial Lurzoru Urbanizagaia bezala; horrez gain, Plan Nagusiaren barnekoa izango litzateke haren hirigintza garapena hasita dagoelako.



### **5.3.- LURZORUAREN SAILKAPENA**

Proposatutako egitura orokorrari dagokion lurzoruaren sailkapena ezartzeko honako irizpideak erabili dira:

Indarreko Arau Subsidiarioetan hiri lurzoru gisa sailkatutako Areak sailkapen horri eusten diote baina, hala ere, area edo gune berriak azaltzen dira lehendik zeuden baztuen banaketa legez.

Indarreko Arau Subsidiarioetan gaur egungo gune urbanizatueta integraturik dauden Lurzoru Urbanizagai sektoreak beren sailkapena Hiri Lurzorura aldatzea proposatzen da zeren eta horrek nabarmen errazten duelako haien kudeaketa; gainera udalari egin beharreko lagapenen kasuan ez da galerarik izango indarreko legeria berriaren arabera (1998ko apirilaren 13ko Lurzoruaren Eraentzari buruzko Legeari eta Balorazioei buruzko Testu Bateginaren arabera, Aprobetxamenduaren %10 laga behar da ekipamenduez eta urbanizatzeko betebeharrak gain.

Lurzoru Urbanizagai izatetik Hiri Lurzoru izatera igaroko liratekeenak honakoak dira:

- Etxezuri.
- Komporte.
- Iturribarri.
- Zubilleta.
- Venancios.
- Ormaza.

Horiez gain, Getxo Andra Mariko gunearen barnean nolabaiteko sendoketa maila lortu duten egoitzazko gune batzuk, erabilera erlijiosoko Karmeliten komentua eta kirol erabilerako Galeako Klub Hipikoa ere kontuan hartu behar dira, kasuan-kasuko, planoetan agertzen den mugaketarekin.

Arau Subsidiarioetan Lurzoru Urbanizagai gisa sailkatutako gainontzeko lurzoruak bere sailkapenari eusten dio baina Plan Nagusiaren kasuan



Lurzoru Urbanizakorra izango da aurrerantzean. Multzo horren barnean hiru gune bereiztu behar dira zeren eta gaur egungo garapen mailagatik Arau Subsidiarioetan zehaztutako mugaketa berdinak izango dituztelako. Hiru guneak Goñi-Barri, Kortiñe eta Maidagan dira. Egoitzazko gune horiez gain, orain kudeaketa prozesuan dagoen Zubilletas Industrial eta Aixerrota ere kontuan izan beharko dira.

Plan Nagusian ezarritakoaren arabera, batez ere, Getxoko Andra Mariko sektorean urbanizatuko diren gune berriak (indarreko Arau Subsidiarioetan aurreikusten ez direnak) Lurzoru Urbanizakor gisa sailkatuko dira.

Azkenik, Lurzoru Urbanizaezinak Uribe-Kosta Korridorearen ekialdean kokatutakoak izango dira salbu eta Berango ondoko Bilbo-Plentzia errepidearen ondoko gunea; gune hori eta itsasora ematen duten Galeako zenbait lur ere babes berezikoak dira; Galeako urbanizazioa sailkapen horretatik kanpo geratzen da jadanik hiri lurzoru delako.





Plangintzako guneak eta beren sailkapena honakoa da:

<b>GUNEA</b>	<b>PLANGINTZAKO GUNEA</b>	<b>SAILKAPENA</b>
AREETA- ERROMO	1.- Areeta-Erdialdea	Hirilurra
	2.- Areeta-Zugazarte	Hirilurra
	3.- Santa Ana-Kanpoaldea	Hirilurra
	4.- Santa Ana-Barnealdea	Hirilurra
	5.- Zugazarte	Hirilurra
	6.- Bake Eder	Hirilurra
	7.- Santa Eugenia	Hirilurra
	8.- Erromo	Hirilurra
	9.- Villa de Plencia	Hirilurra
	10.- Etxezuri	Hirilurra
ALGORTA- NEGURI	11.- Neguri	Hirilurra
	12.- Atxekolandeta	Hirilurra
	13.- Jolaseta	Hirilurra
	14.- Gobeloki	Hirilurra
	15.- Aiboa	Hirilurra
	16.- Komporte	Hirilurra
	17.- Martikoena	Hirilurra
	18.- Basagoiti	Hirilurra
ALGORTA I	19.- Portu Zaharra	Hirilurra
	20.- Algorta	Hirilurra
	21.- Alangos	Hirilurra
	26.- Usategi	Hirilurra
	27.- San Nikolas	Hirilurra
	28.- Andikoetxe	Hirilurra
	29.- Arrigunaga	Hirilurra
	30.- Sarri	Hirilurra

<b>GUNEA</b>	<b>PLANGINTZAKO GUNEA</b>	<b>SAILKAPENA</b>
ALGORTA 2	22.- Villamonte	Hirilurra
	31.- Sarrikobaso	Hirilurra
	23.- Iturribarri I	Hirilurra
	24.- Iturribarri II	Hirilurra
	25.- Cosmos	Hirilurra
GETXOKO ANDRA MARI I	33.- Fadura I	Hirilurra
	34.- Fadura II	Hirilurra
	35.- Fadura III	Hirilurra
	32.- Aldapa	Hirilurra
	36.- Zubilleta	Hirilurra
	37.- Venancio	Hirilurra
GETXOKO ANDRA MARI II	Aixerrota	Urbanizakorra, burutzen
	38.- Jauregi I	Hirilurra
	39.- Jauregi II	Hirilurra
	40.- 3-1 Poligonoa	Hirilurra
	41.- 3-2 Poligonoa	Hirilurra
GETXOKO ANDRA MARI III	42.- Ormaza	Hirilurra
	43.- Andra Mari-Hirilurra	Hirilurra
	44.- Komentua	Hirilurra
	45.- Azkorri	Hirilurra
	46.- Hipika	Hirilurra
	47.- Galea	Hirilurra
	48.- Mimenaga	Hirilurra
	Kortiñe	Urbanizakorra, burutzen
	Goñi-Barri	Urbanizakorra, burutzen
	Maidagan	Urbanizakorra, burutzen
Zubilleta Industrial	Urbanizakorra, burutzen	



<b>GUNEA</b>	<b>PLANGINTZAKO GUNEA</b>	<b>SAILKAPENA</b>
	Martiturri	Urbanizakorra
	Arteaga	Urbanizakorra
	Azkorri	Urbanizakorra
	Saratxaga	Urbanizakorra
	Moreaga	Urbanizakorra
	Mimenaga	Urbanizakorra



#### **5.4.- BIDE SAREA ETA APARKALEKUAK**

Getxo udalerrirako bide proposamen oso baten formulaziorako abiapuntu gisa LEBER Plangintza eta Ingeniaritza S.A. Enpresak egindako “Trafiko eta Aparkalekuei buruzko Azterketa Getxoko Udalerrian” erabili izan da.

Azterketa horretan gaur egungo Getxoko garraioaren egoerari buruzko diagnostiko zehatza egiten da eta bide sareari eta aparkalekuei dagokienez honako ondorioak ateratzen ditu:

- Bilborekin menpekotasun funtzional handia du eta, era berean bide sare metropolitarrak ez dauka gaitasunik etorkizuneko mugikortasunaren igoera irensteko, aldi berean, ibilgailuen parkearen hazkundera ere aurreikusirik baitago.
- Udaleko bide sareak arteria gisa jokatzeko duten bideak ditu baina, hala eta guztiz ere, ez dute horretarako beharrezkoak diren ezaugarriak (errei kopurua, mugimenduaren lehentasuna ailegaerraztasunarekin alderatuz eta abar); horiek horrela, ez da harritzekoa gaur egun errepide horiek duten asetasun maila.
- Gaur egungo trafikoa jendetza-ordu nabarmenetan dabil eta, mailarik handiena goizean izaten da.
- Areetak ditu arteria bakarrak (Zugazarte eta Eduardo Coste) baina, hala ere, Artazako biribilguko kotxe pilaketak ere jasaten ditu eta Erromatik desiragarria ez den trafikoa igarotzen da.
- Algortak ez du bide sare koherenterik egoitza, enplegu eta zerbitzuen aldetik duen garrantziarekin. Gainera, Avenida de los Chopos Etorbideak ez du balio handirik Algortarantz trafikoa desbideratzeko; Algortako Etorbidearen protagonismoa nabaria da baita bide horretan izaten diren pilaketengatik ere.
- Bideetan izaten diren istripuak kontuan izanik, zenbait hiri bidetan trafikoaren “ralentizazioa” gomendatzen da (Gobelaurre, Sarrikobaso, Eduardo Coste, Arriluceko Moila eta abar). Beste kasu batzuetan, ordea, trenbide geltokien inguruan esaterako, oinezko eta ibilgailuen jarioak fisikoki bereiztearen komenigarritasuna planteatzen da.



- Uribe-Kosta korridorearen garrantzia oso garrantzitsua da gaur egungo sarbideetako pilaketak murrizteko eta Avenida de los Chopos Etorbidea beste erabilera batzuetarako berreskuratzeko. Bestalde, Korridorea Algortan sartzen denez, gaitasun baliokideko maila bat diseinatu behar da ezinbestean graduzko zama apurketa ahalbidera dezan eta egoitzazko guneetan igarobide-intentsitate handiko sarrerak ekidin ditzan.
- Korridorearen ekarpen handiena honakoa da: hiri ingurunearen babes neurriak hartzea ahalbideratzen du Algorta eta Areetako gune ezberdinetan den estankotasuna bermatuko duen barneko bide sarearen berrantolaketaren bitartez.
- Udal arautegiaren izaera aitzindariak Bilbo Metropolitarraren beste gune batzuetan izandakoak baino egoera larriagoak eragin ditu eta ibilgailuen parkearen hazkunde izugarriak aparkaleku eza sortaraz dezake egoiliarrentzako.
- Egoliarrentzako aparkaleku mailari dagokionez, gaur egungo zuzkidura zabalagoa da Areetan (Erromo bezalako toki zehatzetan salbu) Algortan baino zeren eta Algortan, jadanik, aparkaleku mentsak direlako.
- Aparkalekuen gaur egungo erabilera beste udalerrri batzuetako egoiliarren aldetik plaza baliakorren %30 eta %45 artekoa da. Horrez gain, barneko bidaien protagonismo handia ere kontuan hartu behar da (%15etik %20ra) eta, ondorioz eskaintzaren dohaineko izaera mugatu beharra dago, legez kanpoko aparkalekura edota egoitzazko tokietako bideetan aparkatzera jotzen duen demandaren aurrean.

Diagnostiko hori abiapuntu legez harturik, LEBER Enpresak zenbait estrategia proposatu ditu Getxon garraio sistemaren hobekuntza orokorra lortzeko. Bide eta aparkalekuen esparruan Plangintza Nagusian gailentasuna izango duten jarduketa zehatzak honakoak izango dira:

- “Zelula estankuak” sortzea igarotzen den trafikoaren aurrean, besteak beste, Areea Erdian eta Santa Anan. Horien guztien arteko lotura nagusia Zugazarte etorbidean eta Eduardo Costen izango litzateke. Zelula horiek sortzeko honako aldaketak egin beharko dira: Santa Ana



eta Kale Nagusiaren arteko lotura zuzenaren apurketa, Santa Ana ermitaren ingurua oinezkoentzako bihurtu, Kale Nagusia norabide bakarreko birmoldatu, oinezkoentzako guneak zabalduz, Las Mercedes kalearekin pareko bat sortuz eta Erromoko igarobidearen asmoa kentzeko neurriak hartuz.

- “Zelula estankuak” sortzea igarotzen den trafikoaren aurrean, besteak beste, Avenida de los Chopos Etorbidean, Ollaretxen eta Bidezabaleko Zubian. Zelula horiek sortzeko honako aldaketak egin beharko dira: Andres Cortina eta Telletxe, Zabala eta Torrene kaleen artean kokatutako guneak oinezkoentzako bihurtu, kale horien inguruko trafikoa “lasaitzea”, Neguriraino Alango kalearen luzagunea zabaltzea eta aipatu guneetatik trafikoaren igarobidearen asmoa kentzeko neurriak hartzea.
- Lurpeko apartakeluak jartzea Algorta eta Areetako egoiliarrentzat.



#### 5.4.1. BIDE SAREA

Plan Nagusiaren sistema orokorreko bide sareak Trafiko eta aparkalekuei buruzko Azterketaren ondorioak bultzatzen ditu. Sare horretan hiru bide mota bereiz daitezke: a) udalaren gaindiko lerruneko ardatzak, gaitasun handikoak eta diseinuko abiadura handikoak, b) udalerriaren barne loturako eta trafikoa gainerako hiri sarera banatzeko hiri arteriak eta c) hiri arteria eta udalaren gaindiko ardatzen arteko lotura bideak.

Getxori zuzenago eragiten dioten udalaren gaindiko lerruneko bi bideak Avanzadako Errepidea eta Uribe-Kosta Korridorea dira. Getxoren barne-bide sarearekin lotura puntuak Artazan, Boluen eta Iberberangon kokatzen dira. Artaza eta Iberberangorako bi mailatan aurreikusirik daude lotuneak; horietako bat autobidearen enborrerako eta beste bat banaketa biribilgu baterako. Bolueko lotuneak aurreikusitako mugimendu bakoitzerako adar zehatzetan oinarritutako geometria dauka.

Ibai ondoko errepideari dagokionez, etorkizuneko zeregina udalaren gaindiko hiri arteria izatea izango da, beheko mailan Getxo-Leioa eta Erandio lotuko dituen arteria hain zuzen ere. Bilbo Metropolitarraren Lurraldeko Plan Partzialak errepide hori Ezkerraldetik eta Zorrozaurretik Bilboraino doan Ardatz Metropolitarrarekin konektatzen du. Plan Nagusian Zugazarte eta Eduardo Costeri emandako tratamendua koherentea da aipatu plangintzekin.

Edozein modutan ere, Getxoko hiri arterien sarea luzetarako bi ardatzetan oinarrituko da. Lehenengoa, Avenida de los Chopos Etorbidea, Ollaretxe eta Plentziako errepideak osatzen dute eta, bigarrena, Eduardo Coste, Zugazarte, Alango, Euskalherria, Telletxe eta Avenida del Angel Etorbideak.

Los Chopos-Ollaretxe ardatzak gaur egun Uribe-Kostarako trafikoa jasaten du eta Algorta eta Avanzada arteko emarien kolektore nagusi gisa balio du. Uribe-Kosta Korridoreak bi funtzioak beteko ditu, ardatz horren izaera aldaketa ahalbideratuz, era horretara, hiri arteria gisako funtzioa betetzeko; izan ere, gaur egunekoak baino trafiko maila txikiagoekin oinezkoentzako guneen hobekuntza, Algortaruntz/Algortatik iragazkortasunaren hazkundera eta bidegorri baten eraikuntza posible izango dira.



Bigarren ardatza zehazturik dago, jadanik, Eduardo Coste- Zugazarte tartean. Neguriko geltokiraino Alango kalearen luzagunea ardatz honetara bilduko da eta, horrela, Algorta erdikaldea oinezkoentzako gune bihurtuko da. Era horretara, Algortako Etorbidea sarbide eta banaketa kale gisa geratuko da San Ignacio inguruan, izan ere, betekizun hori gaur egun duena baino egokiagoa izango da haren diseinuagatik. Ardatza Euskalherria eta Telletxe kaleetan zehar luzatuko da Bidezabal kaleko bidegurutzera arte. Tarte horretan, Telletxe kalea desbideratu egingo da gaur egungo bere ibilbidearekin alderatuz Algortako geltokia Villamonte aldetik inguratzeko; horrela gainera, oinezkoentzako gune zabala sortuko da Geltokiaren inguruan. Avenida del Angel Etorbideak osatuko du ardatz hau Maidagan kaleraino.

Luzetarako bi ardatz horien zeharreko loturak aukera geometrikoengatik egokienak diren kaleak aprobetxatuz egingo dira, besteak beste, Avanzada, Salsidu, Sarrikobaso, Bidezabal eta Maidagan.

Horiez landa, Getxoko Andra Mari aldean taxuketa berriko bide sare berria planteatzen da bi ardatz ortogonalekin, hau da, Parkeko Bidea, Uribe-Kosta Korridorearekin lotura egiten duen puntutik Galeako Kosta bateria zaharraren instalazioetara eta Maidagan Kalearen Luzagunea Azkorriraino Zientoetxeren pareko bide batetik; horrez gain, kostaldearen parez-pare doan hegaleko bide bat ere izango da eta bere luzagunea Uribe-Kosta Korridorearen Sopelanako lotunearekin bat egingo luke.

Azken buruan, bide sistema orokorrak Uribe-Kosta Korridorearen eta arterien barne sarearen arteko luturekin osatuko dira. Aipatu lotura horiek, batez ere, Avanzadaren errepidetik egingo dira, Triangeluaren eta Artazako biribilguaren artean Euskalherriaren luzagunean zehar, Alango eta Bolueko lotunearen artean eta, azkenik, Maidagan, Bidezabal eta Ollaretxeko trafikoa jasotzen duen Plentziako gaur egungo errepidetik Iberberangoko lotuneraino. Andra Mari aldeak sarbidea izango du errepidean bertan kokatutako zerbitzu estazioen parean Bilbo-Plentzia errepide zaharra eta Galea-Azkorri aldean proposatutako hegaleko bidea konektatzen dituen Bide-Parkearen bitartez.





#### **5.4.2.- APARKALEKUAK**

Plangintza Nagusiak egoiliarrentzako lurrazpiko hiru aparkaleku eraikitzea aurreikusten du Bizkaiko Zubiaren Enparantzan, Las Mercedesen, Santa eugenia Plazan eta Sarrikobason. Las Mercedesetako aparkalekua Pinar eta Manuel Smith kaleen arteko lorategiaren azpian kokatuko da.

Bestalde, Algorta erdikaldea oinezkoentzako bihurtzearen ondorioz, galtzadan 80 aparkaleku plaza inguru ezabatu dira; hala ere, Algortako geltokiaren ingurune osoaren birmoldaketaren barnean 100 plazako aparkaleku azalera aurreikusirik dago.



### **5.5.- TRENBIDE SAREA**

Getxoko Plan Nagusiak Bilboko Metroaren Lehen Linearako aurreikusitako Programa jasotzen du. Geltokiei dagokienean azken aldian egindako jarduketak honakoak dira:

- Areetan lurrazpiko geltoki berria, gaur egungoarekin alderatuz, apur bat lekualdaturik eta Ibaigane kalean kokatuko da.
- Geltoki berria Antiguu Golfen.
- Neguriko geltokiaren egokitzapena Metroaren eskakizunetara.
- Aiboako geltokiaren birmoldaketa.
- Algortako geltoki berria lurrazpian.
- Geltoki berria Bidezabalen.

Aurreko puntuetan egindako jarduketak komentatu dira, hala ere, Planaren proposamen artean oraindik garatu ez diren beste batzuk ere badaude eta hauek ondoren deskribatzen dira.

Aurreko puntuetan aipatu bezala, Getxoko hirigintza hazkundera Andra Mari alderuntz handia izan da eta garraio azpiegitura nagusien artean gaur egungo trenbidearen linea egongo litzateke. Udal Barrutian zehar metroaren ibilbidea egoitzazko guneetara heltzen da eta baita lurzoru urbanizakor berrira ere; izan eren Planaren arabera, Martiturrin geltoki berria eraikiko da Andra Mariko garapen berriei eta hirugarren mailako parkeari zerbitzua emateko. Aipatu geltokiaren ezarpena teknikoki biderakorra da trenbidearen gaur egungo ibilbidean inolako aldaketarik ezarri gabe; dena den, gaur egungo egoerari buruzko azterketa zehatzago batek erakutsi duenez, lehengo ibilbidearen taxuketa alternatiboa egingarria izango litzateke Bidezabaleko geltokiaren inguruetatik linearen tarte bat lurrazpian jarriz Berangoko udalerriaren inguruetara arte. Geltoki berria ibilbide berriaren arabera eraikiz gero, garestiagoa izango litzateke lehenengo proposamenarekin alderatuz baina ingurunearen hirigintza garapena nabarmen hobetuko litzateke eta, horrez gain, erabiltzaile berrien ailegaerraztasuna ere hobetuko litzateke zeren eta proposamenaren arabera, geltoki berria Getxoko Andra Mariko



elizaren inguruan, polikiroldegiaren atzealdean lurrazpian kokatuko litzatekeelako.

Metroaren Lehen Linearekin tren pasabide guztiak ezabatu egingo dira bai oinezkoentzako pasabideak zein ibilgailuentzakoak. Getxo barnean Ibaiondo eta Sarrikobasoko trenbideak ezabatuko dira Areeta eta Algortako geltokian lurrazpian daudelako. Gaur egun trafikoarentza itxita dagoen pasabidea ere ezabatu egingo da eta horren ordez Euskalherriaren luzaguneko goikaldeko pasabidea ezarriko da. Alangosen oinezkoentzako goikaldeko pasabide bat aurreikusirik dago. Martiturrin Bide-parke berria trenbidearen gainetik igarotzen da eta estratako gaur egungo trenbidea ezabatu egingo da.

Edozein modutan ere, punturik gatazkatsuen Maidagan kaleko trenbidea da. Trenbide horren ezbaketa lehenespenezko helburua da bai Getxoko Udalerriarentzat eta baita Metroarentzat ere. Hirigintza ikuspegitik konponbiderik onena trenbidea lurrazpian jartzea da kalea bere gaur egungo kotan mantenduz. Konponbide hori teknikoki bideragarria da Andra Mariko geltokia Bidezabalera eramanez, obra hori egingo ez balitz, gorago aipatu bezala.

Udalaren osoko bilkuraren erabakiz, metroaren arduradunek Getxoko Andra Mariko geltokia berriz jarri beharko lukete gaur egungo kokalekuan baldin eta proposamen berria (trenbide sarea Andra Mari barnealdetik zabaltzea) garatuko ez balitz eta gaur egungo Berangoraino doan ibilbidea mantenduko balitz.

Ildo horretatik, 1999ko apirilean Udalak Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailaren idazkia jaso zuen, Euskal Herriko Trenaren Arloko Lurralde Planean ageri ziren trenbideei buruzkoa; Sailaren irizpideak honako hauek izan ziren:

- a) “Euskal Herriko Trenaren Arloko Lurralde Planean Metroa lurrazpitik igarotzea ezarriko da, Getxoko H.A.P.O.ean proposatu bezala. Plan Orokorrean horretarako behar diren lurrak erreserbatuko dira.
- b) Beraz, soluzio hori Bizkaiko Garraio Partzuergoak Bilboko Metroan esku hartzeko planetan sartzea bultzatuko dugu.



- c) Beste alde batetik, kontuan izan behar da Bidezabal eta Martiturri bitarteko metrobidea ez dela jaregingo tren-erabileratik, nahiz eta aldi baterako erabilera publikoak ezarri; erabilera horiek erabilera-lagapeneko espedienteen bidez lotuko dira.”



## **5.6.- OINEZKOEN SAREA ETA BIZIKLETA SAREA**

### **5.6.1.- OINEZKOEN SAREA**

Udalaren aginduz LEBER Enpresak “Getxoko Trafikoari eta Aparkalekuei buruzko azterketa” egin du eta, bestek beste, honako ondorioak atera ditu oinezkoentzako ardatzei dagokienean:

Oinezkoentzako guneak sortzea tradizio handikoa da mendebaldeko munduan eta horiek horrela, oinezkoentzako gune arrakastatsuenak lehenagotik denda eta zerbitzuak pilatzen ziren tokietan kokatzen izan dira. Horrez gain, oinezkoentzako guneen planteamendua ezinbestekotzat jotzen da gure herri eta hirietako bizitasun ekonomiko eta soziala babesteko; izan ere, gaur egungo joera ingurualdean kokatzen diren erregio mailako merkatal zentroak eraikitzea da eta horrelakoetara heltzeko kotxea behar-beharrezkoa da.

Oinezkoentzako guneak ugari diren tokietan hiri-kalitatea, hiri-altzarien zainketa ona eta animazioa gauza arrunta izango dira baina horretarako, beharrezkoa izango da zenbait erabilera gordetzea: etxebizitzak, dendak, bulegoak, jatetxeak, kafetegiak, ekipamendu sozialak eta abar. Egunean zehar eta asteko egun guztietan erabilpen maila egokia lortu beharko da, era horretara, hiritarren babesa bermatzeko, Jane Jacobsek “kalearen begiak” izena ematen dion mekanismoaren arabera.

Gauzak horrela, Getxon oinezkoentzako gune bihurtzeko honakoak proposatzen ditugu: Areetan Andres Larrazabal eta Paulino Mendibileko (jadanik eraikia) lehen tartekak, Santa Ana plaza eta plazarako kale lehiakideak, Santa Ana kalearen lehen tartea eta, batez ere, Areetako geltokiko plaza eta plaza horretara ematen duten kaleen zati bat (Ibaiondo, Santa Eugenia eta Errekagane); Algortan, berriz, Telletzeko erdiko tartea eta Torrene eta J.B.Zabala (dagoeneko aldatutakoak).

Arestian aipatu bezala, zolaketarako material bereziak erabiltzea oso garrantzitsua izango da eta, kasu honetan, Basagoti Etorbidearen eguneroko arrakasta azpimarratu behar da eta baita, urrunago geratzen diren arren, Estrasburgoko eta alemaniako Freiburgeko (Alsaziako



mugatik hurbil) oinezkoentzako guneak ere.

Oinezkoentzako gune horien ezarpena erabilera anizatasunarekin batera egin beharko da, besteak beste, oinezkoentzako sarbide erraza bai garraio publikoan zein automobilean eta hurbil egongo diren aparkaleku guneekin. Horrez gain, egoiliarrentzako ibilgailuen sarbidea eta baimendutako ordutegiaren barnean zamalanetako ibilgailuen sarbidea bermatzea ere ezinbestekoa izango da. Era berean, oiezoentzako guneetan mantenimenduko (zaborrak, garbiketa eta abar) eta larrialdietarako (suhiltzaileak, anbulantziak eta abar) ibilgailuentzako sarbide erraza beharko da eta, orokorrean, gunearen mantenimendu erraza ahalbideratuko da.

Hala ere, oinezkoentzako gune horiek hiri-sarearen barnean irla izan ez daitezzen, ghetto modura Wolfgang Zuckermannek erabiltzen duen ikusmoldearen arabera, beharrezkoa izango da oinezkoentzako ardatzekin loturik izatea.

Oinezkoentzako ardatz horiek alternatiba izan nahi dute oinez erraz egin daitezkeen ibilbideetarako norberaren ibilgailua automatikoki erabiltzeko joeraren aurrean (Gogoratu, aparkamenduari buruzko inkestaren arabera, kotxearen erabilpena esanguratsua dela 500-700 metroko ibilbideetan).

Eraginkortasun energetikoari eta ingurugiroari egiten dion mesedeari dagokionean oso egokiak dira oinezkoentzako guneak baina azkenaldian beren garrantziak behera egin du, besteak beste, honako arrazoiengatik:

- distantziak gero eta handiagoak dira (batez ere, ibilgailuen kopuruak ere gora egin duelako)
- kaleak gero eta arriskutsuagoak dira ibilgailuak hara eta hona dabiltzalako
- espaloiak gero eta txikiagoak dira
- oinezkoentzako ibilbideak desbideratu egin dira eta askotan karabilkatsuak dira kotxearen mesedetan
- oinezkoak "babestu" egin dira oztopo eta hezi metalikoekin
- oinez egin daitezkeen ibilbideak gozagarri bihurtzeko ez da behar besteko propagandarik egin (babesa denboraren aurrean eta aberatsa



sentsazio eta esperientzietan)

Udal Agintaritzaren ikusmoldetik, oso gutxi dira eraginkortasun eta errentagarritasun sozialeko inbertsioak gaur egungo oinezkoak babestuz eta oinezkoen hazkundera bultzatuz.

Edozelan ere, guztiok gara oinezko (jatorrian eta xedean, batez ere, kotxea erabiltzen dugunean); dena den, ibilbide osoa oinez egitea da bultzatu nahi dena. Horretarako, ibilbideak oinez egitea bultzatzeko jatorri-xede pareak argitzea izango da giltza.

Lehenespenezko bidatza horiek oinez egitea bultzatzeko honako ekintzak bideratzea nahitaezkoa izango da:

- espaloien egokitzapena edo sorrera
- gurutzaguneen tratamendua eta hobekuntza oinezkoen segurtasuna eta erosotasuna ahalbideratuz
- argiketa eta paisaia hobetzea
- babes elementu bereziak jartzea (jesarlekuak, ustekabeko euri zaparradaz babesteko aterpeak eta abar)
- orokorrean, gorago aipatutako zailtasunen suntsiarazpena.

Aipatu oinezkoentzako ardatzen ibilbideak honako tokietara jo beharko dute: merkatal, zerbitzu eta abarren jarduketa zentroetara, Metro geltokietara, autobus geltokietara, eskola eta ikastetxeetara, enplegu zentroetara, erakunde ofizialetara eta abar, Horrez gain, ibilbidea animazioa, denda eta jatetxeak dauden tokietatik bideratu beharko da, besteak beste, desplazamenduak seguruak eta atseginak izan daitezen. Horiek horrela, Bilbon beste inon baino gehiago dabil jendea oinez eta ez bakarrik ibilgailuentzako zailtasun handiak direlako tartean baizik eta, batez ere, ibilbide ezberdinetan zehar eragingarriak asko direlako, oinez egindako denbora jarduera interesgarri bihurtuz eta, era horretara, oinez egindako bidea desplazamendu hutsa baino zerbait gehiago izango da.

Horren ildotik, Plangintzara bildutako oinezkoentzako ibilbide nagusiak honakoak dira:

- Kostaldeko ingurualdeko ibilbidea: Tomas Olabarri moilan hasi eta Areta eta Arriluzeko moiletan zehar Usategui, Aixerrota eta Galeako



erlaizeruntz doan ibilbidea.

- Xake plazan abiatu eta Gobela ibaiarekin bat eginik, Erromo, Etxezuri, bolueko Hezegunea eta Fadura zeharkatu eta, azkenik, Ibai Parke berrira heltzen den ibilbidea. Puntu horretatik, Hirugarren Mailako Zentrua zeharkatuz, lerrozko parkean zehar igoko da Martiturri- Diliz ardatzarekin bat eginik; bidebanaketa dator gero; bide bat Punta Galeako trokarantz zabaltzen da eta bestea Aizkorriko Hondartzaruntz.

Horrez gain, ekipamendu handiak (Fadura, Kirol Portua, Golf eta abar) eta gune libre handiak (Ibai Parkea, Linea-Parkea, Trokak, Hondartzak eta abar) komunikatzen dituzten ingurualdeko oinezkoentzako bi ardatzen arteko zeharreko loturak ere kontuan hartzen dira.

Era berean, auzoetan oinezkoentzako guneak sortzeko toki izaerako jarduketara kopuru handia bildurik dago Plangintzara, besteak beste, honakoak:

- Kale Nagusiaren oinezkoentzako erabilera handiagoa galtzadaren sekzioa espaloien mesedetan murriztuz; horrela, lotura hobea lortuko da Bizkaiko Zubiaren eta Ajedrez-Geltokiko Plazaren artean; azken hori ere oinezkoentzako bideratuko da, era horretara, auzoaren zentru sozial bihurtuz.
- Santa Ana kalea eta kale horretara jotzen duten kalearteko kaleak oinezkoentzako bihurtzea.
- Algortako geltokia lurrazpian geratu ondoren trenbideak libre uzten duen azalera bi mailatako plaza baten sorrera, Torrene eta Zabala kaleak ere oinezkoentzako bideratuz Basagoiti Etorbidearekin bat eginik.
- Gaur egungo Usateguiko Parkearen zabalkuntza.
- Zenbait kale tarte partzial Erromon.

### **5.6.2.- BIZIKLETA SAREA**

Arau Subsidiarioetan aurreikusitako bizikletentzako sareari dagokionean zati bat baino ez da bete. Hala eta guztiz ere, aipatu sarearen helburuak





indarrean daude.

LEBER Enpresak egindako “Getxoko Udalerriko Trafikoari eta Aparkalekuei buruzko Azterketatik” honako ondorioak atera daitezke:

Txosten horretan aurreikusitako hiri-gunearen banaketa berriaren arabera, zenbait garraio bide bultzatzeko aukera proposatzen da, besteak beste, gure herrian tradizio handia izan duen bizikletaren erabilera. Gaur egun bizikleta kirol modalitate legez erabiltzen da, batez ere. Hala ere, distantzia handirik gabeko hiriguneetan bizikletak zeregin handia du eta ahalezko erabiltzaile multzoen eta Administrazioaren arteko harreman onei esker sare ziklista bat gauzatu da segurtasun maila homogeenarekin.

Europako iparraldeko eta hegoaldeko herrialdeen arteko diferentziak nabarmenak dira esangura horretan, lehenengoetan baldintza klimatologikoak bizikletaren kontrako behin betiko aitzakia izan daitezkeen arren.

Nolanahi ere, gure geografian bizikleta istripuak hamar aldiz gehiago dira kilometroko motordun ibilgailuen istripu kopuruarekin alderatuz eta joera hori gora doa gainera. Horrekin batera, istripuen larritasuna gainontzeko ibilgailuena baino bikoitza da. Horiek horrela, esperientzia handiko eta material egokia duten txirridulari ausartenak baino ez dira ibiltzen gure errepideetan. Era horretara, Areetako Santa Ana Ciclo Clubeko edota Punta Galea Elkarteko edozein kidek anekdota bat gehiago konta dezake gure errepideetan murgiltzeak duen arriskuari buruz eta asteburuetan txirridularientzako lehenespenezko errepideak jartzeak dakarren segurtasun ezari buruz.

Egin-eginean ere, azpimarratu behar da ahalezko erabiltzaileak asko direla: Bizkaiko parkearen arabera 200.000 mila bizikleta daude (gehienak umeentzako bizikletak) eta ibilgailuen parkea ez da askoz handiagoa: 270.000 mila ibilgailu, hain zuzen ere; hori guztia, familiako kide guztiei eragiten dieten mendiko bizikleten oraintsuko arrakasta baino lehen.

Horren arabera, erabilera ludiko eta kirol arlokoak erabilera praktikoekin (erosketak, ikasleen ibilbideak...) uztartzeko aukera



proposatzen da; horretarako, beharrezko azpiegiturak sortzea nahitaezkoa izango da (espazioak erreserbatzea aparkaleku seguruak jartzeko eta abar) gizartean gero eta indar handiagoa hartzen doan joera bideragarria izan dadin.

Gauzak horrela, proposatzen den sareak ibilbide eszenikoaren erabilera ludikoak (Moila, Zugazarte, Ereaga, Punta Galea eta Aizkorri) eta Areeta eta Algortako sarbideetako erabilera praktikoak uztartu nahi ditu.

Horren ildotik, bidegorria (Avenida de los Chopos Etorbideko tratatuetan) eta txirrindularientzako errei edo karrila bereizi dira Salzburgeko kasuan bezala. Areetako Mayor kalean eta beste tarte batuetan ezinezkoa izango da txirrindularientzako bideak, batez ere, honako arrazoiengatik: a) lekurik ez dagoelako eta b) gune "lasaitua" delako eta beraz, bateragarria delako bizikletaren erabilerarekin. Horrez gain, aparkatutako kotxe iladaren ondoko karrilean arriskua sor daiteke txirrindularientzako kotxeko atek ustekabeen zabaltzen direnean.

Moilako ibilbidean zehar bizikleta erabiltzeko aukeraren aurrean oztupoak jar ditzakete pasealekuko erabiltzaileek; beste herrialde batuetan, ordea, hondartza aurreko pasealekuetan ondo uztartzen dira oinezkoentzako eta bizikletentzako erabilerak eta bizikleten karrila oso ondo mugaturik izaten da (esaterako gaur egungo espaloia zintarria izan daiteke mugetako bat). Bizikletentzako karril bat jartzea gauza erraza izango litzateke, gure aburuz, hondartzaraino jeitsi eta Portu Zaharreraino luzatzen den espaloia nabarmen zabalduz gero.

Plan Nagusiak azterketaren aurreikuspen horiek jasotzen ditu eta beren sinpletasunarekin eta bideen ekonomiarekin hobekuntza nabaria da Arau Subsidiarioetako hasierako aurreikuspenekin alderatuz.

## **5.7.- GUNE LIBREEN SAREA**

Hiriguneetako ingurugiroari buruzko kalitatea eta zehatzago esateko "bizitza kalitatea" hobeto zehazten duen faktoreetako bat berdeguneak izango lirateke.



Sistema Orokorreko parke publikoetarako legeak honakoa eskatzen du: biztanleko 5 m<sup>2</sup>/biztanle proportzioa. Bestalde, Toki Sistemako Erabilera Publikoko Gune Libreentarako ez da gutxienezkorik adierazten.

Getxon, Plan Nagusiak alde batetik, lehendik dauden parkeez eraturako gune libreen sistema proposatzen du eta, bestetik, lau ardatzetan artikulaturako berri gisa proiektatzen direnak:

- Churrucako lorategietan eta Areetako moilan hasten den kostaldeko ardatza Zugazarteko eta Arriluzeko lorategietatik, Urkijobasoko parketik, Arrigunagako parketik eta Galeako parketik jarraitzeko.
- Aiboa eta Algortako hirigunearen artean sortu berri den lerrozko parkea kokatzen den trenbidearen ardatza; gainera, trenbidearen ekialdean Aiboako gunearen toki sistemekin eta Iturribariko sektorearekin bikoizturik geratuko da.
- Gobelaren ardatza, Gobela eta Leioaren arteko parkearekin Asua eta Avanzada arteko errepidetik Bolueko urtegiraino.
- Barne ardatza Getxoko Andra Marin, Gobelaren Ibai Parkearekin eta Andra Mariko Lerrozko Parkearekin.

Aipatu Sistema Orokorrek Faturako kirol parkea ere hartzen du eta Getxoko Andra Mariko nekazal gunean zehar joango da hondartzetaraino eta zeharka, ordea, trokaraino, gotorlekuaren pareraino.

Sistema Orokor gisara udalerrian aurreikusitako parke publiko nagusienak honakoa dira:

<b>PARKEAK ETA PASEALEKUAK</b>	<b>HA.</b>
Zugazarteko pasealekua	2,95
Areetako moila	1.08
Churruca pasealekua	1,10
Errekaganeko lorategiak	0,85
Marques de Arriluce pasealekua	1,49
Ereagako lorategia	1,64
Urkijobasoko parkea	3,70



Kostaldeko parkea (P. Zaharra-Arrigunaga)	3,39
Aiboako parkea	2,22
Bolueko parkea	8,40
Ibai parkea	16,08
Andra Mariko barnealdeko parkea	11,40
Andra Mariko sarbide ondoko parkea	4,51
Aixerrotako kostaldeko parkea	21,88
Galeako kostaldeko parkea	8,76
Azkorriko kostaldeko parkea	36,44
<b>GUZTIRA</b>	<b>125,89</b>

Berdeguneen sistema orokorreko metro karratuen eta Getxoko udalerriko biztanleen arteko zatidura eginez gero, emaitza 15, 7 m<sup>2</sup> biztanleko da.

Emaitzak erraztasun handiz gainditzen ditu legezko gutxienekoak (5 m<sup>2</sup>/biztanleko) hirurekin biderkatuz eta, gainera Toki Sistemen edukiaz osaturik geratuko dira. Hona hemen zenbakietan desribapen zehatza baina kontuan izan behar dira lurzoru urbanizakorrean plan partzialetan, kasuan-kasuan, aurreikusiko diren toki sistemak ere:

GIZARTE-HIRIGUNEA	Banaketa Gunea	Azalera (m <sup>2</sup> )
AREETA-ERROMO	1. Areeta-erdikaldea	21.277
	2. Areeta-Zugazarte	0
	3. Santa ana-kanpoaldea	12.383
	4. Santa Ana-barnealdea	9.571
	5. Zugazarte	20.031
	6. Bake-Eder	0
	7. Santa Eugenia	0
	8. Erromo	24.182
	9. Villa de Plencia	16.145



ALGORTA-NEGURI	10. Etxezuri	18.845
	11. Neguri	23.843
	12. Atxekolandeta	12.863
	13. Jolaseta	0
	14. Gobeloki	15.021
	15. Aiboa	17.255
ALGORTA I	16. Konporte	20.288
	17. Martikoena	19.109
	18. Basagoiti	23.540
	19. Portu Zaharra	9.554
	20. Algortako hirigunea	26.070
	25. Usategi	12.450
	26. San Nikolas	16.826
	27. Arrigunaga	20.854
	28. Andikoetxe	
	30. Sarri	9.803
ALGORTA II	22. Villamonte	24.396
	23. Iturribarri I	455
	24. Iturribarri II	29.529
	25. Cosmos	0
	31. Sarrikobaso	12.249

GIZARTE-HIRIGUNEA	Banaketa Gunea	Azalera (m <sup>2</sup> )
ANDRA MARI I	32. Aldapa	12.008
	33. Fadura I	8.861
	34. Fadura II	13.438
	35. Fadura III	848
	36. Zubilleta	12.753
	37. Venancios	6.251
ANDRA MARI II	38. Jauregi I	1.013
	39. Jauregi II	2.823
	40. 3-1 Poligonoa	8.648
	41. 3-2 Poligonoa	9.423
ANDRA MARI III	42. Ormaza	9.395

	43. Andra Mari-Hirigunea	1.558
	47. Galea	2.504
<b>GETXO-GUZTIRA</b>		<b>516.380</b>

Gune Libreen Sistemaren barnean ezin dira ahaztu kirol gune irekiak (Fadura), azken finean berde guneen osagarriak direlako eta praktikan erabilera baliokideak dituztelako (footingerako pistak, futbola zelaiak eta abar); atal honetara bildurik ez dauden arren aurrerago aztertuko dira.



## **5.8.- EKIPAMENDU SAREA**

Hirigintza Informazio prozesuan zehar egindako txostenarekin bat etorritz, ekipamendu ezberdinen lurralde banaketak, batez ere, tokiko zerbitzu esparrukoak, alde batetik, erlatiboki orekatutako egitura erakusten du termino orokorretan eta, bestetik, udal barrutiko egoitzazko guneetan sortzen diren beharriaz ondo doitzen zaien barriadura hirigunean zehar.

Ekipamendu kolektiboek dagokien udaleko hiri politika nabarmen sendotu da zenbatezko ikuspegitik begiratuta. Sarri gertatzen diren desdoikuntzak egitura arloko lurralde desoreken ondorioz (garapen historikoak eraginda) edota arlo demografikoan izandako desadostasunen ondorioz izaten dira.

Getxon, azken urteotan gorago aipatu desdoikuntza horiek ia zuzkidura kolektibo eta gune funtzional guztietan estali izan dira; dena den, garapen prozesu berri batean desdoikuntza horiek zerbitzuen kalitatezko arloetan zentratutako helburuetara eta zerbitzu horien kudeaketaren eraginkortasunera zuzendu beharko dira.

Nolanahi ere, Hirigintza Informazio prozesuan sakon aztertu izan da ekipamendu kolektiboek hiriaren garapenean duten esangura, sozializazio prozesuetan duten zeregina eta pertsonen beharriaz betepenean ekipamendu kolektiboen ondoreak zeintzuk diren.

Bestalde, arestian aipatu bezala, beharriaz ez dira homogeenak gizarteko kide guztientzat eta, gauzak horrela, egitura sozialaren zatiketak, denbora adierazpenak eta “gizarte beharriaz” kontzeptuaren edukiak berak zenbait baldintza ezartzen dituzte luperketa kolektiborako zuzendutako ekipamenduak planifikatzeko orduan.

Horrez gain, gizartearen beharriaz izaera dinamikoa ere aipatu izan da azterketa estatikoa eragozten duen faktore gisa; hortaz, hirigintza plangintzan tradiziozko tresna legez erabilitako estandar finkoen aurrean kautelazko jarrera da gomendagarria.

Ildo beretik, estandar horien alternatiba izango diren bilaketa gizartearen ikuskera heterogeenak zuzenduko luke eta, lehenengo eta behin, honako ideia jasoko luke: gizabanakoek gizarte klaseak egitura



ekonomikoarekin duten erlazio ezberdinaren arabera eratzen dituzte eta, beraz, gizabanakoen heziketa, kultura eta errenta ezberdinak izango dira; era berean, kontsumo kolektiboko beharrizanaka ere ezberdinak izatena gerta daiteke.

Arestian aipatu bilaketaren bigarren euskarria adinaren eta sexuaren artean ezartzen den ezberdinketa izango litzateke; hori guztia, herriaren neurri osoaren arabera, kontsumo kolektiboko ondasunen neurri uniformeak aplikatzen duten ikuskera zurruneekin kontrajarrita legoke eta, ondorioz, aipatu kontraesanen multzoaren beterezpenerako ezindurik daude.

Horiek horrela, marko orokor horretan planteatu izan dira beharrezko buruzko hiru multzo handiak (heziketa, osasuna eta sozializazioa) beharrezko horiek pertsonen eguneroko bizitzan ezartzen duten elkarlotura naturalari dagokion malgutasun ikuspegi batetik. Metodologia arloko ohar horiekin batera beste hiru arlo ere azpimarratu behar ezinbestean:

- Gaur egungo kultura eta garapenak “bizitza kalitateari” ematen dioten garrantzia soziala eta, ez bakarrik gizarte mugimenduen konkista historikoen emaitza gisa baizik eta baita apurka-apurka egoitza kokatzeko orduan pertsonen erabakietan zeresan handia hartzen doan balore gisa ere. Horrez gain, ingurualde “osasuntsua”, ingurugiroaren oreka, zuzkidura kolektibo onak eta abar faktore garrantzitsuak dira aipatu erabakiak hartzerako orduan. Getxoko udalerriak ezaugarri horiek guztiak barnebiltzen ditu, besteak beste, aipatu kultura isladataz; Gune Metropolitarraren barnean zuzkiduren ikuspegi hobea “eskaintzen” duena izango litzateke.
- Aurrekoa onartuz gero, hirigintza informazio prozesuarekin bat etorriz, udalerriak ekipamenduei buruzko egituran zenbait desoreka eta gabezia (esaterako kirol eta kultur ekipamenduetan) dituela onartu behar da.
- Esangura horretan, Plan Nagusiaren helburua eskaintza horri eustea eta hobetzea da tartean diren gabezia eta desorekak estaliz.
- Getxo posizio estrategikoan dago bai ezaugarri demografikoengatik





eta baita ezaugarri historikoengatik ere eta, gauzak horrela, erreferentzia puntuetako bat da Gune Metropolitarraren aisialdi eta astialdi erabileretan. Era horretara, udal espazioak eskualde proiektzio hori “erabiltzaile” eta zerbitzuen trafikoko terminoetan jasaten du, batez ere, asteburuetan eta udaldian. Rol hori areagotzen joango da gainera “Uribe-Kosta Korridorearen” garapenarekin eta, batez ere, Plentziaraino luzatzen den gunearen sendoketarekin.

- Horrek guztiak marko berria eratzen du eta, horren ildotik, desoreka posibleak konpontzeko eta joera horien arabera hiri mota proiektatzeko proposamen zehatzak ezartzea nahitaezkoa izango da.
- Azken buruan, Getxo, barne-barnean, udalerrri ezberdindua da lurralde ikuspegitik. Gune Funtzionalen deskribapenean azpimarratu izan dugunez, egitura ekologiko eta soziala zazpi guneetan adierazi izan da. Hala ere, zazpi gune horiek hirura murriz daitezke, unean-unean hartzen diren ekipamenduen zuzkidurari buruzko irizpideen arabera. Gure aburuz, plangintza egikaritzak artikulazio espazialeko irizpidea hartu beharko luke udalerrriaren osotasunari eta, era berean, Getxo-Leioa arteko mugen inguruabar bereziak kontuan izanik, administrazio mugetatik kanpo unitate morfologiko independentea eratzen duten mugakideko guneei barne koherentzia emateko.

### 5.8.1.- HEZKUNTZA

Oraindik partzialki indarrean dagoen heziketa sistemaren diseinua 1970eko Hezkuntzari buruzko Lege Nagusitik dator eta lau irakaskuntza maila ezartzen ditu: lehen maila Eskolaurrea izango litzateke, bigarrena Oinarrizko Hezkuntza Orokorra (OHO), hirugarrena Lanbide Heziketarena eta Batxilergo Bateratu Balioanitzarena (BBB) eta, azkenik, unibertsitate mailako ikasketak.

Edozein modutan ere, 1990eko Hezkuntza Sistemaren Antolaketa Orokorrari buruzko Lege berriak aipatu diseinuaren aldaketa batzuk tartekatzen ditu; hala ere, haren aplikazio prozesua denbora luzean zehar luzatzen da (zortzi urte inguru 1992-93 ikasturtetik) eta, ondorioz, eragingo dituen aldaketak ezin izango dira ikusi epe laburrean. Eraentza orokorreko irakaskuntzak honela sailkatzen dira:

- Haur hezkuntza.
- Lehen mailako hezkuntza.
- Bigarren mailako hezkuntza (derrigorrezko bigarren hezkuntza, batxilergoa eta gradu ertaineko lanbide heziketa).
- Goi graduako lanbide heziketa.
- Unibertsitate mailako hezkuntza.

Eraentza bereziko irakaskuntzei dagokienez, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legeak (LOGSE) bi mota ezartzen ditu:

- Irakaskuntza artistikoak.
- Hizkuntzen irakaskuntza

Heziketa sistemaren antolaketa berriak gaur egungoarekin zerikusirik ez duen zentruen tipologia ezberdina eragingo du. Aurretiaz Hezkuntza eta Zientzi Ministerioak (MEC) egindako azterketek koordinazioa gomendatzen zuten Haur Heziketa eta Lehen Mailako Heziketa etapen artean. Horregatik, nahiago izaten da gaur egungo Eskolaurre eta OHoko



zentruak Haur eta Lehen Mailako Heziketa (3-12 urte) zentru bihurtzea; horrek gainera ez luke oztopo izan behar OHOkoko zentru batzuk, batez ere, neurri handikoak, Bigarren Mailako zentru bihurtzeko edota Haur Heziketako zentru independenteak izateko.

Era berean, Liburu Zuriak Bigarren Mailako Heziketari dagokionean, heziketa maila hori osorik ematen duten zentruak izatea gomendatzen du, hau da, maila horretako bi etapak zentru berean izatea: derrigorrezko bigarren hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntza ondokoa.

Hala eta guztiz ere, gune jakin bateko egoera partikularrak horrela beharko balu Lehen Mailaren eskolatzerako behar ez den neurri handiko gaur egungo OHOkoko zentruen bat Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zentru bihurtzeko aukera posible izango litzateke eta, era horretara, aipatu zentzura joango lirateke hurbileko beste zentru batzuetako Lehen Mailako ikasleak; horrez gain, hurbileko Bigarren Mailako beste zentru batekin itxuratuko balitz Bigarren Mailako zentru oso legez hartuko litzateke.

Oraingoz, Bigarren Mailako zentru guztiek lanbide erduei buruzko eskaintza nahikoa izango dute baina eredu horiek era eskusiboan ematen dituzten zentruak ere izan daitezke.

Edozein modutan ere, instalazioak beharizan berrietara egokitzeko inbertsio ahalegin garrantzitsua ere ezinbestekoa izango da eta, horren harira, irizpide ekonomikoak neurri handi batean baldintzatuko du eraldaketa horien azken emaitza.

### **Eskolaurrearen ekipamendua**

Eskolaurreko irakaskuntzaren ahalezko demanda 0-6 urte arteko biztanlegoak osatzen du. Demandaren maila hori bi tarte ezberdinetan banatu izan da: lehenengoa eskolaurreko maila izango litzateke (Haur Heziketaren bigarren zikloa heziketa antolaketa berrian) eta 3, 4 eta 5 urteko multzoa hartzen du. Kasu honetan, demanda eraginkorra eta ahalezkoa bat datozela ikusi izan da, hau da, demanda errealak adin tarte horiek osatzen dituzten umeen ehuneko ehunaz eraturik dagoela.

Bigarrena, ordea, 0-3 urte artekoa haurtzaindegi mailarekin berdinen



da eta era agregatuan tratatzen da. Hiru urtetik beherakoez osatutako Eskolaurreko Irakaskuntza tarte horretan 39 gelatako eskaintza osoa zenbatzen da, guztiak sektore pribatukoak; itxura guztien arabera, badirudi nahikoak direla udalerriko demanda eraginkorra edo errealari aurre egiteko.

Lurralde esparruak kontuan izanik, doikuntza nabarmena dago gune bakoitzaren eskaintza eta demandaren artean; hala ere, eskaintzaren espezializazio arina somatzen da Areeta-Erromo eta Andra Mari aldeetan. Haur Heziketako bigarren zikloari dagokionez (3-6 urte arteko umeak), udalerrian irakaskuntza maila hori ematen duten 29 zentru daude; horietatik 22 kudeaketa pribatukoak dira eta 7 OHOkoko Ikastetxe Publikoak dira, Haur Heziketako unitateak dituztenak hain zuzen ere.

Horren ildotik, arestian aipatu adin tarte horietan eskolatze maila ehuneko ehunekoa dela baieztatu daiteke; izan ere, udalerrian matrikulatutako ikasle kopurua demanda teorikoa baino apur bat txikiagoa da baina diferentzia horren arrazoia honakoa da: hasieratik Getxotik kanpoko ikastetxeetan matrikulatzen diren umeak (batez ere, Berango eta Leioako zentru batzuetan) ondoko mailak (DBH eta Batxilergoa) ikastetxez aldatu gabe egiteko asmoz.

Bestalde, dagoen eskaintzaren banaketa espazialari dagokionean, nolabaiteko desoreka somatzen da: Areetan defizit garrantzitsua dago (214 eskola plaza) eta baita Algorta I eta IIan ere (178 plaza); oraingoz defizit hori Erromon eta Getxoko Andra Marín kokatutako soberako plazekin konponduko da.

### **Lehen mailako heziketaren eta DBHren ekipamendua**

Oinarrizko Lehen Mailako Heziketa zikloak eta Derrigorrezko Bigarren Hezikuntzak hamar urteko tarte hartzen dute eta 6-15 urte arteko (biak barne) umeak eskolatzen ditu.

Azken urteotan eskaintza publikoan eskolaturik zeudenak %48,8 ziren eta sektore pribatuan, ordea, %51,2. Bestalde, udalerriko honetako ume batzuk (6-15 urte artekoen %37) udalerritik kanpoko ikastetxeetan matrikulatzen dira, batez ere, Leioako ikastetxeetan (Askartza Claret, Gaztelueta, MM. Irlandesas eta abar) eta Loiukoetan (MM. Mercedarias, Munabe, Ayalde,



PP. Agustinos eta abar).

Hala eta guztiz ere, ezin ondoriozta daiteke Getxon Lehen Mailako eta Bigarren Mailako plazen defizita dagoenik; gertatzen dena da demandaren lehenespenak eskolatze pribatuaren alde jotzen duela (udalerriko demandaren %69,4k udalerrri barneko eta kanpoko ikastetxe pribatuetara jotzen du).

Bestalde, ikuspegi espazialek Andra Mari aldearen nolabaiteko espezializazioa somatzen da maila horretako eskola plazen eskaintzari dagokionez (4 ikastetxetan banatutako 73 gela, hau da, 1671 postutako tokiko superabita).

Horiek horrela, maila horretako hezkuntza zentruak atzemandako lurzoru azalera 90.100 m<sup>2</sup>koa da eta horietatik 50.800 m<sup>2</sup> (guztiaren %56,4) ikastetxe publikoei dagokie eta 39.300 m<sup>2</sup> sektore pribatuko ikastetxeei. Horren arabera, atzemate ratioa 15,4 m<sup>2</sup>koa izango da ikasleko udalerriko batz bestea gisa eta datu horrek erraz gaingitzen du ikastetxe mota hauetarako eskatzen den estandar arauemailea (12 m<sup>2</sup> plazako).

Kudeaketa motari dagokionez, titulartasun publikoko zentruen egoera hobea da kudeaketa pribatuko ikastetxeena baino (17,7 m<sup>2</sup> ikasleko zentru publikoetan eta 13,1 m<sup>2</sup> ikasleko sektore pribatuko ikastetxeetan).

### **Irakaskuntza ertainen ekipamendua**

Indarreko hezkuntza sisteman Irakaskuntza Ertainetara honako mailak biltzen dira: Batxilergoa eta Lehen eta Bigarren Mailako Lanbide Heziketa. Gaur egun ikasketa horiek ziklo ezberdinak dira egiturari, edukiari eta helburuei dagokienez.

Hezkuntza maila honen lurraldekako azterketarako aukeratutako esparrua Gune Funtzionalaren eta udalerrriaren osotasunaren arteko esparru espaziala da; izan ere, irakaskuntza ertainetako ekipamenduek, alde batetik, etxebizitzekiko hurbiltasun txikiagoa eskatzen dute eta, bestetik, udal terminoaren multzoa erreferentzia espazial bakar legez hartzeak ailegaeraztasun korapilatsuko egoerak izkuta ditzake Getxo Udalerriko ezaugarri fisiko eta geografikoengatik.

Horiek horrela, diagnostikorako erreferentzia marko gisa bi gune



ezberdin ezartzea erabaki da: lehen gunea Areeta, Erromo eta Neguriko Gune Funtzionalen agregazioarekin osatutakoa izango litzateke eta, bigarrenera, Algorta I eta Algorta II, Fadura, eta Getxoko Andra Mari bilduko lirateke.

### IRAKASKUNTZA ERTAINETAKO ZENTRU KOPURUA

LURRALDE EREMUA	BBB-UBI eta IEE IKASTETXEAK		LANBIDE HEZKIKETAKO IKASTETXEAK	
	Publikoak	Pribatuak	Publikoak	Pribatuak
LEHEN GUNEA	1	-	-	2
BIGARREN GUNEA	5	2	2	-
<b>GETXO</b>	<b>6</b>	<b>2</b>	<b>2</b>	<b>2</b>

Sektore publikoak BBB-UBI eta IEEko (Irakaskuntza Ertainen Erreforma) ikasleen %88 eskolatzeko dituzte eta ia-ia Lanbide Heziketako %66.

Irakaskuntza ertainetako demanda 15 eta 17 urte beteta dituzten ikasleen multzoak eratzen dute.

Udalerritik kanpo kokatutako zentruetan derrigorrezko etapa egiten duten Getxoko gazte gehienak Getxoko zentruetara itzultzen dira maila ertaineko irakaskuntza egitera. Horren arabera, somatzen den defizit txikia zentru berdinetan jarraitzen duten gazte kopuru txikiak edota ikasketak atzerrian egiten dituztenak eragiten dute.

Edozein modutan ere, desoreka handia dago dagoen eskaintzaren banaketari dagokionez. Areeta-Erromo-Neguri aldeak ia-ia 1900 postuetako defizita dauka; dena den, defizit hori bigarren aldean dagoen soberako 1500 plaza baino gehiagorekin konpentsatzen da.

### 5.8.2.- KIROLA

Gizarte-eginera hauen garapena bermatzeko lurzorua gordetzeko beharrianak euskarri gisa dituen instalazio eta zerbitzuen aurretiazko tipifikazioa eskatzen du, tipifikazioa artifiziala izan arren. Aipatu tipologia zabala eta malgua izango da eta, era berean, irizpide fisiko eta funtzionaletan oinarritutakoa.

Horiek horrela, honako tipologia erabaki izan da Getxoko udalerrian dagoen kirol ekipamenduen eskaintza sailkatzeko:

A mota: Oinarrizko instalazioa.

- Azalera txikia (5000 m<sup>2</sup> baino gutxiago).
- Zerbitzuaren eremua: Gune Funtzionalak.
- Heziketa funtzioa, zabalaldikoa eta/edo erlazio eta sozializaziokoa.
- Kontsumo gehiengoduna eta berezkoa.
- Eguneroko erabilera masiboa.

Oinarrizko zuzkidurak izango dira (frontoiak, gimnasioak, oinarrizko pistak eta abar) eta egunero eta era informalean edozein biztanlek erabili ahal izango ditu, josteta-arrazoiengatik edo arrazoi terapeutikoengatik edo, besterik gabe, sozializazio edo jostagarri bezala.

B mota: Tarteko instalazioa.

- Azalera ertaina (5000-30.000 m<sup>2</sup> bitartean).
- Zerbitzuaren eremua: Gune Funtzionalaren eta udalerrriaren multzoaren tartekoa.
- Heziketa funtzioa eta zabalaldikoa eta, une zehatzetan entrenamendu eta lehiaketa funtzioa.
- Gehiengodun kontsumo antolatua.



- Eguneroko erabilera masiboa edo hautatzekoa.

Kirola era egituratuagoan praktikatzen da instalazio hauetan, nolabaiteko ikastaldi eta formalizazioa eskatzen duten jarduerak izango dira eta, era berean, jarduera fisikoa ere handiagoa izango da.

C mota: Hiriko instalazioa.

- Azalera handia (30.000 m<sup>2</sup> baino gehiago).
- Zerbitzuaren eremua: udalerrri osoa edo hortik gorakoa.
- Zabalaldiko funtzioa, entrenamendukoa eta lehiaketakoa. Une jakinetan ikuskizun funtzioarekin.
- Kontsumo mistoa edo gutxiengoduna eta egituratua.
- Erabilera mistoa edo unean-unekoa eta murriztua.

Instalazio espezializatuak izango dira, entrenatzeko eta lehia kirolerako erabiliko dira eta, ondorioz, nazioarte mailan balioa izango duten arauzko irizpideen arabera diseinatutakoak izango dira.

Ildo beretik, instalazio horiek ez daude gehiengodun kontsumora zuzendurik eta horien erabilera, arrazoi funtzionalengatik, eginera egituratu eta espezializatura murrizten da; gauzak horrela, erabilera horretara biztanlegoaren sektore txiki batek baino ez du jotzen.

Bestalde, eskaintzaren osotasunean instalazio publikoak eta pribatuak kontuan hartu beharko dira. Azken horiek zeregin garrantzitsua dute gainera demandaren betepenean bai arrazoi ekonomikoengatik eta baita biztanlegoaren sektore jakin batzuentzako baztertzaile gisa.

Hala eta guztiz ere, eskaintza pribatuaren edota erabilera murriztuaren zenbatekoketa egiteko instalazioetara sarbide aukeren ezberdintasuna isladatuko duen tratamendua ezinbestekoa izango da instalazio publikoekin eta guztiontzat zabalik daudenekin alderatuz.

Edozelan ere, egoera baztertzaile hori kontuan hartuz, kirol ekipamenduen eskaintzaren kontabilitate diferentziala ezartzen da





ekipamenduen izaera publiko edo pribatuaren arabera.

Esangura horretan, eskaintza osoaren multzoan instalazio bakoitzaren garrantzi zehatza “ponderazio faktore” batek zuzenduko du; horren zeregina eskaintzari buruzko kalkuluaren prozedura mekanikoan ñabardura bat sartzea izango da eta, era horretara, zenbakizko azken adierazpenean, lurzoruko m<sup>2</sup>ko kopuru bat, errealitateari datxekion heterogeneotasuna isladaturik agertuko da.

Ondorengo koadro sintetikora bildurik daude eskaintza gordinaren “ponderazio faktore” horietarako erabaki diren baloreak eta, era berean, ahalezko demanda kirol lurzoruaren metro karratutan bihurtzeko aplikatutako estandarrak ere:

**KIROL EKIPAMENDUETARAKO LURZORUAREN ESKAINTZA ETA DEMANDAREN KALKULU OREKATUAN ERABILITAKO IRIZPIDEAK**

INSTALAZIO MOTA	KUDEAKETA MOTA	ESKAINTZAREN OREKA FAKTOREA	DEMANDAREN KONBERTSIO ESTANDARRA
A	Publikoa	1,00	0,4 m <sup>2</sup> /biztanleko
	Pribatua	0,80	
B	Publikoa	1,00	0,6 m <sup>2</sup> /biztanleko
	Pribatua	0,80	
C	Publikoa	1,00	5,0 m <sup>2</sup> /biztanleko
	Pribatua	0,60	
GUZTIRA	Publikoa	1,00	6,0 m <sup>2</sup> /biztanleko
	Pribatua	0,63	

Horiek horrela, amaierako estandarra (6 m<sup>2</sup> biztanleko) gaur egun udalerrian dagoen kopurura berdinetziko da geroago ikusiko dugun bezala.

Getxoko Udalerriak kontsumo kolektibo gisa formalizatutako 14 kirol instalazio ditu guztira; horietatik 9 publikoak dira eta gainontzekoak kudeaketa pribatukoak.



Orokorrean, Getxoko udal barrutian kirol erabilerarako zuzendutako azaleraren eskaintza gordina 100 hektareatakoa da gutxi gorabehera. Kopuru horretatik Galeako Golf Zelaiak atzemandako azalera kenduz (ezaugarri bereziak dituelako eta kalkuluan nahitaez bihurtura eragiten duelako) 483.305 metro karratu zenbatzen dira eta horren araberrako ratioa honakoa izango litzateke: 6,1 m<sup>2</sup> biztanleko.

Kokapenaren ikuspegitik, oraingo honetan ere Galeako Golf Zelaia alde batean utzirik, zalantzarik gabe baieztatu daitezke neurri handiko instalazioen pilaketa handia dagoela udal barrutiaren mendebaldeko hegalean, Gobela ibaiaren ibarrean zehar (Gobelaren Zelaiak, Jolaseta Kluba, Neguri Langileko Zelaiak, Fudurako Kirol Hiria).

Hala ere, aipatu instalazioen lurralde banaketan gertatzen den desorekaz gain, desoreka esaguratsua ere gertatzen da, hau da, tokiko instalazioetako infraordezkaritza udalerriko kirol azaleraren eskaintzari dagokion multzoan.

Izan ere, arestian ezarritako zuzkiduren tipologia kontuan hartuz, oinarrizko instalazioetarako (A mota) 2 hektarea lurzoruko defizita ikus daitezke, hau da, instalazio txiki eta irekietarako, formalizazio maila txikia duten instalazioetarako, eguneroko erabilera masibokoetarako; horrelakoetan, erabilera egokia, neurri handi batean, etxebizitzarekiko hurbiltasun fisikoaren menpean egongo da.

Zuzkidura mota hauen diagnostikoa ezartzeko eremu espazial egokiena Getxoko udalerrian bereiztu izan diren zazpi Gune Funtzionalen araberrakoa izango litzateke; gauzak horrela, eskaintzaren zenbatekoketa eta demandaren zenbatespena ere Gune Funtzionalen araberrakoak izango dira.

Hortaz, arestian deskribatutako irizpideak aplikatuz kalkulaturako Gune bakoitzaren eskaintza eta demandaren arteko kontrastazioaren emaitza honako koadrora bildurik dago:

**OINNARRIZKO KIROL EKIPAMENDUA. DEMANDA ERAGINKORRA, HAZTATUTAKO ESKAINTZA ETA DEFIZIT ZENBATETSIAREN ARLO BANAKETA**



GUNE FUNZIONAL A	BIZTANLEA K	Estandarra m <sup>2</sup> /biztanlek o	Demanda eraginkor ra (m <sup>2</sup> )	Haztatutak o eskaintza	Defizit a (m <sup>2</sup> )
AREETA	18.257	0,4	7.303	625	-6.678
ERROMO	11.038	0,4	4.552	2.000	-2.552
NEGURI	5.921	0,4	2.368	-	-2.368
ALGORTA I	17.716	0,4	7.086	1.630	-5.456
ALGORTA II	14.833	0,4	5.933	-	-5.933
FADURA	4.673	0,4	1.869	-	-1.869
ANDRA MARI	6.866	0,4	2.746	4.800	+2.054

Ikus daitekeenez, Getxok gaur egun ezaugarri horietako instalazio gutxi ditu. Kategoria horretara bildurik daudenak honakoak dira: Andra Mari, Gobela eta Mataderoko polikiroldegi txikiak eta bi skate pistak. Agregatutako terminoetan eskaintza 9.055 m<sup>2</sup> da guztira, danak ere udal kudeaketakoak baina zenbatetsitako demanda 31.857 m<sup>2</sup> izango litzateke.

Zuzkidura mota horietako defizit edo mentsarik ez duen gune bakarra Andra Marikoa da, besteak beste, Probalekuko kiroldegia duelarik; gainontzeko guneetan ez dute mota horretako instalaziorik (Neguri, Algorta II, Fadura) edota izan arren ere ez dira nahikoak. Alde horretatik, larritasun erlatibo handiena Areetan bizi dute (6.678 m<sup>2</sup>ko defizita) eta gero bi Algortak datoz (5.933 m<sup>2</sup>ko defizita Algorta IIan eta 5.456 m<sup>2</sup>ko defizita Algorta Iean).

Kirol ekipamenduaren bigarren maila tipologikoa tarteko eremuko instalazioek osatzen dute (B motako instalazioak). Neurri ertaineko instalazioak dira, aurrekoak baino formalizazio maila handiagokoak eta beren funtzionamenduko eremu egokia, gutxi gorabehera, 40.000 mila biztanlez osatutako hiri edo herrietarako izango litzateke.

Azken buruan, zuzkidura mota hauen lurraldekako analisirako Getxoko udal barrutia bi agregatu espazial handitan banatu da. Lehenengora hiru Gune Funtzional bildurik daude (Areeta, Erromo eta Neguri) 35.216



biztanleekin; bestalde, gainontzeko guneez tarteko bigarren eremua osatuko dute 44.088 biztanleekin. Instalazio hauen haztatutako eskaintzaren eta zenbatetsitako demandaren arteko konparaketa honako koadroan laburturik dago:

**B MOTAKO KIROL EKIPAMENDUA. DEMANDA ERAGINKORRA, HAZTATUTAKO ESKAINTZA ETA DEFIZIT ZENBATETSIAREN BITARTEKO EREMU ESPAZIAL BANAKETA**

LURRALDE EREMUA	BIZTANLEAK	Estandarra m <sup>2</sup> /biztanleko	Demanda eraginkorra (m <sup>2</sup> )	Haztatutako eskaintza (m <sup>2</sup> )	Defizitua (m <sup>2</sup> )
Lehen eremua	35.216	0,6	21.130	40.875	+19.746
Bigarren eremua	44.088	0,6	26.453	26.175	-278

Ikus daitekeenez, Algorta, Fadura eta Andra Mari aldeetan ez dago instalazio mota horretako defizit do mentsarik; dena den, kontuan izan behar da eskaintzaren kalkulura Portu-Zarrako igerileku pribatua ere bildu dela, aspaldian publikoarentzat itxita dagoen arren.

Bestalde, Areeta-Erromo guneez lurzoruko ia bi hektareatako superabitu du baina kirol guneen eskaintzan ez dago aniztasunik (eskaintza osoa jardunbidean dauden hiru futbola zelaiak dira: Neguri Langileko biak eta Gobelaren zelaia).

Azkenik, Getxoko udal barrutia soberakina da kirol instalazio handi edo izaera bereziko atzemandako lurzoru azalerari dagokionean.

**UDAL ESPARRUKO EDO IZAERA BEREZIKO KIROL EKIPAMENDUAK (C MOTA)**

LURRALDE EREMUA	BIZTANLEAK	Estandarra m <sup>2</sup> /biztanleko	Demanda eraginkorra (m <sup>2</sup> )	Haztatutako eskaintza (m <sup>2</sup> )	Superabitu (m <sup>2</sup> )
-----------------	------------	---------------------------------------	---------------------------------------	---	------------------------------



GETXO	79.304	5	396.520	515.880	119.360
-------	--------	---	---------	---------	---------

Azalera handiko kirol ekipamenduen ondorioz, besteak beste, Faturako Udal Kirol Hiria (Estatu espainiarreko eta beharbada Europako kirol gunerik onena), Jolaseta Kluba edota Galeako Golf Zelaia, mota honetako zuzkiduretarako lurzoruko ia-ia 12 hektareatako superabita agertu da eskaintzaren zuzenketa faktoreak aplikatu ondoren (gorago aipatu irizpideen arabera) eta demandaren konbertsiorako aukeratutakoa bezalako estandar oparoa erabili ondoren.

Azken finean, aurreko analisi horretatik egoera paradoxikoa ondoriozta daiteke udalerriko kirol ekipamenduari dagokionean: alde batetik, inolako zalantzarik gabe baieztatu daiteke Getxok orokorrean kirol zuzkidura oso onak dituela kopuruari, kalitateari eta aukera aniztasunari dagokionean edozein kirol eginerarako; bestetik, kirol gune horiek neurri handi edo ertaineko instalazio kopuru txikian konzentratu daude eta horrelako kasuetan ailegaeraztasun arazoak sor daitezke.

Horiek horrela, arrazoi fisiko eta ekonomikoengatik hiri sarean zeharreko oinarrizko izaerako instalazio txikien ezarpena nolabait bazterturik geratu da; aipatu instalazioak irekiak eta ailegaerazak dira eta eguneroko erabilera intentsibokoak egoiliarrentzat; horrez gainera, gizarte errentagarritasun handikoak dira. Izan ere, aipatu instalazioen kostua erlatiboki txikia da eta ipar ameriketako hiri batzuetan gertatzen den bezala, kirol politika barnean baino gehiago hiri altzariei buruzko politika barnean kokatzen dira.

Zenbakizko deskribapen zehatza 5.8.7. kapitulura bildurik dago.

### 5.8.3.- KULTURA

Gizarte jardueratzat hartzen den kultura fenomeno zirriborrotu eta isolagaitz bezala azaltzen da, muga fisikorik gabeko prozesu legez, gune isolatuetan bazterturik geratzen ez den fenomeno gisa.

Oinarrizko maila horretan, Getxoko kultur ekipamendua udalaren menpeko Kultur Aretoen inguruan egituratzen da (erakunde autonomo baten bitartez kudeatuta: Zerbitzuen Fundazio Publikoa). Gaur egun, aipatu Kultur Areto horietako lau daude jardunbidean: Areeta, Erromo, Algorta eta Getxoko Andra Marin. Horiek guztiak eksklusiboak ez diren eraikuntzetan kokatzen dira eta tartean beste jarduera batzuk ere izango dira.

Horren harira, Andra Mariko Kultur Aretoan ez dagoen arren gainontzeko guztietan Liburutegia dago eta, horrez gain, San Nikolas Plazako Liburutegi Zentrala ere kontuan hartu beharko da. Guztira ia-ia 30.000 mila liburukiz osatutako fondoak daude.

Horrez gain, udalerrriak Getxo Antzokiaren (hamar urteko alogeran) erabilera ere kudeatzen du; besteak beste, Getxo Antzokia Getxoko Antzerki Jardunaldien azken edizioetako egoitza izan da. Kultur azpiegitura multzo horren kudeaketa Basagoiti Etorbidean kokatutako Etxearen egoitzatik bideratzen da, izan ere, toki horretan erdigunetzen dira Kultur Aretoaren zuzendaritza eta administrazioa.

Horiez landa, ikuspegi espazial batetik honakoa baieztatu daiteke: udalerriko oinarrizko kultur ekipamenduen sarearen egiturak lurralde banaketa egokia duela Gune Funtzionalen toki beharrianak asetzeko, hori guztia, Diagnostiko honetan zehaztu bezala; hala eta guztiz ere, Fadura eta Algorta II guneetan ez dago inolako zuzkidurarik. Gauzak horrela, konponbidea bilatu behar da aipatu guneei begira eta, horretarako, Areto berria zabaltzea nahitaezkoa izango da dentsitate handiko gune horietan zerbitzua emateko (esangura honetan, komenigarriena Sarrikobaso kalearen inguruetan lekuren bat bilatzea izango da).

Hala ere, udalerrriaren kultur azpiegituraren analisisian ikuspegi globaletik



somatzen den gabezia deigarriena honakoa da: getxon ez dagoela izaera bereziko edo ikur gisako kultur zuzkidurarik, toki edo auzoen gaindiko hiri eremuko zuzkidurarik. Ezaugarri horietako zuzkiduraren bat ezartzeko aukera (Entzungela, Erakusketa Areto Handia, Planetariuma eta abar) sendoturik geratuko litzateke gainera, alde batetik, Getxoko ingurugiroko kalitateari buruzko baldintzak ezin hobeak direlako eta, bestetik, Bilbo Handiaren osotasunerako ailegaerraztasunerako aukerak handiak izango direlako gaur egun aurreikusitako bide sareari buruzko azpiegiturak bukatzen direnean.

Ildo beretik, lurzoru terminoetan aipatu zuzkidurek planteatzen dituzten eskeak erraz mugatzekoak izaten dira bereziki haien izaera bereziagatik eta, beraz, tipifika ezinak izango dira; gauzak horrela, oso zaila izango da erresebakko lurzoria metro karratutan zehaztea aipatu erabilerarako. Edozein modutan ere, erreferentzia orokorraren marko gisa 0,25 m<sup>2</sup>/biztanleko estandarra har daiteke; estandar xumea izanik, guztiarekin, ekipamendu mota honetarako bi hektarea inguruko lurzoru azalera gordetzeko beharrezana baino ez legoke.

#### 5.8.4.- OSASUNA

Osasun-ekipamenduak antola-molde zentralizatua eta piramidala du, eta udalerriek euren lurraldeko osasun-zuzkidura publikoekiko erabakirik hartzeko gaitasunik ia ez dutela baieztatu daiteke.

Udal-mugartean Oinarrizko Gune bi mugatzen dira: Areeta (Areeta eta Erromo) eta Algorta (gainontzekoa). Oinarrizko gune hauetatik antolatzen ditu Osakidetzak lehenengo mailako laguntza zerbitzuak. Bakoitzari Lehenengo Mailako Laguntzarako Osasun-zentro bat dagokio.

Algortako Osasun-zentroak, 1990ean ireki zena, eraikitako 3.000 m<sup>2</sup> ditu eta 50.000 biztanleren beharrezan jasotzen ditu. 14 kupo-mediku (11 generalista eta 3 pediatra), eta 9 taldeko medikuko plantila du (taldeko medikuak bete-beteko dedikazioa dutenak dira, kupo-medikuek ez bezela, hauek egunean bakarrik bi orduko kontsulta pasatzen dute eta).

Areetako Osasun-Zentroa Areetako Anbulategian kokatzen da, eta 30.000 pertsonako biztanleriari eskaintzen dio laguntza. 11 kupo-medikuko plantila du (8 generalista-3 pediatra), eta 8 taldeko mediku.

Bigarren osasun maila, hau da osasun-laguntza espezializatuak, Areetako Anbulategian du bere zentroa, 10 espezialitatekin eta guztira 21 medikurekin (dermatologoak, zirujauak, urologoak, odontologoak, erradiologoak, traumatologoak, eta abar). Hemengo espezialista batzuk Algortako Zentroan daude (neurologia, arnas aparatua, errehabilitazioa,...). Anbulategiak Urgentzietako Zerbitzua ere badu, eta eraikitako azalera osoa 3.880 m<sup>2</sup>koa da.

Getxon badaude ere Gurutze Gorriko postu bi: Maidagan kalekoa eta Itsasoko Gurutze Gorriarena, Arriluzeko Moilan. Osasun dotazio hau Osakidetzak kudeatzen duen Uribe Kostako Buruko Osasun-Zentroarekin osatzen da.





### 5.8.5.- GIZARTE LAGUNTZA

Getxoko Gizarte Udal Zerbitzuak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen edo Zerbitzu orokorren udal sarearen prestazioen inguruan antolatzen dira, hauek balioaniztasun maila altua dute, eta beraz hauen inguruan egituratzen dira gainontzeko laguntza mailak. Zentzu honetan Oinarrizko Zerbitzuekiko kontrajarrriak dauden Espezializatutako Zerbitzurik ez dago, oinarrizko prestazioen sostengu edo osagarri bezala planteatzen dira baizik.

Zerbitzu hauek Fuegos Kaleko Zentroan kokatzen dira, eta UTS desberdinak handik mugitzen dira Erromoko (Erromoko antzinako Komentua) eta Andra Mariko (Probalekuko polikiroldegia) lokaletaraino, baina beti ere lantalde bakar bat osatuz:

Zentroak oinarrizko Programa mota bi garatzen ditu:

- Familia eta Elkarbizitza Programak. Prestazioak apartamendu babestuak, hirugarren adineko egoitzak, etxez etxeko laguntzak, eta abar dira.
- Prebentzio, Gizarteratze eta Lankidetzak Programak.

Marginazio arrisku egoeran dauden taldeekin lan egiten dute (BGDS jasotzen dutenak, drogazaleak, elbarriak,...) eta komunitateko gizarte ekintzatik datozen baliabideak koordinatzen dituzte.

Sail honek dituen baliabide fisikoak, Fuegos kaleko Zentroaz gain ondokoak dira: Erromoko Nagusien Etxea (500 erabiltzaile eguneko), Erromoko apartamendu babestuak (11 apartamendu ireki berri) eta Jesusen Bihotzeko hirugarren adineko Egoitza (175 plaza).

Gaur egun udalerrian dauden gainontzeko gizarte ongizate ekipamenduak arlo pribatuak kudeatzen du.

Esklusiboa ez den lurzoruan Jubilatuen hiru Klub daude: bi BBK-renak (Areeta eta Algortan, 300 erabiltzaile eguneko) eta bat parrokiarena (Algortako El Redentor Parrokiako Kluba, 60 erabiltzaile eguneko).

Udal Egoitzaz gain badaude Getxon arlo pribatuak Aldundia edo Udalarekin egindako hitzarmenen bitartez kudeatutako beste hirugarren



adineko lau egoitza. Bata oraintsu itxi da (Leku Eder), beste hiruren artean ostera (San Esteban, Andra Mari, eta Getxoko Andra Mari) 116 plaza dituzte, orokorrean 9.000 m<sup>2</sup> azalera betetzen dutelarik.

Erakunde erlijiosoek administratutako ekipamenduen artean Argia Fundazioa nabarmendu beharko litzateke, buruko gaixotasunen prebentzio, tratamendu, errehabilitazio eta gizarteratzeko 125 plaza ditu.

Getxoko udalean funtzionamenduan dauden gizarte ongizate ekipamendu mota desberdinek betetzen duten lurzoru eskusiboaren azalera osoa 24.750 metro karratukoa da (Leku Eder Egoitza kenduta).

### 5.8.6.- AUZOETAKO ZENTROAK

Getxon, ikuspegi orokor batetik, gune handietan jartzen dugu arreta, hauen inguruan egituratzen delarik udalerrri osoa martxan dauden edo burutzea proposatzen dugun ekintzetatik hasita.

Gizarte gune handi hauek ondokoak lirateke: Erromo, Algorta 1/Neguri, Fadura. Denek eremu zentrala duten ardatza osatzen dute (Algorta 1) Herri Administrazioaren zerbitzuen espezializazio funtzionalaren gune berri bezala eratzen dagoelarik (Udaletxea, Ertzaintza, Ogasuna ...).

Joera hau oso positibotzat daukagu, eta Udaleko zerbitzu zentralak oraingo udal eraikinaren ondoan dagoen MM. Adoratrices ikastegira zabalduz sendotu daiteke. Gune honek duen kokaera estrategikoak (Getxoko zentro geografikoa) zerbitzu hauek eskuraerrazagoak izatea egiten du posible, Alangos guneari dinamismo handiagoa emango diolarik.

Geralekuaren lurperatzea dela eta Areetako Plazak jasandako birmoldaketak, Areea bezala sendotutako arloan eremu publiko bat berreskuratzeko ustekabeko aukera suposatzen du. Dagoen mehelina eraikin berri batekin estaltzea eta plaza eta bertan amaitzen diren kaleak oinezkoentzat jartzea proposatzen da, auzoko erdi erdia izango delarik, Areea eta Erromoko zentroetatik hurbilago. Operazio honekin batera, Erromoko gunean, orain arte Santa Eugeniako Eskolek betetako esparruan jarduketa baterakoa proposatzen dugu. Esku-hartze honekin Erromok zentro neuralgikoa izango luke, tradizioz “trenbidearen beste aldean” egon den auzoa bultzatzeaz gain, elkargune bezala ere funtzionatuko du, bertan hiri ekimen mota desberdinak ere definituko liratekeelarik.

Fadurako gunea - Ibai-Parkean Auditorioa edo ekitaldi Kultural desberdinak egiteko Erakina kokatzea posible egiten da, hiri izaera handiagoa emateko eta bere kirol espezializazioarekin batera, jendearen joan-etorri desberdinak eta gizarte ekitaldiak artikulatzea nahi da.



### 5.8.7.- LABURPENA ETA ONDORIOAK

Oro har Getxoko udalerriko ekipamendu sistema eta gune kolektiboek lurzoru eskusiboko (hau da, beste erabilerarik ez) 166,5 hektareako azalera betetzen dute, hau da udal azalera osoaren %14 baino pixka bat gehiago. Dotazio-erabilera desberdinek egiten duten azalera honen banakapena ondokoa da:

### GETXOKO UDALERRIAN DOTAZIO-ERABILEREK BETETAKO LURZATIEN AZALERA DOTAZIOEN ATXIKIPEN PUBLIKO EDO PRIBATUAREN ARABERA. (M<sup>2</sup>)

GUNE KOLEKTIBO MOTA	LURZATIEN AZALERA		BETETAKO AZALERA OSOA (M <sup>2</sup> )
	PUBLIKO A (M <sup>2</sup> )	PRIBATU A (M <sup>2</sup> )	
HEZKUNTZA	99.850	47.303	147.153
OSASUNA	4.325	-	4.325
KIROLA	460.405	549.576	1.009.981
GIZARTE ONGIZATEA	8.000	16.750	24.750
KULTURA	500	-	500
ERLIJIOSOA	-	57.590	57.590
HIRI ZERBITZUAK	81.600	-	81.600
BERDEG., HERRI JAB.	341.630	-	341.630
GUZTIRA DOTAZIO- ERAB.	995.010	671.219	1.666.229



Ekipamendu desberdinen lurralde-banaketak (bereziki herrikoago den zerbitzu eremukoak) oro har egitura orekatua eta udalerrian dauden (Areeta bezalako salbuespenekin) egoitzalde desberdinetan sortutako beharrezanetara ondo egokitzen den dispersioa erakusten du. Adibidez haurtzaindegiak, eskolaurreko zentroak, OHO-ko eskolak, Kultura Aretoak, ekipamendu erlijiosoak, hirugarren adinekoen Eguneko Zentroak, eta Gizarte Zerbitzuen dotazioak.

Salbuespen garrantzitsuena zentzu honetan oinarritzko izaerako kirol dotazioek osatuko lukete, hau da tamainuz txikiak eta baina jende askok egunero eta era informalean erabiltzen dituenak, egunerokoa edo informala duten instalazioak, biztanlegoaren zati handi batek erabiltzen dituenak.

Getxok ia ez du horrelako instalaziorik, dotazio mota hauentzako lur dezifizita somatu delarik, oro har 25.000 m<sup>2</sup> izango litzatekeelarik.

Egoera desberdina da zerbitzuen eremua zehazki herrikoa baino handiagoa den dotazioetan. Lehenengo eta behin eremu-banaketa ez da hain orekatua, hauen kontzentrazio handia ematen delarik Gobela ibaiaren ibarrean (Fadurako Udal Kiroldetgia, Jolaseta Kluba, Julio caro Baroja, Aiboa eta Getxo IV Institutuak eta Fadurako LH). Baina bestalde, arloz arlo ere zenbait desoreka somatu daitezke.

Nabarmenena tamainuz handiak diren edo/eta apartekoak diren kirol-ekipamenduen gaintotazioa da, eta hau hirian egon behar lirateken dotazio txikien defizitarekin kontrajarrita dago.

Ikus daiteke ere Areeta-Erromo-Negurin ez dagoela dotaziorik Irakaskun. ertaineko zentroei dagokionez, eta hau udalerrriaren iparralderantz dagoen gehiezigziko eskaintzarekin kontrajarrita dago.



Azkenik udal edo udalaz gaindiko eremuko aparteko kultura-ekipamenduen erabateko gabezia ere aipatu behar litzateke, hau herri mailako dotazioetan oso ona den udal kultura-sare baten puntu beltza izango litzateke. Zentzu honetan erabilera horretarako beharrezkoak diren lur erreserbak gune libre berrietako baten sar daitezke, zehazki Ibai-Parkea, hemen balio anitzeko auditorio erabilera jar zitekeelarik. Ekipamenduentzat Plan Orokorrean egiten den erreserba arrunta horretarako ere erabil daiteke.

Planaren herri ekipamenduen aurrikuspenen zenbakizko deskripzio zehatza ondoko tauletan jasotzen da:

<b>SISTEMA</b>				
<b>GIZARTE-HIRI ARLOA</b>	<b>IZENDAZIOA</b>	<b>KOKALEKUA</b>	<b>ERAB.</b>	<b>AZAL. M<sup>2</sup></b>
AREETA-ERROMO	Areetako Moila	Areetako moila	Kirola	12.870
AREETA-ERROMO	Musikaeskola	Las Mercedes k	Kultural	559
AREETA-ERROMO	Merkatua	Las Mercedes k	Zerbitzu	581
AREETA-ERROMO	Hizkuntz Eskola	Las Mercedes k	Irakasku	462
AREETA-ERROMO	Osasun Zentroa	Ridebarrieta k	Osasuna	1.810
NEGURI	Kirol Portua	Arriluzeko moila	Kirola	65.962
NEGURI	Sta. Clara	Aiboa k	Zerbitzu	6.048
NEGURI	Ertzaintza	Aiboa k	Zerbitzu	8.886
NEGURI	Kirolaldea S.D. Neguri	Leioa k	Kirola	32.140
NEGURI	Enaitegi Berriak	Foruak k	Zerbitzu	10.928
NEGURI	I. Getxo II	Makaleta etorb.	Irakasku	8.096
NEGURI	I. Getxo IV	Leioa k	Irakasku	2.542
ALGORTA I	Getxo Antzokia	San Nikolas pl	Kultural	607
ALGORTA II	I. Getxo I	Makaleta etorb.	Irakasku	14.122
ALGORTA II	Eadura	Makaleta etorb.	Kirola	128.95
ALGORTA II	Anbulategia	Ridezabal k	Osasuna	3.077
ALGORTA II	I.H. Zentroa	Berangoko	Irakasku	6.967
GETXOKo Andra Mari	Hilerria	Aixerrota	Zerbitzu	53.474
GETXOKo Andra Mari	Getxo III-Andramari	Kortiñe	Irakasku	22.732
GETXOKo Andra Mari III	Zabortegia eta instalazioak	Bolue	Zerbitzu ak	71.829



<b>TOKI-SISTEMAK</b>				
<b>GIZARTE-HIRI ARLOA</b>	<b>IZENDAZIOA</b>	<b>KOKALEKUA</b>	<b>ERAB.</b>	<b>AZAL M<sup>2</sup></b>

AREETA-ERROMO	Ekipamendu berria	Geralekuko Plaza	Definitu	311
AREETA-ERROMO	E. Santa Eugenia	Kresaltxu k.	Definitu	494
AREETA-ERROMO	Kultura Aretoa	Kresaltxu k.	Kulturala	1.534
AREETA-ERROMO	Ekipamendu berria	Errekagane	Definitu	2.739
AREETA-ERROMO	Aristegi Ikastetxe	L. Lopez Osés k.	Irakaskun.	19.98
AREETA-ERROMO	Areeta Kiroldedia	L. Lopez Osés k.	Kirola	15.31
AREETA-ERROMO	María Goiri	Gobelaurre k.	Irakaskun.	399
NEGURI	Ekipamendu berria	Etzezuri	Definitu	1.013
NEGURI	La Ola	Ereaga	Turistikoa	718
NEGURI	La Terraza	Ereaga	Turistikoa	696
NEGURI	Igeretxe	Ereaga	Turistikoa	1.397
NEGURI	Turismo Bulegoa	Ereaga	Turistikoa	396
NEGURI	Ekipamendu berria	Ereaga	Definitu	1.215
NEGURI	Ekipamendu berria	Txakursolo k.	Definitu	2.569
NEGURI	Ekipamendu berria	Neguri Langile	Definitu	337
NEGURI	Larañazubi	Larrañazubi k.	Irakaskun.	12.52
ALGORTA I	S. Inazio Eskolak	Foruak k.	Irakaskun.	11.06
ALGORTA I	Aiboa Egoitza	M. Beaskoa k.	Laguntza	4.893
ALGORTA I	Udaltzaingoa	Alango k.	Zerbitzuak	2.390
ALGORTA I	Suhiltzaileak	Alango k.	Zerbitzuak	6.199
ALGORTA I	Hiltegia	Alango k.	Kirola	2.672
ALGORTA I	Zabala IP	J. B. Zabala k.	Irakaskun.	1.280
ALGORTA I	Algorta Merkatua	Torrene k.	Zerbitzuak	1.071
ALGORTA I	Kultura Aretoa	Torrene k.	Kulturala	335



ALGORTA I	Informazio Bulegoa	J. B. Zabala k.	Zerbitzuak	77
ALGORTA I	Biblioteka	San Nikolas pl.	Kulturala	377
ALGORTA I	S. Martín Eskolak	S. Martín k.	Irakaskun.	2.031
ALGORTA I	Udal Bulegoak	San Nikolas k.	Zerbitzuak	1.028
ALGORTA II	Ekipamendu berria	Ituribari	Definitu	4.015
GETXOkoko Andra	LH Zentroa	Salsidu etorbidea	Irakaskun.	6.967
GETXOkoko Andra	Zubilleta Ikastetxea	Izaro k.	Irakaskun.	7.167
GETXOkoko Andra	Aixerrota	Aixerrota	Turistikoa	494

<b>GIZARTE-HIRI ARLOA</b>	<b>IZENDAZIOA</b>	<b>KOKALEKUA</b>	<b>ERAB.</b>	<b>AZAL M<sup>2</sup></b>
-------------------------------	-------------------	------------------	--------------	-------------------------------

GETXOkoko Andra	Probalekua	Maidagan k.	Kultura-	7.425
GETXOkoko Andra	Aingeruaren	Maidagan k.	Erlijosoa	51
GETXOkoko And. Mari	Geroa Ikastola	Maidagan k.	Irakaskun.	7.554
GETXOkoko And. Mari	Ekipamendu berria	P. P. Maidagan	Definitu	1.748
GETXOkoko And. Mari	Ekipamendu berria	P. P. Maidagan	Definitu	2.063
GETXOkoko And. Mari	Ekipamendu berria	P. P. Kortiñe	Definitu	2.271
GETXOkoko And. Mari	Saratxaga	Zientoetxe k.	Irakaskun.	4.222





## **5.9.- ZERBITZU SAREAK**

### **5.9.1.- EDATEKO URA**

Getxo Bilbo Handiko Uren Partzuergoan sartuta dago, beraz Bilbo Metropolitarrerako hornidura sistema orokorrean sartzen da. Herri eremuan hornidura eskema Gaztelueta, Kurkudi, Martikoena eta Martxikortiñeko biltegieta finkatzen da eta Kurkudi-Berango, Gaztelueta-Areeta eta udalerriko hegoekialdeko mugatik pasatzen dena dira zain nagusiak.

Gaur egun batez besteko kontsumoa eguneko 31.000 m<sup>3</sup>-koa da, dotazioa gutxi gora-behera 390 litrokoa da, biztanleko eta eguneko. Ez dagoelarik urtaro edo egunen arabeko aldaketa nabarmenik. Partzuergoaren aurrikuspenen arabera aurrerantzean kontuan hartu beharreko gehienezko dotazioa 405 litrokoa izango litzateke, biztanleko eta eguneko.

Sendotutako hirigunetan, jarduketan programa kondukzioen birjarpen eta mantenimenduan eta banaketaren razionalizazioan oinarrituko da, maila itxiz, aldagailuak instalatuz (balbulak eta urguneak) eta banaketa gune desberdinak (gain presioak baztertuz, eta abar) jarritz.

Andra Marin sarea luzatu egin beharko da, gune horretarako aurrikusitako garapen berrien arabera. Hornidurarako emarien gehikuntzari dagokionez, ez da arazorik plateatzen, aurrikusitako gehikuntzak Partzuergoak planifikatu duenaren barruan geratzen direlako. Planean sartuta dagoen sareak bide sistema orokorren trazaketa jarraitzen du (Bide-Parkea, Maidaganen luzagunea eta bide perimetrala), gune honetako barruko sareak dagozkion urbanizaio-proiektuetan definitu behar direlarik.



### 5.9.2.- SANEAMENDUA

Plan Orokorrean jasota dagoen saneamendu sarea Bilbo Handiko Uren Partzuergoak aurrikusitako Eskualdeko Saneamendu Integralaren Plan Orokorreko aurrikuspenei egokitzen zaie.

Saneamendu Planak hondakin urak itxasora zuzen isurtzea guztiz ezabatzea jasotzen du. Horretarako Gobela ibaian zehar tartean hartzeko baten burutzapena aurrikusita dago. Tartean hartzeko honek, grabitatea dela eta, udalerriko zati handi baten husteak hartzen ditu. Tartean hartzekora isurtzeko ponpaketa bakarrik kostaldean egin behar izango da. Tartean hartzekoa Lamiakotik luzatzen da, Itsasadarra azpitik gurutzatzeko Galindoko Araztegiraino.

Gobelako tartean hartzekoaren trazaketa Plan orokorrean jasota dago, saneamendu Sistema Orokor bezala. Gune honetarako baimendutako erabilerak Saneamendu Sistema Orokor bezala bere destinoari dagozkionak dira. Baimentzen dira ere zerbitzu publiko eta oinarrizko azpiegiturei dagozkien erabilerak: komunikazioak, ur eta energia eta antzerakoen hornidurak, beti ere ukipena eragiten duen saneamendu instalazioaren eraikuntza, ustiakuntza eta mantenimenduarekin bateragarriak badira.

Horrela definitutako ukipen azalera, plantan bost metro zabalerako lurrerrenka perimetralean gehitutako saneamendu instalazioak betetzen duen eremuak osatzen duena da.

Sendotutako guneetan oraingo saneamendu sareak tartean hartzekoari lotuko den gunetan egokitzapen txikiak behar izango ditu, sarearen hobekuntza orokor lanetaz aparte, adibidez hondatutako guneen birjarpena, edukiera gehikuntzak eta isurbide berrien burutzapena edo sifoidunak ez direnak aldatzea.



Getxoko Andra Marin ur beltzen bilketa grabitatea dela eta osorik aurrakusten da tartean hartzeko berri baten bidez Bide-Parketik eta dagozkion adarretatik aurrakusitako gainontzeko bide sistema orokorretan. Barne sareak dagozkion urbanizazio-proiektuetan definitu beharko dira.

Euri-uren sareari dagokionez, sendotutako gunetan sare bereizlea ezartzeak oraingo sarea bikoiztea suposatuko luke, bere %86-a unitarioa delako, jarduketa honi ez zaiolarik uko egin behar, baina dauden lehentasunek epe luzerako uzten dute.

Gobela Ibaiak bere luzera osoan euri-uren tartean hartzeko naturala izaten jarraituko du, Getxotik gorako emariak eta urbanizatutako lurzoru berrietako sare bereizleetatik datozen emariak hartuko dituelarik. Plan Orokorrak Cervantes eta Cristóbal Valdés kaleetatik dauden itxasorako ebaketa zuzenak jasotzen ditu, hauek lurperatutako Areetako gunearen desbiderapena eta Ibaizabal kalean Metroaren geraleku berria posible egin dutelarik.

Andra Mariko kasuan euri-uren sarea ur beltzen sarearean parean doa, Gobela ibaira isurkinak zuzenean botatzen dituelarik, Uribe-Kostako Korredorearen Iberberangoko loturaren parean.

### **5.9.3.- ENERGIA**

#### **Sare Elektrikoa**

Getxon hornidura elektrikoaren eskema izen-tentsio 13,2 KV-ko linea sare baten bidez egiten da funtsean, eta Leioa eta Berangoko Amaiaren Luzagunean dagoen Lamiakoko Banaketaren Estazio Trasformatzaileak (BET) eta Larrañazubiko 132/13,2 KV transformazio instalazio berritik hartzen du energia.

Planean aurrikusitako hazkundeak instalazio hauen hornidura gaitasunen barruan sartzen dira eta beraz transformazio estazio berriak beharrezkotzat jotzen dira. Beharrezkotzat jotzen da ere 13,2 KV-ko lineak hiri lurzoru eta lurzoru urbanizakorretan guztiz lurperatzea.

Getxoko Andra Mari aldean sarearen zabaltzea bide sistema orokor berrien gainean egingo da, dagozkion urbanizazio-proiektuentzako definitutako lurzoru urbanizakorren barruko sareak zehatz definitzea geratzen delarik.

#### **Gas banaketa sarea**

Naturgasek presio bajuko gas naturala banatzen du Getxon etxe eta merkataritza erabilerarako. Euskadiko Gasaren presio ertaineko sarearekin egiten den lotura Lamiakoko Erregulazio Estazioan gertatzen da, Leioako udal-mugardean.

Naturgasek udalerriko hirialdeak guztiz estaltzea aurrikusita du. Plan orokorrean sarea Andra Mari aldera zabaltzea jasotzen da, sistema orokor bezala aurrikusitako bideen gainean igaroko diren kondukzioen bidez. Dauden kondukzioen edukierak hazkunde hau eta Andra Marin aurrikusgarriak diren kontsumoak posible egingo lituzke.

Hazkunde hau ahalezko erabiltzaileen eskaerak baldintzatuta geratzen da, eremu honetan planteatutako dentsitateak direla eta gasifikaziorako alternatiba ekonomikoago batzuk komenigarriagoak izan daitezkeelarik, adibidez talde-biltegiak.

#### **5.9.4.- ARGIAK**

Getxoko herriko argiak hobetzeko programa martxan dago eta dauden gabeziak konpontzera bideraturik dago, argia, eletrizitatea, mantenu eta mantenimendu osagaiei dagokionez. Programa honek sendotutako udalerriko gune guztiak hartzen ditu.

Argiei dagokienez indarrean dauden irizpideek CIE-ren argi, argien luzerarako uniformetasuna eta itsualdien kontrolari buruzko irizpideak jarraitzen dituzte. Araudi honetara egokitzea jarraikakoa da udalerriko osoan.

Araudi honen zehazketak, pasealeku eta Gobelako parkea, kostaldeko pasealekua, oinezkoen alderdi berriak, eta Andra Mariko egoitza-lurzoru berriak eta hirugarren mailako lurzoruak, eta abarrentzako Plan Orokorra jarraitzen duten xehetasun definizio-proiektuetan jarraituko dira.

Elektrizitate-banaketa bilbearen dentsitatea ikusita argiaren sarearekin lotzeak ez du zailtasun berezirik ekarriko. Getxoko Andra Mariren kasuan argiguneen lehenengo eskema bat planteatzen da, honek alderdi honetako bideen sistema orokorreari balio izango die, eta dagozkion urbanizazio-proiektuekin osatu behar izango da.



## **5.10.- ERAIKUNTZAREN BABESA**

### **5.10.1.- ARAU SUBSIDIARIOAK EZARRI AURREKO EGOERA**

Arauk idatzi baino arinago garrantzizkoa zen arkitektura ondarearen egoera kezkarria zen. Aurreko Plan Orokorrak, garapen-irizpideekin, eraikitako ororen desagertzea bultzatzen zuen, paisaiaren aniztasuna eta lehendik zeuden arkitektura baloreak alde batera utziz.

Aurreko urte hauetan, Arauen kudeaketa egiten ari izan diren bitartean, egoera kaotiko hau zeharo aldatu da.

Katalogatutako zenbait finka birgaitu da eta gainontzekoak, batzuk egoera onean daude eta momentuz tradizioz izan duten erabilera mantentzen dute, hau da etxebizitzarena.

Gai honetan funtsezkoena udal jarduketan ingurugiro baloreak berreskuratzeko egin diren obrak faboratzea izan da. Eraikin babestuek jarraitu duten bidea antzerakoa izan da. Komenigarria izango litzateke, beste batzuren artean, hauen gain Kudeaketa Araudian aurrikusitako bideen bitartez jardutea, eraikinak eskagarriak diren apaindura eta apainketari egokitzeko.

Baliabide garrantzitsuenak kasu hauetan ez dira babesteko neurri zehatzak izan, hirigintza neurriak izan dira, eremu honetan dentsitateak murriztea erabakiorra izan delarik, eraikitako ondarearen kontrako jarduketa arpilatzaileak ez errentagarriak egin arte.



### 5.10.2.- ARAU SUBSIDIARIOETAN PROPOSATUTAKO NEURRIEN EMAITZAK

Hirigintzako Informazio fasean zehar, Arau Subsidiarioak onetsi zirenetik euren gain jardutako eraikin eta multzo guztiak jaso ziren. Arau Subsidiarioek sartutako neurrien emaitza orokorra oso egokitzat jo daiteke, ondoko datuok erakusten diguten bezala:

<b>Hiri-multzoa</b>	<b>Eraikin Babestuak</b>	<b>Eskuhartzea k</b>
1.- Santa Ana	18	6
2.- Eskoletako plaza	17	13
3.- Erromo	4	-
4.- Zugazarte	29	13
5.- Neguri	101	36
6.- Basagoitiko etorb.	59	29
7.- Portu Zaharra	1	-
8.- Beste zenbait	48	26
9.- Naturguneak	17	5
<b>Guztira</b>	<b>291</b>	<b>128</b>

**1. multzoan**, Santa Ana plaza inguruan hamazortzi eraikin zeuden sartuta, hauetatik seitan arkitektura esku-hartzea egon delarik, eta portzentai hau %33koa da. Multzo honetan jarduketan gehiena garbiketa, zaharberritze eta apaindura lanak izan dira, eta aldaketaren bat erabileraren aldetik.

**2. multzoan, Eskoletako plazaren** inguruan katalogatutako eraikinak hamazazpi ziren, hamairu izan zirelarik esku hartutakoak, eta jarduketaren %76ko portzentaia da. Hemen ere lanak kanpokoak izan dira gehien bat, baina erabileraren aldaketa nabarmendu behar da (zinema izatetik musikaeskola izatera), birgaikuntza osoa (Las Mercedes 8) eta eraisketa bat (eskola zaharrak).



**Erromoko multzo (3)** txikiak ez du ia aldaketarik izan eta egon direnak esku-hartze puntualak izan dira, antzinako Kooperatibako etxeetan eta ez beti onerako izan diren birgaikuntzak.

**4. multzoan**, Zugazarteko Etorbidean zehar egituratua dagoena, egoera aldaketa ikusgarria izan da. Katalogatutako hogeita bederatzita eraikinetatik hamairutan esku hartu da, hau da, %44ko portzentaia. Jarduera handi honetan hoberena kalitate nabarmengarriko eraikinetan birgaikuntza osoak egitea izan da ez azalekoak bakarrik. Lorategi batzuk akatzea (San Joseren, Zugazarte 14) aurrikusita zegoen eta, azken baten, sustatzailearentzat bultzada sortzailearen parte bat zen jokaeran gehien nabarmenduko litzatekeena da -kalte ez hain handien artean-.

**5. multzoan**, Neguriko gunean, jarduera ez da gutxiago izan. Ehun eta bat eraikinetatik hogeita hamasei hobetu dira, hau da %36, eta esku-hartze sendo hau pasatu eta gero abandonu edo aurri egoeran bakarrik bizpairu eraikin geratzen direla zehaztu behar da.

Multzo honetan operaziorik bereizgarriena Los Rosales finka birgaitzea izan zen, lorategiko izkina baten eraikitze eskubide batekin bultzatu behar izan zelarik -hau egiteak aurreko egoera aldatu zuelarik-, baina multzoa egoera oso zail batetik berreskuratzeko balio izan zuen.

Gogorragoa izan da **6. multzoan** egindako aldaketa, Basagoitiko Etorbidean zehar. Katalogatutako berrogeita hemeretzi eraikinetatik hogeita bederatzitan esku sartu da, honek %49ko portzentaia izugarria egiten duelarik. Hau da, katalogatutako bi etxetatik bat momentu honetan hobetzeko edo birgaitzeko prozesuan dago, eta asko hobekuntza edo birgaikuntza osoak dira. Ikus daiteke, orain hamar urte abandonatuta edo hondatuta zeuden erakin guztiak izateaz gain, birgaitu ez direnak balio arkitektoniko gutxiago dutela.

**Portu Zaharraren** inguruan antolatutako **multzoak**, bere bizitasuna eta hobekuntza puntualak mantendu izan ditu, eta katalogatutako lau eraikinak oso osorik ez badira ukitu ere, erabilera eta zaintza osoko egoeran mantendu izan dira behintzat.

Azkenik, **8. multzoan**, bere eraikinetatik %54 (berrogeita zortzitik hogeita sei) hobetu eta birgaitu dira. Hemen bere sakabanaketa dela eta





multzo homogeneo baten ere sartzen ez diren eraikinak daude.

Multzo guztien **laburpena** eginez esan dezakegu sartutako eta katalogatutako eraikinetatik %44tan esku sartu dela. Dozena erdi kasu kenduta, hauetan arkitektura ondarea ez delarik onik atera, izan diren jarduketek berrehun eta laurogeita zortzi eraikinetatik, Getxoko arkitekturan hoberena eta adierazgarriena dena, ehun eta hogeita lau narriadura egoera batetik berreskuratu dituzte.

**Naturguneei** dagokienez, hamazazpitik bostek izan dute bere antolamendu, diseinu, asfaltatu eta hiriko higigarrietan hobekuntza prozesua.



### **5.10.3.- PLAN OROKORRAREN PROPOSAMEN BERRIAK**

Aurrekoa ikusi arren, badaude oso egokiak izan ez diren jarduketa batzuk, ez arkitekturaren kalitate edo kritikatzan ez zen irtenbideagatik, baizik eta aurretik zegoen Ondarean izan zuen eraginagatik: eraikin babestuak eraitsi eta ordezkatzeari ari gara, adibidez.

Kasu hauetan neurri egokiak, zerga edo hirigintza-neurriak ezarri behar ez zaizkien eraikin babestuaren deskatolagazioa proposatzea logikoa da. Ondoren jasotzen ditugunak dira:

Zk.: 32

Kokalekua: La Amistad, 13

Zk.: 42

Izena: Udal Eskolak

Kokalekua: Eskoletako plaza

Zk.: 50

Kokalekua: Andrés Larrazabal 12

Zk.: 52

Kokalekua: Zugazarte 7-9

Zk.: 67

Kokalekua: Zugazarte 8

Zk.: 85

Kokalekua: Negubide 31-33 - Lertegi

Zk.: 126

Kokalekua: Zubialde - Zumardia

Zk.: 130

Kokalekua: Trenbidearen Etorbidea 15

Zk.: 165

Izena: Jesusen Bihotzaren ikastetxea

Kokalekua: Foruak z/g

Zk.: 226

Kokalekua: Juan Bautista Zabala

Zk.: 235



Kokalekua: Andrés Cortina 2

Zk.: 270

Izena: Jauregui baserria

Kokalekua: Oiz Mendia- Avda. del Angel

Bestalde, Udal Arkitektura Ondarea zehatz erreparatzeak Plan Orokorrean proposatzen diren babes neurriak ezarri beharreko eraikin berrien katalogaziora eraman gaitu. Ondokoa dira:

Zk.: 277

Izena:

Kokalekua: Novia de Salcedo izkina J. Arellanorekin

Zk.: 288

Izena: Etxetxu Txiki

Kokalekua: Oka Galarene kalearekin gurutzatzen den lekuan

Zk.: 289

Kokalekua: San Nikolas kalea

Zk.: 291

Kokalekua: Arieta izkina Vda. Zugazarterekin kalea

Zk.: 292

Izena: Amortuena etxea

Kokalekua: San Nikolas kalea, 1



Aurreko eraikinak kontuan izan gabe, udaleko jarduera eraikitzaileak balio historikoa izan ez arren arkitekturaren aldetik babestuen artean sartzea egokitzat jotzen diren eraikinak egin ditu azken urte hauetan, hauek kategoria desberdina dutelarik, berriak izanik ez dutelako sustapen, babes edo kontserbazio neurrien beharrik.

Ondoren jasotzen direnak dira Getxoko hiri kalitateari egindako ekarpenegatik eta euren baloreak aintzatetsiz:

Zk.: 278

Kokalekua: Tomás Olabarri izkina C. Valdésekin

Arkitektoak: Eduardo Escauriaza eta Rafael Olábarri.

Zk.: 279

Kokalekua: Tomás Olabarri, "crescent"aren bihurgunean.

Arkitektoa: Eugenio Aguinaga (semea).

Zk.: 280

Kokalekua: Cervantes kalea izkina Zugazarte Etorbidearekin

Arkitektoa: Luis Gana.

Zk.: 281

Izena: Cisco II

Kokalekua: Zugazarte etorb., 63

Arkitektoa: Eugenio Aguinaga Azqueta.

Zk.: 282

Izena: Cisco III

Kokalekua: Zugazarte etorb., 65

Arkitektoa: Eugenio Aguinaga Azqueta.

Zk.: 283

Izena: Club Marítimo del Abra

Kokalekua: Zugazarteko etorbidea, 54

Arkitektoa: Iñigo Eulate eta Eugenio Aguinaga (semea).

Zk.: 284

Kokalekua: Atxekolandeta 11

Zk.: 285

Kokalekua: k/Antonio Menchaca trenbidearen alboan

Arkitektoa: José Aburto Renobales.



Zk.: 286

Kokalekua: Hormaetxe, izkina San Ignaciorekin

Arkitektoa: Félix eta José Luis Iñiguez de Onzoño.

Zk.: 287

Izena: Casas del Magnolio

Kokalekua: Makaleta Etorbidea izkina Abanzadarekin

Arkitektoa: Eugenio Aguinaga Azqueta eta Luis Gana.



## **5.11.- INGURU FISIKOAREN BABESA**

### **5.11.1.- PLANAREN HELBURUAK**

Getxoko Udalerriko Inguru Fisikoaren azterlan eta analisiak inguruaren kontserbazio egoeraren balorazioa egitea eta antolamenduaren helburu eta irtenbide orokorren definiziorako babes ahalmena ezartzea posible egin du.

Udalerri barruan inguruaren ondaketa progresiboa ekarri duten eraspenak eman dira, beste batzuren artean ondokoa dira:

- **Bertoko basoaren atzerakada**, zio historikoak dituelarik, nekazaritzarako eta larre lurrak lortzeko egin diren sastrakagarbitzeak, lurraldeko basoa kentzea eta bertoko landareen ordeztu landare exotikoak jartzea. Prosezu honek zeharo ukitu du paisaia eta naturaren arriskuak gehitu ditu, lurzoruko landare-estaldura galtzean.
- **Uren kutsadura** nagusienetakoa da. Lantegiek eta hiriguneek araztu gabe botatzen dituzten isurkinak dira ibaien kutsaduraren errudun nagusiak, honek kalte izugarriak dakartzalarik. Isurkinak detektatzea, araztea eta kontrolatzea eta ukitutako ekosistemak berrezartzea beharrezkoa da, autoarazketa bultzatuz.
- Animalien bizileku baliiodunen ondaketa ekosistema klimatikoen suntziketa eta ordezkatzearen ondorio zuzena da.
- **Kostaldeko ekosistemen ondaketa**, dunak giza presioak ukitu ditu. Dunak ondaketa oso edo partzial egoeran daude, bere hare gainean sendotutako urbanizazioa edo hare erauzketak direla eta.
- **Ibai-bideen kutsadura**, Abrako uhobian, urbanizazioek, hondartzako kioskoek eta abarrek sortutako hondakin uren hustuketa urria.

Plan Orokorrak lortu nahi dituen helburuak:

- Ekologia, paisaia, ekoizpen eta balore zientifiko-kulturalen zainketa eta kontserbazioa bermatu.
- Gizakiaren jarduerak ondatu dituen ingurugiroaren elementu eta



prosezuak hobetu, berreskuratu eta birgaitu.

- Erosioak, irristaketak, uholdeek eta suteek ukitutako guneak birsortu eta berreskuratu.
- Atzera egin duen bertoko landaretza birsortu.
- Ondakin solidoak kontrolatu gabe isurtzeak sortzen dituen ondatutako guneak berreskuratu, erabilera aldaketa bultzatuz.
- Udalerriko zabortegei kontrolatua berreskuratu.
- Azaleko uren bazterrak birsortu, berreskuratu eta erregulatu, bere garrantzia edozein izanda ere, urak sortzen diren guneetan ere, honela apurka apurka ur baliabidearen kalitatea berreskuratzea eta uretako eta urbazterreko ekosistema mantentzea posible eginez.
- Erabilerak eta jarduerak erregulatu kostaldean, honela jostaketa erabilerarako eremuak berreskuratzea posible eginez, inguruarekin eta proposatutako irtenbideekin bat etorritz:
- Biztanleen egungo eta ahalezko eskaera asebetetzeko gai diren ekintza proposamenak egin.
- Atal honetan aurrikusitako helburu guztiak jasotzen dituen plangintza eta arautuko dituen Arautegia sortu.



### 5.11.2.- PROPOSATUTAKO KONPONBIDEAK

Proposatutako helburuak lortzeko, “Urbanizaezina” legez sailkatutako lurzorua babes eta defentsa guneak definitzeko, Lurralde Antolamenduari buruzko Gidalerroetan (LAG) ezarritako Antolamendu Kategoriatarako proposatutako kalifikazioan oinarritu dira. Kostalde osorako Plana indarrean dagoen uztailaren 28ko Kostaldeetako 22/1988 Legean eta garatzen duen Araudiak xedatutakoari doituko zaio.

Antolamendu Kategoriak

Ezarritako Antolamendu Kategoriak ondokoak dira:

- Zainketa Hertsiko aldeak, hots: Portu Zaharreko labarra (P-1 gunea), Galeako labarra (P-2 gunea) eta Bolueko hezegunea (P-3 gunea).
- Artapen Aktiboko aldeak: Arrigunaga (C-1) eta Aizkorri-Gorrondatzeko (C-2) hondartzak.
- Birsorketa eta Hobekuntza aldeak: Punta Galea-Azkorri, Aixerrota eta Igeretxe-Portu Zaharreko Hiri-Parkeak.
- Sortu beharreko Baso-Erabilerako aldeak: Bolueko ibarrean.
- Nekazal-erabilerako aldeak: Bolueko ibarrean.
- Azaleko Uren Babeserako aldeak
- Zainketa Hertsiko aldeak (P)

Zabalera gutxiko guneak dira (barneko hezeguneak, kostaldeko labarrak, goren aldeak edo landaretza berezikoak) pribilegiatu eta oso galkortzat jotzen direnak, bai ekologia, kultura eta paisaiaren aldetik, edo guzti hau orokorrean hartuta.

Ekosistemaren zainketa eta hobekuntza jarduerak faboratzen dira, gutxieneko mailan.

Udalerrri barruan proposatzen diren zainketa hertsiko aldeak ondokoak dira:





## **ZAINKETA HERTSIKO ALDEAK**

### **(P1) PORTU ZAHARREKO LABARRA**

Portu Zaharreko labarraren zainketa eta hobekuntza proiektua egitea proposatzen da.

Bere eremu geografikoa Ereagako Moila aldetik Azkorriko hondartzaraino hedatzen da. Gune oso galkor eta pribilegiatua da, bere interes zientifiko-kulturala, labarraren horman ematen diren prozesuak, eta bere paisaia direla eta, potentzial handiko gunea izanik.

Helburu nagusia zaintzea da, maldan lubiziak, irristaketak eta erosio prozesuak ekiditzeko segurtasun eta zaingo neurriak hartuz.

#### **Ekintza proposamenak:**

- Usategirantz igoten duen bidearen tinkotasuna kolokan jartzen duten lubizi eta erosio prozesuak ekiditzeko egingo diren jarduketa guztiak jasoko dituen proiektua egitea.
- Hobetu eta egokitu Portu Zaharra eta Usategiren arteko pasealekua, bere hauskortasuna dela eta prozesuak bultzatzen dituen teknika bigunak aplikatuz.
- Proiektu berean pasealekua labarraren goiko partetik luzatzea bultzatu.
- Usategi-Arrigunaga pasealekurako egokitzapen orokorra, saneamendua, garbiketa, sastraka-kentzea, landatzea, eta abar... aurreko pasealekurako baino naturalagoa eta ez hain hirikoa.

### **(P2) PUNTA GALEAKO LABARRA**

Balio zientifiko-kultural handiko gunea hau ere, geologiari dagokionez interes handiko hainbat puntu ditu, labar honetan landaretzak eremu giro desfaboragarri batean kolonizatu ahal izan du, oso landaretza berezia ikus daiteke, eta hauskortasun handikoa. Oso fauna baliogarria du, animalien lekualdaketan paso puntuak direlarik, paisaiaren aldetik balio handikoa izateaz gain.

Ezaugarri hauek eta egungo egoera mantentzea da helburua, gizakiak ia



esku sartu gabe, hau zientifikoa edo kulturala izango delarik.

**Ekintza proposamenak:**

- Labarrean goitik behera isurkinak, zaborrak, eraikuntzarako materiala eta abar botatzeko ohituraren debekua bermatu eta ekiditu, zaingo zerbitzuaren bidez.

**BOLUEKO HEZEGUNEA (P3)**

Getxo urez hornitzeko sortutako urtegia, gero abandonatu egin zena, honek hodiak gainezka egitea suposatu zuelarik, gaur egun lezkaz eta ezpata-belarrez beteta, eutrofizatuta eta urbazterretako landaretzaz betetako fasea. Uren kalitate ona eta oxigeno ugari eskatzen ez duten arrainak bizi dira bertan, urteko aro batzuetan oxigeno falta dela eta arrain hilak agertu arren. Uretako hegaztien babesleku eta habiak egiteko lekua da.

Gizakiak ez badu eskua sartzen urbazterreko landaretzaz izango da nagusi, apurka apurka beste espezie batzuk baztertuz. Ezaugarri guzti hauek direla eta egun Bizkaiko ur gezako hezegunerik garrantzitsuenetarikoa da.

Helburua zaintzea da, gizakiaren esku-hartzea gutxieneko maila batean utziz, egungo egoera mantentzeko jarduera gutxi batzuetara mugatuz.

**Ekintza proposamenak:**

- Bolue Ingurua saneatu eta egokitu.
- Zaborrak, eskonbroak eta isurkinak urtegitik kendu eta garbitu.
- Urtegiko ezponda perimetralaren berreskurapena, landare espezie egokiekin, daudenen artean aukeraketa eta saneamendua eginez, oinezkoen pasealeku legez eta ekosistemaren interpretaziorako egokituz, urtegiaren barru aldea errespetatuz.
- Faduratik udal zabortegirako sartzeko bideraino ibilgailuak pasatzea oztopatu.
- Bide honetan footing zirkuitoa sortu, elementuekin, fadurako polikiroldegitik irtenda.



### **ARTAPEN AKTIBORAKO ALDEAK**

Hondartzek osatzen dute, alde hauetan aplikatu beharreko irizpidea “aktiboki” mantentzean eta betiko erebilera gordetzean datza. Hondartzetako eta kostaldeko jarduketa guztia uztailaren 28ko Kostaldeetako 22/1988 Legea; III Titulua “Lur eta itsasoko herri jabariaren erabilera”n xedatutakoari doituko zaio.

Ekosistemaren birsorketa, artapen aktiboa, jarduera zientifiko-kulturalak eta jostaketa jarduerak faboratuko dira, hala eskatzen duten lekuetan bakarrik.

Orokorrean Udalerriko hondartzak berreskuratu eta birsortu egin behar dira, orain arte egon den uzteagatik, uren kalitate bajua dela eta, hondartza hauetatik hurbil Bilboko itsasadarra itsasoratzen delako eta korronteak alde horretara joaten direlako. Apurka apurka itsasadarreko ura berreskuratzeak aurrerantzean Udalerriko hondartzak erabiltzea faboratzen du. Egun Ereagako hondartzan jende gehiago dabil, zerbitzu gehiago dagoelako eta urarn kalitatean hobetze txikia eman delako.

Zainketa eta artapen kategoria honetan Getxoko Udaleko hondartza guztiak sartzen dira, inguruaren babesaren ikuspuntutik ondoko hondartzak diren arren garrantzitsuenak:

#### **(C1) ARRIGUNAGAKO HONDARTZA**

Hondartza honetan harri eta harribila ugari dago, eta azken aldi honetako industri-jarduerak sortutako hondakin, karbonatoak, eta abarren estratifikazioak eta sedimentazioak faboratutako gunee iluna ere badago. Eragin handia izan duen beste jarduketa bat hondartzan bertan egin den aparkalekua izan da.

### **Ekintza proposamenak:**

- Eginda dagoen hondartzako Birsorketa Proiektua aztertzea eta martxan jartze posiblea, Getxoko Udalarentzat Eregako hondartza alternatiba legez erabiltzeari buruzkoa.
- Hondartza eta bere inguruaren erabileren antolamenduaren azterlana eta aprobetxamendua.
- Ibilgailu aparkalekuari proiektu alternatiboa, hondartza barruan dagoena kenduz.
- Abratik itsasoko pasealekua jarraitzeko proiektua.

### **(C2) AZKORRI EDO GORRONDATXEKO HONDARTZA**

Gune desberdinak dituen hondartza. Hauetariko batean harribila ugari dago, beste batean duna-ekosistema berezia, landareak muturreko sailtasunetara egokitzen direlarik. Helburu nagusia duna-gune txikiak kontserbatzea eta mantentzea, eta hondartza berreskuratzea eta hobetzea da.

### **Ekintza proposamenak:**

- Laguntza teknikoa duna-sistemaren zainketa eta berreskurapena faboratzeko.
- Parking-a zabaltzeko posibilitatea, hemendik aurrera ibilgailuak pasatzea debekatzeko asmoz, berdeguneetara sartzea oztopatu.
- Azaleko drenajea konpondu, arrastaketa eta arekak sortzea ekiditzeko eta orokorrean multzo osoaren saneamendua.



## **BIRSORKETA ETA HOBEKUNTZA ALDEAK**

Kategoria honetan ezarri beharreko irizpide orokorra artapen kategoriara arte garatzean datza. Egungo egoera ekologikoki garatuago dauden egoeretara bideratzean datza, jarduketan bidez.

Izaera klimatikoa duen baso babestailea eratzea, ingurugiroa hobetzeko jarduerak eta artapen aktiboa faboratuko dira.

### **(M1) IGERETXE-PORTU ZAHARRA**

Paisaia Berreskuratzeko eta Hobetzeko Proiektua.

Ereagako hondartzako kostaldea hartzen du. Defizitzen duten baldintzapenak, maldak duen arazoa da, bere ezaugarri litologikoengatik eta aldaparengatik, erosio prozesuak azaltzea faboratzen da. Beste ezaugarri bat Abrako paisaia osotasunean kontenplatuz eta gozatuz paseatzen duten pertsona kopuru handia da.

Helburu nagusia paisaia hobetzea eta erosio prozesuak berreskuratzea izango da. Horretarako beharrezkoa izango da jarduketa mota batzuk eta proposamenak egitea.

### **Ekintza proposamenak:**

- Duna gunea itxuratu, pasealekua eta hondartzaren artean muga argia jarri.
- Umeen eraman-ekarriko jokoan gunea proiektatu, eraman-ekarriko izaera erabilera hau jaiak dirauten bitartean barrakak jartzeraekin batera eramateko da, nahi izanez gero.
- Ez erabili gunea hau parking-a luzatzeko gunea posible bezala.
- Poste eta linea elektrikoak kendu edo izkutatu, gunea horretako paisaiaren kalitatea gutxitzen baitute.
- Kaleetako higigarriak hobetu, atal honen barruan ondokoa jasotzen da: paperontziak jarri, zabor kontenedoreak izkutatu..., orokorrean bisitariak harrituko ez dituen jarduketak.
- Maldan, teknika bigunen bidezko jarduketa proiektua aurrera eraman, erosio prozesuak eta lubizi txikiak gelditzeko, maldaren



tinkotasuna gehituz. Paisaiaren bereskurapena proiektatuz, kolore, forma eta bolumen aldetik barietate handiagoa emango duten landare espezie desberdinak sartuz.

## **(M2) AIXERROTA**

Aixerrota ingurua kontserbatzeko eta hobetzeko proiektua.

Ondoko mugek definitutako aldea, labar lerroak, Aixerrotatik Fuerteraino, hilerriko hormarekin eta pinudiekin muga eginez.

Pasealari asko dabilen gunea, hauek paisaiaren kalitatea miresten dutelarik, mendiko bizikletan dabiltzanak, kirolariak, eta bar.

Helburu nagusia paisaia hobetzea eta egokitzea izango da, gizakiaren eragin maila edo urbanizazio maila kontuan izanik, erabilera desberdinak planifikatzeko.

### **Ekintza proposamenak:**

- Hilerriraino labarraren parean parke lineal bat garatzea, jarduketa bigunen bidez, egungo egoera ekologikoki garatuago dauden egoeretara bideratzeko.
- Aixerrota ingurua, hiri-parkea sortzea, Udaleeriak duen defizita dela eta, parke linealak baino atsedenerako eta jostaketa izaera handiago batekin.
- Hilerriraino ingurua landatu eta itxuratu.
- Oinezkoentzat pasealeku bat itxuratu, ingurugiroa errespetatzen duten tekniken bidez, gutxi gora-behera orain dagoen bidezidorrarekin bat etorriz.
- Mendiko bizikleten trafikoa dagoen bidezidorretako batetara zuzendu, formak eta erliebeak faboratuz, eta beste bigarren mailako bideetara pasatzea oztopatu.
- Bidearen bestaldean, berdeguneetara ibilgailuak sartzea oztopatu.
- Ibilgailuak sartzea oztopatu eta gero, berezko berreskurapena lortzeko neurriak hartu, gune batzuk atsedenerako, aisialdi eta jolasaldirako gune bezala batera emanaz.



- Fuerteko aparkalekua egokitu, paisaiaren kalitatea galdu gabe, berdeguneetatik ateratzen diren ibilgailu guztientzat.

### **(M3) PUNTA GALEA-AZKORRI**

Punta Galea berreskuratzeko eta birsortzeko proiektua.

Punta Galeak mendebaldetik eta Azkorrik ekialdetik mugatutako kostaldea. Gune honetako landaretza ondatuta dago, jendeak sasitza atlantikoa zapaldu du, gune batzuetan sasiak dira nagusi eta besteetan erosio prozesuak ageri dira.

Alde horretarako planteatutako helburuak erosio prozesuak dauden guneetako landaretzaren birsorketa eta berreskurapena da. proposatutako jarduketara guztiak kontserbazio eta izaera babestaile izaerakoak izango dira.

#### **Ekintza proposamenak:**

- Trafikoa ixteko aukera fuertean sortuko den parking-etik aurrera.
- Bidea itxuratu pasealarientzat eta estetikoki hobetu fuertetik Punta Galeako azken parking-a arte.
- Fuertetik bidea trafikoari ixten bazaio, aldatu azkenengo parking-a atsedean gune batetara, naturaren interpretazio alde edo ikusizko arroa bultzatu, inguruan integratuz.
- Golf zelaiaren ezponda berreskuratu, duen egoera txarragatik, eta pribatua denez konponbide posiblea hesi perimetrala izkutatzea edo pantailatzea da.
- Ondoko puntuak jasotzen dituen proiektua gertatzea:
  - Kostaldeko pasealekua itxuratzea, hiri elementurik gabe.
    - Erosio prozesu eta ondaketa nabariak dituen guneen bereskurapen ekologikoa.
- Gaur egun egoera txarrean dauden eta usai txarra botatzen duten itxas isurbideei konponbidea eman.
- Parkinga luzatzeko aukera, puntu horretatik aurrera ibilgailuak pasatzearen debekua dela eta, berdeguneetara sartzea oztopatu.



## **SORTU BEHARREKO BASO-ERABILERA ALDEAK**

### Definizioa:

Hemen ondatutako ekosistemak sartzen dira (sasitza, belardi/txilardi, eta abar), bere kokapenak baso bihurtzea gomendatzen du. Izan daiteke baztertutako edo erosio arriskua duten lurren gaineko laborantza gunea ere.

### Irizpide Orokorra:

Erabilera irizpide orokorra, zuhaiztia lortzea kolokan jartzen duen edozein jarduketa baztertzea da.

### Faboratu beharreko ekintzak:

Gune hauek, dagoen baso kategoriara zuzentzeko tratamendu programak, egungo baso ustiakuntzaren garrantzia kontuan hartuz, lehentasuna eman behar dio erabilera anitzaren irizpideari. Egin beharreko birbasoketa berrietan izaera mistoa dutenak bultzatuko dira. Hobetuta dauden espezieak erabiltzea ere bultzatuko da, egurraren produkzioa beste ondasun batzurekin osatuz, adibidez, hurritz, intxaurrondo edo gaztainondo bezalakoekin.

### **(F1) BOLUEKO IBARRA**

Bolueko ibarraren paisai hobetu eta berreskuratzeko proiektua.

Ibar honetan baserrialdeak badirau oraindik, hirialdea hurbil egon arren (Algorta, Areta, Neguri eta abar), baina gainbeheran dago. Ibarrean belardiak daude, eta badaude bere inguruan ortu txiki eta zenbait arbola dituen baserriren batzuk.

Aldapa handiagoa duten maldetan deforestazio handia eman da, horregaitik dago hainbeste iraleku eta otatza. Maldetako basoen birlantzea eukalipto eta pinuekin egin zen, izan diren suteek ukitu dituztelarik. Geroago egin den zuhaitz mozketak dela eta sasitza agertu da eta erosio prozesuak areagotu.

### **Ekintza proposamenak:**





- Birbasoketa maldetan, hauen jostaketarako erabilera posible egingo duena, bidezidor, pasealeku eta abarrekin, itxas guneari alternatiba bezala.
- Zaborteigiaren berreskurapen eta paisaian sartzeko proiektua egitea.
- Ibarreko erabilera eta jardueren antolamendua, baserri izaera bermatuz.
- Oinezkoen sarbide eta iraganbidea hobetu.

### **NEKAZARITZA ERABILERA KO ALDEAK**

Definizioa:

Lur emankorrak dira, gaur egun landatuta daudenak, ortu aldeak. Larre eta belardiak ere alde honetan sartzen dira.

Irizpide Orokorra:

Kategoria honetako tratamendu irizpidea lurren nekazaritzarako ahalmena, lehen mailako beste jarduera batzuekiko bateragarritasuna eta ekosistema eta paisaiaren kontserbazioa mantentzea da.

Faboratu beharreko jarduerak:

Nekazal jarduera guztiak faboratuko dira, paisaian sartzeko ahalegina egin behar delarik.



### **(A1) BOLUEKO IBARRA**

Ibar azpia, aldapa txikia, nekazal ustiakuntzak, ortuak eta larreak ageri dira. Arroaren goiko aldean granja txiki batzuk daude. Granja larregi egotea kaltegarria litzateke, urtegiaren eutrofizazio prozesua arindu lezake eta.

#### **Ekintza proposamena:**

- Bolue errekaen urbazterra urbazterreko landarezarekin berreskuratzeko proiektua.



### **AZALEKO UREN BABES ALDEAK**

Definizioa:

Kategoria honen helburua urtegi, ibai eta errekin muga egiten duten lursailen lurralde antolamendua da.

Antolamendu kategoria hau Udalerriko ibai-bideek eta dagozkien babes guneek osatzen dute.

Irizpide Orokorra:

Gune hauetan jarduteko irizpidea uren kalitatearen kontserbazioa faboratzea eta erreka eta urbazterren atzematea edo aldaketa eragozte da.

Faboratu beharreko Jarduerak:

Antolamendu kategoria honetan ingurugiroa kontserbatzea eta hobetzea faboratuko da.



### **5.12.- ETXEBIZITZA BABESTUEN AURRIKUSPENA**

Oraintsu Eusko Legebiltzarrak Presazko Neurriei buruzko Legea onartu du Etxebizitza eta Plangintzarako Bitartekoen Tramitazio eta Hirigintza-Kudeaketari dagokionez, bere helburuetan 7.000 biztanle baino gehiagoko udaletako plan orokorretan babes motaren bat duten etxebizitzak eraikitzeko lurra aurrizusteko beharrezana dagoelarik, gaur egun etxebizitzaren merkatuak dituen prezioak direla eta sailtasun larrian dagoen gizartearen eskaerari erantzuna emateko.

Aipatu legearen arabera Plan Orokorretan lurra aurrizusti behar da:

- Lurzoru urbanizakorrean aurrizustita dauden etxebizitza guztien %65rako
- Hiri lurzorian aurrizustitako etxebizitza guztien %20rako, barne berrikuntzako ingratutako operazioen barruan, jardununeen bidez garatu beharrekoak.

Getxoko Plan Orokorren kasuan, idazketa orain amaitzeko dagoelarik, Legeak lurzoru urbanizakor osoan eragingo luke, Getxoko Andra Mariko egoitza-alde berriei dagokiena, burutzen dauden plan partzialak izan ezik (Aixerrota, Maidagan, Kortiñe eta Goñibarri).



Aipatu Legearen arabera Plan Orokorrean aurrakusi beharreko babes motaren bat duten etxebizitza kopurua ondokoa litzateke:

ALDEA	SAILK.	Ha.	ETX./ Ha.	ETXEBIZ .	Etx. Babestua	
					%	GUZTI RA
MARTITURRI (DB)	Urbanizakorra	6,59	9	59	% 65	39
MARTITURRI (DE)	Urbanizakorra	9,66	30	290	% 65	188
MARTITURRI (EP)	Urbanizakorra	18	9	162	% 65	105
ARTEAGA (DB)	Urbanizakorra	44,29	9	399	% 65	259
ARTEAGA (DE)	Urbanizakorra	5,79	30	174	% 65	113
AZKORRI (DB)	Urbanizakorra	21,17	9	191	% 65	124
AZKORRI (DE)	Urbanizakorra	6,65	30	200	% 65	130
SARATXAGA (DB)	Urbanizakorra	21,9	9	197	% 65	128
SARATXAGA (DE)	Urbanizakorra	7,57	30	227	% 65	148
MOREAGA (DB)	Urbanizakorra	8,9	9	80	% 65	52
MOREAGA (DE)	Urbanizakorra	1,74	30	52	% 65	34
MIMENAGA (DB)	Urbanizakorra	0	9	0	% 65	0
MIMENAGA (DE)	Urbanizakorra	4,81	30	144	% 65	94
<b>GUZTIRA</b>		<b>157,07</b>		<b>2.174</b>		<b>1.413</b>

Udal honek 1993ko abenduan IKEIk egindako biztanleria eta etxebizitzari buruzko azterlana oinarritzat hartuta onetsitako Getxoko Plan Orokorrearen plangitzarako irizpide, helburu eta konponbideen agirian prezio mugatuko 722 etxebizitza aurrakusten ziren, Konporte, Iturribarri, Zubilleta, Venancios, Ormaza eta Andra Mari aldeen gehieneko osoaren %20 eta %30 bitartean dabiltzan portzentaiei dagokiena. Aurrakuspen hau eta bere portzentaia ondoko eran banatzen dira:



ALDEA	Etxebizitza berri guztien kopurua	Babes ofizialeko etxebizitza kopurua	%
KONPORTE	292	58	20
ITURRIBARRI	355	71	20
ZUBILLETA	185	56	30
VENANCIOS	60	18	30
ORMAZA	370	111	30
ANDRA MARI (Urbanizakorra)	1.631	408	25
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.893</b>	<b>722</b>	

Plana garatzen joan den bitartean azaleran egokitze batzuk egon dira, eta horren ondorioz alde hauetako batetako etxebizitza kopuru osoan ere, eta honek goiko taulako portzentaiak ezarriz, etxebizitza kopuru pixka bat handiagoa suposatzen du, ondoko taularen arabera:

ALDEA	Etxebizitza berri guztien kopurua	%	Etxebizitza kopurua
KONPORTE	316	20	63
ITURRIBARRI	459	20	92
ZUBILLETA	365	30	110
VENANCIOS	157	30	47
ORMAZA	329	30	99
ANDRA MARI (Urbanizakorra)	1.692	25	423
<b>GUZTIRA</b>	<b>3318</b>		<b>834</b>

Plangintzako irizpide, helburu eta konponbide orokorren agirian azaltzen den prezio mugatuko etxebizitzaren aurrikuspena Lege berriak babes motaren bat duten etxebizitzetarako eskagarria denarekin konparatzen badugu 200baino gehiagoko defizita dago, kopuru hau jaso daiteke Plan



orokorrean, beste operazio puntual batzuk ere aurrikusiz eta Udalak irizpide eta helburuen onespén erabakian eskatutakoarekin bat etorriko zelarik, hau da prezio mugatuko etxebizitza kopurua gehitzea, IKEIk egindako biztanleria eta etxebizitzari buruzko azterlanaren arabera.

Biztanleria eta etxebizitzari buruzko azterlan honetan 4.000 etxebizitzaren beharrezana somatzen da, %50 berriak eta %50 aldatu nahi dutenak. 4.000 etxebizitza horietatik %60 15 milioi pezetako salneurri topea duten pertsoneri dagozkie. Etxebizitzen beste %40 15 milioi pezeta baino gehiagoko salneurri topea eduki lezakete, eta merkatu askeak estaliko lituzke. Egindako inkestatik ondoko ondorioa ateratzen da, merkatu askeak ezin du 15 milioi pezeta baino gutxiagoko salneurria duen etxebizitza eskaeraren portzentaia txiki bat baino asetu (%20 baino txikiagoa), eta hau etxebizitza babestuekin bat etorri behar litzateke.

Beraz, etxebizitzari buruzko azterlanetik ondoko ondorioa atera daiteke, hau da, merkatu askeak gaur egun 15 milioi pezeta baino gutxiagoko salneurrian hornitu ezin dituen 2.000 etxebizitzen beharrezana dagoela. Kontuan izanik 2.000 etxebizitza horietatik %50 etxebizitzaz aldatu nahi duen pertsoneri dagokiela, eta, ondorioz, orain duten etxebizitza laguntza finantzieroa dela eta gainera libre uzten duten etxebizitza merkatuan sartzen dela, etxebizitza babestu berrien aurrikuspenak gutxienez 15 milioi pezeta baino gutxiagoko salneurria duen etxebizitza berrien beharrezanaren %80 estali behar duela pentsatzea arrazoizkoa da, 1.000 etxebizitzako kopurua egiten duelarik, hau etxebizitza eta plangintzarako bitartekoen tramitazio eta hirigintza-kudeaketari dagokion presazko neurriari buruzko Legearen arabera aurrikusitako etxebizitza babestuen kopuruarekin bat datorrelarik.

Hala eta guztiz ere Getxon Lege berriak etxebizitza gehienak lurzoru urbanizakorrean batzea aurrikusten du hauen kudeaketa eta merkatuan jartzea hiri lurzorukoa baino geldoagoa delarik, hau dela eta Legean aurrikusitako neurrien presazko izaera ez litzateke beteko.

Gainera Getxorako aurrikusitako lurzoru urbanizakor gehiena dentsitate bajukoa da, familia bakarreko edo biko etxebizitzentzat, eta ez daude ohizko etxebizitza babestuen tipologiaren barruan, eskualdatzeko prezioen kontrola oso zaila izango litzakeelarik, kasu askotan

sustatzaileak bakarrik lursailak saltzen dituelako eta egoiliar berriak bere etxebizitza egiten du.

Guzti hau dela eta, Lege berriak aurrikusitako etxebizitza babestuen kopurua mantentuz, zentzuzkoagoa da lurzoru urbanizakorretik hiri lurzorura aldatzea, ondoko abantailak dituelarik:

